



IRAKASLEEN

H
I
Z
K
U
N
T
Z
A

E
S
K
A
K
I
Z
U
N
A
K

2002 eta 2003ko

AZTERKETAK

61(079.1)

**IRAKASLEEN
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
2002 eta 2003ko AZTERKETAK**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Irakasleen hizkuntza eskakizunak : 2002 eta 2003ko azterketak. – I. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005
or. ; cm. – (Glotodidaktika-lanak ; 67)
ISBN 84-457-2283-2
I. Euskara - Azterketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Bilduma
809.169(079.1)

Argitaraldia: 1.a, 2005eko apirila

Ale-kopurua: 2.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Jesus Iturriza

Fotokonposizioa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-2283-2

Lege-gordailua: BI-976-05

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
I. HE1: ATARIKO PROBAK	9
I.1. HE1: Aukera Anitzeko Galderak 2002	11
I.2. HE1: Aukera Anitzeko Galderak 2003	23
II. HE1: PROBA IDATZIAK	35
II.1. HE1: Proba Idatzia 2002	37
II.2. HE1: Proba Idatzia 2003	47
III. HE2: ATARIKO PROBAK	55
III.1. HE2: Aukera Anitzeko Galderak 2002	57
III.2. HE2: Aukera Anitzeko Galderak 2003	69
IV. HE2: PROBA IDATZIAK	81
IV.1. HE2: Proba Idatzia 2002	83
IV.2. HE2: Proba Idatzia 2003	91
V. AHOZKO PROBA	101
V.1. HE1: Ahozko Probak	103
V.2. HE2: Ahozko Probak	105
VI. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	107
VI.1. Kalifikazio-sistemaren azalpena	109
VI.1.1. Erreferentzia nagusiak	109
VI.1.2. Deialdi irekia	110
VI.1.3. Deialdi itxiak	111

VI.2.	Idazlanak	113
	VI.2.1. Adierazpen-maila	113
	VI.2.2. Koherentzia	114
	VI.2.3. Kohesioa	115
	VI.2.4. Zuzentasuna	117
	VI.2.5. Lexikoa	121
VI.3.	Ahozko proba	122
	VI.3.1. Adierazpen-maila	122
	VI.3.2. Ahoskera	123
	VI.3.3. Hitz-jarioa	125
	VI.3.4. Zuzentasuna	126
	VI.3.5. Lexikoa	127
VI.4.	Irizpideen laburpena	128
VI.5.	Baremoak	130
VII.	ERANTZUNAK	135
	VII.1. HE1eko probak	137
	VII.2. HE2ko probak	139
VIII.	ERANSKINAK	141
	VIII.1. Estatistika-laburpena	143
	VIII.2. Arauzko xedapenak	144
	VIII.2.1. Lehen zehaztapena	144
	VIII.2.2. Ebaluazio-irizpideak	145
	VIII.2.3. Deialdi itxien kalifikazio-sistema	148
	VIII.2.4. Deialdi irekien kalifikazio-sistema	150

HITZAURREA

Eskuarteon duzun liburuxka hau berritasun batekin dator aurten. Orain arte ez bezala, bi urteko azterketak biltzen ditu bere baitan, 2002 eta 2003ko azterketak, hain zuzen ere. Alde horretatik beste zenbait azterketa-bildumaren jokamoldea hartu dugu aintzat guk ere azterketak argitaratzeko. Hortaz, bi urte horietako azterketa-materialen lagin zabala aurkituko duzu hemen bilduta, irakurle.

Gainera, azken edizioan hasitako bideari jarraiki, audio-materiala ere bildu dugu oraingoan ere, horrela, entzumen-proben oinarritzko testu mintzatuak disko batean eskaintzen direlarik.

Gainerakoan, azterketak bere horretan ematen dira. Lehenengo atalean HE1eko Atariko Probak (Aukera Anitzeko Galdekizunak) aurkezten dira. Bigarren atalean datoz maila horri dagozkion Proba Idatziak. Hurrengo bi ataletan HE2ko azterketak dituzu: Atariko Probak eta Proba Idatziak. Bosgarren atalean Ahozko Proben lagin txiki bat ere baduzu. Horrekin lotuta, eta azterketa-materialen sail hau osatzeko, CDan jasotako grabazioak datoz: bai entzumen-probari dagozkionak eta bai mintzamen-probako batzuk ere.

Hemendik aurrerakoak osagarriak dira nolabait. Zuzenketarako irizpideak (VI. atalean): bertan azterketen zuzenketarako erabiltzen diren tresna metodologikoak jasotzen dira. Azterketen erantzunak, berriz, VII. atalean daude bilduta. Azkenik, VIII. atalean bi Eranskin ipini ditugu. Bata azterketen gaineko estatistika sinplea da eta bestea, lege-arauen bilduma oinarritzkoa.

Lerro hauek eskaintzen didaten aukera aprobe txatu nahi nuke, eskerrak emateko azterketa hauek aurrera ateratzeko beren ahalegina jarri duten profesional guztiei: azterketa-egile, aztertzaile soil, batzorde-buru eta abarri. Beren lana ezinbestekoa da irakasleriaren euskalduntzea garantiaz burutzeko, astiro baina urrats sendoak emanaz. Ebaluazio-lana ez da behar bezala baloratzen askotan. Kritikak ere jasotzen ditu lan horrek batzuetan. Baina, kritikak eta anekdotak gorabehera, badakigu ongi egindako lanaren segurantzaz eta bermea daukala gure ebaluaziogintza honek. Horren frogara dira azterketen aurretik aztertzaileentzat egiten diren prestakuntza-saioak, ebaluazio-prozeduraren barnean ofizioz egiten diren birzuzenketak, erreklamazioen

ondorioz egiten diren birzuzenketak etab. Eta, jakina, azterketa-materialen argitalpena ere neurri horien barnean sartu behar da.

Azkenik, hitz batzuk Hezkuntza-alorreko Hizkuntza Eskakizunen azterketak prestatu eta gainditzen saiatu nahi dutenentzat. Beren ikasketa-prozesua luzea izan da seguruenik, hizkuntza bat menderatzea, zer esanik ez bigarren hizkuntza gisa, azterketa bat gainditzea baino zeregin zabalagoa baita inondik ere. Liburuxka honek ez du ikaskuntza horren ordezeko izan nahi, ezta gidari ere, baina agian lagungarri gerta dakieke ikasle horiek eskuratu dituzten trebetasunak probatzeko eta beren buruari neurria hartzeko. Horren itxaropenarekin ematen dugu argitara.

KONRADO MUGERTZA URKIDI
Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria

I. HE1: ATARIKO PROBAK

I.1. HE1: Aukera anitzeko Galderak 2002

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1

LEHEN PROBA: AAG
2002ko apirilaren 13a

1. deitura:
2. deitura:
- Izena:
- Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria **mahai gainean utzi**, aztertzailleek jasotzeko moduan.
2. **Atera** ezazu solte dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria **eredu berekoak** direla.
4. Bete zure datuak **erantzun-orrian**: Nortasun Agiriaren zenbakia **ongi kodetu** dagozkion koadrotxoetan.
5. Bete zure datuak koaderno honetan ere, baina **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
6. Gelan ezin da erre.
7. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
8. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-material guztiak jaso arte. Ez irten arduradunak baimena eman arte.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira apirilaren 18an (datorren ostegunean).
- Gainditzen dutenek apirilaren 27an, larunbatean, izango dute HE1eko 2. proba, goizeko 9:30ean, zerrendetan adieraziko den lekuan.

- 01.-** Atzo joan zinen partida ikustera? Zein dago **gaizki**?
- a) Atzo ez, baina aurreko batean joan nintzen.
 - b) Atzo ez, baina beste egunean joan nintzen.
 - c) Atzo ez, baina behin joan nintzen.
 - d) Atzo ez, baina lehengo batean joan nintzen.
- 02.-** Ondorengo hitzen artean zeinek **ez du** lanbidea adierazten?
- a) Ikazkina
 - b) Harakina
 - c) Etorkina
 - d) Okina
- 03.-** Zein dago **txarto**?
- a) Etxetik at aurkituko duzu.
 - b) Gure azpian bizi da Aitor.
 - c) Hau, bestearen aldean, 125 askoz ere merkeagoa da.
 - d) Mendiaren zehar ibili gara.
- 04.-** Zein dago **txarto**? *Mendian izan gara eta ikusi dugu.*
- a) azeria
 - b) azeri handi bat
 - c) azeri eder bat
 - d) azeria bat
- 05.-** Aukeratu esaldi zuzena.
- a) Mikelek beste opari hartu ditu Anek.
 - b) Anek opari baino gehiago hartu ditu Mikelek.
 - c) Anek opari baino gehiago Mikelek hartu ditu.
 - d) Anek beste opariak hartu ditu Mikelek.
- 06.-** *Datorrenean, zinemarako txartelak Mikeli.*
- a) eska itzazu
 - b) eskatu
 - c) eska iezaiozu
 - d) eskatu dizkiozu
- 07.-** *Berehala jantziko....., baina praka zuriak ez jantziko.*
- a) dut/ naiz
 - b) naiz/ naiz
 - c) naiz/ ditut
 - d) dut/ ditut

- 08.-** *Eta liburua, noizko?* Aukeratu erantzun **okerra**.
- a) Oraintxe ekarri dizut baina!
 - b) Ekarri dut, lasai!
 - c) Bidean da.
 - d) Oraintxe ekartzen dizut.
- 09.-** Hauetariko galdera bat formalegia da dendan erabiltzeko. Zein?
- a) Noren txanda da?
 - b) Nor da orain?
 - c) Hurrengoa?
 - d) Nori dagokio orain?
- 10.-** Aukeratu esaldi zuzena.
- a) Zenbat kostatzen du etxebizitza batek?
 - b) Zenbat kostatzen da etxebizitza bat?
 - c) Zenbat balio du etxebizitza bat?
 - d) Zenbat balio zaizu etxebizitza bat?
- 11.-** *Atzoko lasterketan gehiago eginnik, baina ez nuen ezer egin.*
- a) nezakeen
 - b) nezake
 - c) nezan
 - d) nitzakeen
- 12.-** *Nik badakit egiten. Zein ez da zuzena?*
- a) pailazoz
 - b) pailazo-lana
 - c) pailazoarena
 - d) pailazokeriak
- 13.-** Zein dago **txarto**?
- a) Norbait bada etxean?
 - b) Nonbaitetik etorri da zurrumurrua.
 - c) Kaleratu duten azken diskoa ez da batere txarra.
 - d) Picasso ez zait ezer ez gustatzen.
- 14.-** Zein da alabaren gizona?
- a) Aitaginarreba
 - b) Suhia
 - c) Semepontekoa
 - d) Erraina

- 15.- Zein dago **txarto**? *Arroza* *dago*.
- a) gozo
 - b) gazi
 - c) geza
 - d) gezi
- 16.- Zein da egokiena?
- a) Zelako bero!
 - b) Bai bero handi!
 - c) Hau beroa!
 - d) Horixe beroa hemen!
- 17.- *Kakati hutsak zarete!* Aurkitu baliokidea.
- a) Kaka baino ez duzue egiten.
 - b) Beldurtiak zarete.
 - c) Dena kakazten duzue.
 - d) Zikin samarrak zarete.
- 18.- Zeinek du esanahi **desberdinena**?
- a) Batzuetan sentitu izan dut beldurra zineman.
 - b) Zenbaitetan sentitu izan dut beldurra zineman.
 - c) Noiz edo noiz sentitu izan dut beldurra zineman.
 - d) Sarri sentitu izan dut beldurra zineman.
- 19.- *Zerbait nahi duzu?* Aukeratu erantzun zuzena.
- a) Txokolatea baina ez.
 - b) Esne pixkatxo bat.
 - c) Nik arroz-esne nahi dut.
 - d) Ez, eskerrik asko; ez dut nahi esne.
- 20.- Entzundakoa ezin duzu sinetsi. Zein da aukera **desegokia** hori adierazteko?
- a) Ezin liteke!
 - b) Ez da izango!
 - c) Hori duk eta!
 - d) Baita zera ere!
- 21.- Zein dago **txarto**?
- a) Hiru txerrikumeen ipuina ezagutzen dut.
 - b) Hirua zenbaki polita da.
 - c) Ikasleen artean, hirurek eman dute izena.
 - d) Hirurek baietz esan dute.

- 22.- Zein da zuzena?
- a) Amaitzeko gogoak dauzkat.
 - b) Tourra irabazteko aukerak badauka.
 - c) Ez daukat gogoa joateko.
 - d) Eztabaidan hasi gara.
- 23.- Ondorengo zenbakien artean, zein dago ondo adierazita?
- a) Bost ehun eta laurogeitabost.
 - b) Bostehun ta larogeita bost.
 - c) Bostehun eta larogeita bost.
 - d) Bostehun eta laurogeita bost.
- 24.- *Lehen ez bezala, orain badut*
- a) nora jotzea.
 - b) nora joko dudan.
 - c) nora jo.
 - d) nora jotzeko.
- 25.- *Nork zurituko ditu patatak?*
- a) Batak eta bestek.
 - b) Denok artean.
 - c) Elkar.
 - d) Gure artean.
- 26.- *Manuelek hitza bete zuen. Zein da antonimoa?*
- a) Hitza hautsi zuen.
 - b) Hitza jan zuen.
 - c) Hitza bota zuen.
 - d) Hitzari falta egin zion.
- 27.- Zein dago **txarto** idatzita?
- a) Atzaparra
 - b) Hilabetea
 - c) Ondartza
 - d) Ilargia
- 28.- Bilatu *maitagarria* hitzaren baliokidea.
- a) Maitemina
 - b) Xarmagarria
 - c) Maitalea
 - d) Majoa

- 29.-** Aukeratu esaldi zuzena.
- a) Arin! Autobusa joaten dela.
 - b) Lagun bi ditut betaurrekoak dituztela.
 - c) Lantokitik etortzen zenean hil zen.
 - d) Ez zebilen batere oker hori esatean.
- 30.-** *Zenbat lagun etorri ziren afaltzera? Zein dago txarto?*
- a) Hamar edo etorriko ziren.
 - b) Hamarren bat etorriko ziren.
 - c) Hamar bat etorriko ziren.
 - d) Hamar inguruan etorriko ziren.
- 31.-** Zein dago **gaizki**?
- a) 1957an jaio nintzen.
 - b) 1957an jaioa naiz.
 - c) 1957an jaiotakoa naiz.
 - d) 1957an jaiota naiz.
- 32.-** *Behi-eroen gaitza zela eta,*
- a) 10 tona haragi bota zuten.
 - b) haragi 10 tona bota zuten.
 - c) haragiaren 10 tona bota zuten.
 - d) 10 tona haragiren bota zuten.
- 33.-** *Edurne eta Koldo antzerkira joan ziren. Eta zu?*
- a) Ni ere bai joan nintzen.
 - b) Ni ere joan nintzen.
 - c) Baita ni ere joan nintzen.
 - d) Baita ni joan nintzen.
- 34.-** *Ordenagailu hori oso garestia da;, ez dakit beharrezkoa den.*
- a) bestela
 - b) bestalde
 - c) beraz
 - d) orduan
- 35.-** *Nolakoa zaren! Ez daukazu ez gatzik, ez piperrik! Aukeratu baliokidea.*
- a) Zure bizitzan ez dago gorabeherarik.
 - b) Sukaldean, gatza eta piperrak falta zaizkizu.
 - c) Graziarik gabeko pertsona zara.
 - d) Nahiko ganorabakoa zara.

36.- Aukeratu esaldi **okerra**.

- a) Ez dut ezer gogoratzen.
- b) Ez dut horretaz gogoratzen.
- c) Ez naiz horretaz gogoratzen.
- d) Ez naiz horrekin gogoratzen.

37.- Aukeratu esaldi **okerra**.

- a) Nahi duzun moduan egin dezakezu.
- b) Nire moduan egin dezakezu.
- c) Nire modura egin dezakezu.
- d) Nire bezala egin dezakezu.

38.- Aukeratu esaldi **okerra**.

- a) Ba al zatoz zinemara?
- b) Zinemara joango bagina?
- c) Zinemara joateko prest?
- d) Joaten gara zinemara?

39.- *Kontuz ibili;, min hartuko duzu.*

- a) baizik
- b) bestela
- c) ordea
- d) aitzitik

40.- *Ez dut gogoan noiz ikasi nuen, baina gustua hartu, 20 urterekin.*

- a) idaztera/ idazten
- b) idazten/ idazteari
- c) idaztea/ idazteko
- d) idaztera/ idazteari

41.- *Egin dituzun lanen artean.....*

- a) ez zait bat ere ez gustatzen.
- b) ez zait bera ere gustatzen.
- c) ez zait ezta bat gustatzen.
- d) ez zait bat bera ere gustatzen.

42.- *Gabonetan etxera etorri zitzaigun Aukeratu esaldi zuzena.*

- a) turroi eta guzti.
- b) turroi eta guztia.
- c) turroia eta guztiz.
- d) turroia eta guztiarekin.

- 43.- *Oso urrun da batzarra harentzat, baina.....* .
- a) ea badatorren!
 - b) ea badatorrela!
 - c) ea etorriko baden!
 - d) ea etorriko dela!
- 44.- *Erosketak bidali nau amak, baina laranjak..... ahaztu zait.*
- a) egitera/ erostea
 - b) egiteko/ erosi
 - c) egiten/ erosi
 - d) egitera/ erosteko
- 45.- *Anderrek diru asko..... Marbellan* .
- a) izango balu/ biziko litzateke.
 - b) izan balu/ biziko litzatekeen.
 - c) izango balu/ biziko zen.
 - d) izango balu/ biziko zatekeen.
- 46.- *Aukeratu esaldi zuzena.*
- a) Eguzkia edozein tokitik ikus daiteke.
 - b) Eguzkia edozein tokitatik ikus daiteke.
 - c) Eguzkia edozein tokiatik ikus daiteke.
 - d) Eguzkia edozein tokietatik ikus daiteke.
- 47.- *Ilargi betearekin.....* .
- a) otso bihurtzen zen
 - b) otsoa bihurtzen zen
 - c) otso batean bihurtzen zen
 - d) otsoan bihurtzen zen
- 48.- *Zein da zuzena?*
- a) Alaba Koldo atzean dago.
 - b) Ane ondoan jesarriko naiz.
 - c) Umea aulki gainetik jausi da.
 - d) Okindegia aurrean bizi naiz.
- 49.- *Ez kezkatu; bost axola dio horrek. Zein da baliokidea?*
- a) Ergelkeriak esaten ditu horrek.
 - b) Berdin dio horrek.
 - c) Ganorabakoa da hori.
 - d) Axola handikoa da hori.

- 50.- *Zer gertatu zaizu ba?* Aukeratu erantzun egokiena.
- Jausi egin naizen.
 - Jausi naiz eta.
 - Jausi egin naiz.
 - Jausi naiz.
- 51.- *Azterketa azkar egin duzu eta aztertzaileak jaso dezan hauxe esan diozu:*
- Amaitu egin dut!
 - Amaitu dut!
 - Amaitzeaz dut!
 - Lanak amaitutak ditut!
- 52.- *Herrian uholderik izan ez otoitzean ari dira parrokian.*
- dadin
 - dadila
 - dezan
 - dezala
- 53.- *Hona gentozela, lanean.*
- zu ikusi zintugun
 - zu ikusi gintuzun
 - zuri ikusi genizun
 - zu ikusi zaituztegun
- 54.- *Zein ogibide izan zuen zure amak?* Aukeratu erantzun egokia.
- Saltzaile aritu zen.
 - Saltzailea jardun zen.
 - Saltzailea ibili zen.
 - Saltzailea jardun zuen.
- 55.- *Zein dago txarto kolpea adierazteko?*
- zaplaztekoa
 - ipurdikoa
 - eskupekoa
 - belarrondokoa
- 56.- *Berriketarako gogo gutxi izaten da astelehenetan!* Aurkitu baliokidea.
- Aldaketak egiteko gogo gutxi
 - Gauza berriak egiteko gogo gutxi
 - Hitz egiteko gogo gutxi
 - Berrikuntzan hasteko gogo gutxi

- 57.- *Atxagaren libururen bat erosi nahi nuen, baina esan didate.....*
- haren libururik ez dutela.
 - haren liburuak ez dutela.
 - haren libururik ez dituztela.
 - haren liburua ez dutela.
- 58.- *Zure soinekoa nirea da, baina ez zen izan nirea garestia.*
- bezalakoa/ adina
 - bezalakoa/ bezain
 - berdina/ bezain
 - bezala/ adinako
- 59.- *Zu ez zinen bertan egon;, ez dakizu zer gertatu zen.*
- hala ere
 - beraz
 - dena den
 - bestela
- 60.- *Azterketarako data jakin deituko dizut. Zein da **desegokia**?*
- orduko
 - eta berehala
 - dudanerako
 - bezain laster
- 61.- *Lekutan daude!* Aukeratu baliokiderik hurbilena.
- Bere lekuan daude.
 - Toki ezagun batean daude.
 - Urrun daude.
 - Hainbat lekutan daude.
- 62.- Zein dago **gaizki**?
- Elkarri mokoka ari dira gau eta egun.
 - Elkarren ondoan egon ginen zineman.
 - Elkarrekin joanda ere, ez duzu ezer lortuko.
 - Elkar egon ginen aurreko urtean.
- 63.- Zein da esaldi **desegokia**?
- 2 urte zituelarik hasi zen oinez.
 - 2 urte zituenean hasi zen oinez.
 - 2 urterekin hasi zen oinez.
 - 2 urtez hasi zen oinez.

- 64.- Zeinek du esanahi **desberdina**?**
- a) Zure auzokoak lapurrak omen dira.
 - b) Zure auzokoak lapurrak dira, nonbait.
 - c) Dirudienez, zure auzokoak lapurrak dira.
 - d) Zure auzokoak lapurrak dira, jakina.
- 65.- *Lehengo urtean gure bileretara baina atzo.....***
- a) etorri ohi zen/ ez zen etorri.
 - b) zetorren/ ez zetorren.
 - c) zetorren/ ez zen etortzen.
 - d) etorri ohi zen/ ez zen etortzen.
- 66.- *Hainbat ez zaio zenbait gustatzen.***
- a) umeri/ irakasle
 - b) umeei/ irakasleak
 - c) umei/ irakasle
 - d) umeri/ irakasleak
- 67.- Zein dago **txarto**?**
- a) Asko dakit gai horri buruz.
 - b) Asko dakit gai horren buruz.
 - c) Asko dakit gai horren inguruan.
 - d) Asko dakit gai horretaz.
- 68.- Aukeratu esaldi zuzena.**
- a) Nahi baduzue, txiste bat konta dezakezue.
 - b) Nahi izaten baduzue, txiste bat kontatu ahal duzue.
 - c) Nahi izaten baduzue, txiste bat konta dezazuen.
 - d) Nahi baduzue, txiste bat konta ezazuen.
- 69.- *Esan didate Ameriketara joango, baina ez dut uste egia.....***
- a) zarela/ dela.
 - b) zaren/ denik.
 - c) zarela/ denik.
 - d) zarena/ dela.
- 70.- *Bizilagunaren etxera joan eta badiotsu: Ospa, hi! Zer esan nahi dizu?***
- a) Bisita hori ospatu behar duzuela.
 - b) Poza hartzen duela.
 - c) Handik alde egiteko.
 - d) Ongi etorri zarela.

I.2. HE1: Aukera Anitzeko Galderak 2003

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1

LEHEN PROBA: AAG
2003ko martxoaren 1a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria **mahai gainean utzi**, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. **Atera** ezazu solte dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria **eredu berekoak** direla.
4. Bete zure datuak **erantzun-orrian**: Nortasun Agiriaren zenbakia **ongi kodetu** dagozkion koadrotxoetan.
5. Bete zure datuak koaderno honetan ere, baina **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
6. Gelan ezin da erre.
7. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
8. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-material guztiak jaso arte. Ez irten arduradunak baimena eman arte.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira martxoaren 6an (datorren ostegunean).
- Gainditzen dutenek martxoaren 15ean, larunbatean, izango dute HE1eko 2. proba, goizeko 9:30ean, zerrendetan adieraziko den lekuan.

01.- *Etxeko lanak egiten ditugu.*

- a) denok artean
- b) elkar
- c) gure artean
- d) elkarrik

02.- Zein da zuzena?

- a) Kristoren gogoak dauzkat.
- b) Baditut irabazteko esperantzarik.
- c) Ez daukat ezertarako gogoak.
- d) Lanak izango ditu horri irabazten.

03.- *Nahi balu,*

- a) konpon lezake.
- b) konpon zezakeen.
- c) konpon dezake.
- d) konponduko du.

04.- *Noiz hitz egingo dugu zuzendariarekin? Aukeratu erantzun okerra.*

- a) Orain ez dut astirik.
- b) Bihar ezingo nuke.
- c) Albait arinen.
- d) Itxaroten dugu, ezta?

05.- *Zenbat urte dituzu? Aukeratu erantzun okerra.*

- a) Zuk adina bai.
- b) Zuk beste, hor nonbait.
- c) Zuk bezala: 46.
- d) Zuk bezain behintzat bai.

06.- *Ezin dut arnasarik hartu; Zein da segida okerra?*

- a) itolarria daukat.
- b) hau itomena!
- c) giro hau itogarria da!
- d) hau itogina!

07.- *Zuk diozunak dauka.*

- a) garrantzitsua
- b) garrantzia
- c) garrantzirik
- d) garrantzizkoa

- 08.-** *Etxeko arropak erantzi eta dotore jantzi*
- a) nituen/nituen.
 - b) nintzen/nintzen.
 - c) nituen/nintzen.
 - d) nuen/nuen.
- 09.-** Zein da zuzena?
- a) Ez du asko kostatzen matrikulak.
 - b) Ez naiz asko balio horretarako.
 - c) Hainbeste balio al dugu?
 - d) Hori gutxi balio du.
- 10.-** Nola idazten da: 2003. urtea?
- a) Bi mila eta hiru urtea.
 - b) Bi mila eta hirugarren urtea.
 - c) Bi mila hirugarren urtea.
 - d) Bi milako hirugarren urtea.
- 11.-** Zein da zuzena?
- a) Bero egiten du, gero!
 - b) Nolako bero egiten duen!
 - c) Bai bero dagoen!
 - d) Ze bero egiten du!
- 12.-** *Irakasle asko al zarete ikastetxean? Zein dago txarto?*
- a) Hamasei edo.
 - b) Batzuk behintzat bai.
 - c) Hogeiren bat.
 - d) Hamazazpi inguruan.
- 13.-** Zein da zuzena?
- a) Neska-mutilek jolasean dabilta.
 - b) Gaztetan ondo pasatzen ginen jaietan.
 - c) Aski du gurekin jolastea!
 - d) Partida bikaina jolastu zuen.
- 14.-** *Esandakoen artean Zein dago txarto?*
- a) ez da inor azaldu.
 - b) ez da azaldu ezta inor.
 - c) ez da inor ere azaldu.
 - d) inortxo ere ez da azaldu.

15.- Eguraldia adierazteko, zein dago **txarto**?

- a) Bihar ere argituko du.
- b) Euria ari da.
- c) Hotz egiten du, gero!
- d) Ez da giro hemen!

16.- *Hauts zarete eta bihurtuko zarete.*

- a) hautsa
- b) hautsean
- c) hautsetan
- d) hauts

17.- *Txukundu azkar liburu horiek! Aukeratu zuzena.*

- a) Berriz? Baditut txukunduta!
- b) Zertarako? Txukun asko dauzkat.
- c) Berehala txukuntzen ditut!
- d) Begira!Txukundutak daude!

18.- *Berehala , ez zaizu ezer gertatuko. Zein da erantzun **okerra**?*

- a) isiltzen bazara
- b) isilduko bazara
- c) isilduz gero
- d) isilduta

19.- *Ez zen kikildu; lanari. Zein da **desberdina**?*

- a) gogor heldu zion
- b) gogotik lotu zitzaion
- c) muzin egin zion
- d) berehala ekin zion

20.- Zein **ez da** sail berekoa?

- a) Aldagaitza
- b) Moldakaitza
- c) Izukaitza
- d) Ekaitza

21.- *Ez al da horrela? Zein da segida **okerra**?*

- a) Bada, horrela dakar liburuan.
- b) Bada, horrela ageri da liburuan.
- c) Bada, liburuan horrela ipintzen da.
- d) Bada, nik hala daukat entzuna.

22.- Zein dago **txarto**?

- a) Eskua bete txanpon eman dit.
- b) Eskukada bat gerezi hartu diot.
- c) Hiru esne litro hartzen ditut egunero.
- d) Poltsa bat sagar erosi duzu.

23.- Zein da **desberdina**?

- a) Berritsua
- b) Esanekoa
- c) Hitzontzia
- d) Berbatsua

24.- Zeinek du esanahi **desberdina**?

- a) Arduragabea
- b) Lotsagabea
- c) Zabarra
- d) Axolagabea

25.- *Lan lasterra,*

- a) lan ankerra.
- b) lan ederra.
- c) lan okerra.
- d) lan alferra.

26.- *Hori dun **babalorea**, hori! Zein da **desberdina**?*

- a) Inozoa
- b) Geldoa
- c) Ergela
- d) Arrunta

27.- ***Erronka** jo nien ikasleei ezetz inork gainditu.*

- a) Errieta egin nien.
- b) Desafioa bota nien.
- c) Adore eman nien.
- d) Mehatxu egin nien.

28.- Zeinek du esanahi **desberdina**?

- a) Ez dio axolarik.
- b) Ez dio ardura.
- c) Ez dio ezer.
- d) Berdin dio.

29.- *Zain dago,*

- a) nik zer erantzungo.
- b) nik zer erantzungo diot.
- c) nik zer erantzuten badiot.
- d) nik zer erantzuten diot.

30.- *Ezer bazenu,*

- a) deitzeko lasai, e?
- b) deitzen didazu lasai, e?
- c) deitzea lasai, e?
- d) deitu lasai, e?

31.- *Eskainitako liburuen artean*

- a) ez ditut bat ere atsegin.
- b) ez dut bat bera ere atsegin.
- c) ez dut bera ere atsegin.
- d) ez dut ezta bat atsegin.

32.- *Zein da zuzena?*

- a) Zu baino trebea naiz.
- b) Gurea zuena baina politagoa da.
- c) Zuk adina dirua daukat nik.
- d) Garen bezalakoak gara.

33.- *Inoiz egon al zara izarrei begira? Zeinek du esanahi **desberdinena**?*

- a) Bai; behin eta berriro.
- b) Bai; behin edo behin.
- c) Bai; noizik behin.
- d) Bai; inoiz edo behin.

34.- *Pentsatua daukat*

- a) zerbait egin.
- b) zer egin.
- c) zer egitea.
- d) zer edo zer egin.

35.- *Zein dago **gaizki**?*

- a) 1941ean jaio nintzen.
- b) 1941ean sortua naiz.
- c) 1941ekoa naiz.
- d) 1941ean jaiota naiz.

- 36.- *Hondamendia izan dute Galiziako kostaldean; ..., lagundu behar diegu.*
- a) bestela
 - b) ordea
 - c) beraz
 - d) berez
- 37.- *Istripua..... kontatu behar duzu. Zeinek du esanahi **desberdina**?*
- a) gertatu bezala
 - b) gertatu zen moduan
 - c) gertatu zen legez
 - d) gertatu zen antzera
- 38.- *Berandu heldu ginenez, ez ziguten utzi*
- a) sartu.
 - b) sartzeko.
 - c) sartzen.
 - d) sartzea.
- 39.- *Edozein aurki liteke hitz hori.*
- a) hiztegian
 - b) hiztegitan
 - c) hiztegietan
 - d) hiztegiatan
- 40.- *Zu gaztea naiz, baina ez daukat zuk.....*
- a) bezain / beste diru.
 - b) bezain / adina dirua.
 - c) adina / adina diru.
 - d) bezala / beste dirua.
- 41.- *Zein ez da animalia?*
- a) Basurdea
 - b) Basahuntza
 - c) Basoilarra
 - d) Basakeria
- 42.- *Kale bizi gara, baina ez etxe*
- a) berean / berean.
 - b) berdinean / berdinean.
 - c) bereberean / berdinean.
 - d) berdinean / berean.

- 43.- *Nik badakit*
- a) leloarena egitea.
 - b) leloarena egiten.
 - c) leloa egiten.
 - d) leloa egitea.
- 44.- *Liburua utziko dizut begira*
- a) dezazun.
 - b) dezazula.
 - c) zaitezen.
 - d) diezazun.
- 45.- *Autoa hartu aurretik, esan dit amak. Zein da okerra?*
- a) kontuz ibiltzeko
 - b) «kontuz ibili!»
 - c) kontuz ibiltzea
 - d) kontuz ibil nadila
- 46.- *Zein ez da lanbidea?*
- a) Ikazkina
 - b) Erantzulea
 - c) Errementaria
 - d) Ikertzailea
- 47.- *Ez duzue hori entzun? Zeinek du esanahi desberdinena?*
- a) inoiz
 - b) behin ere
 - c) sekula
 - d) behingoan
- 48.- *Zein da okerra ortografia aldetik?*
- a) ohiana
 - b) leihoa
 - c) lehoia
 - d) lehiaketa
- 49.- *Azoka osoan begiratu arren, aurkitu.*
- a) ez ditut piper onik
 - b) ez dut piper onik
 - c) ez dut piper onak
 - d) ez ditut piperra onak

- 50.- *Leku berean egon arren, zuek ez ikusi.*
- a) zeniguten
 - b) zaituztegun
 - c) gintuzuen
 - d) genizuen
- 51.- *Ikastaroak ikasi dugu igerian. Zein da **okerra**?*
- a) eginez
 - b) eginda
 - c) eginik
 - d) egiten
- 52.- *Urteetan zaila da loterian irabaztea.*
- a) saiatzearren
 - b) saiatzeagatik
 - c) saiatzekotan
 - d) saiatuagatik
- 53.- *Zein da zuzena?*
- a) Azkar, filma hasiko dela!
 - b) Lanetik nentorrela ikusi nuen istripua.
 - c) Bota zakarrontzira, hondatuta daudela.
 - d) Badira ikasleak inoiz ere ez direla agertzen.
- 54.- *Gertuago balego, oraintxe bertan joango ilargira.*
- a) nintzen
 - b) nintzatekeen
 - c) nintzateke
 - d) naiteke
- 55.- *Zein da **okerra** ortografia aldetik?*
- a) Esi
 - b) Etsi
 - c) Etzi
 - d) Hezi
- 56.- *Aspaldi zegoen hondatuta; ez da inor konturatu.*
- a) baino
 - b) ordez
 - c) alabaina
 - d) halaber

- 57.- *Kirola garrantzitsua da eta*
- a) baita elikadura ere.
 - b) ere elikadura.
 - c) ere bai elikadura.
 - d) ere baita elikadura.
- 58.- *Ardo hondar hori non gordeko dugu?*
- a) Botila bat uretan.
 - b) Urezko botilan.
 - c) Ur botila batean.
 - d) Botila bat urean.
- 59.- Zein da **desberdina**?
- a) Oso nekatuta nago.
 - b) Leher eginda nago.
 - c) Porru eginda nago.
 - d) Nahigabetuta nago.
- 60.- *Nola bukatu zen partida?*
- a) Lau edo bost.
 - b) Lau eta bost.
 - c) Lau bost.
 - d) Lau eta ezer.
- 61.- Zein dago **gaizki**?
- a) Nor etorri ohi da?
 - b) Nor etorri ote da?
 - c) Nor etorri da, bada?
 - d) Nor etorri omen da?
- 62.- *Ez dut uste, baina ea tramankulu hau.*
- a) badabilen
 - b) ibiliko den
 - c) ibili dabil
 - d) dabilela
- 63.- Zein da zuzena?
- a) Edozein tokitik datoz etorkinak.
 - b) Edozein lekuetan daude ciber-kafeak.
 - c) Edozein gelak dauka ordenadorea.
 - d) Edozein ikasleei galde iezaiozu.

- 64.- Zein da zuzena?
- a) Gu ondoren etorriko zarete.
 - b) Mikel ondoan eseriko naiz.
 - c) Kiroldedia aurrean dabil Andoni.
 - d) Klonazioaren gainean aritu gara.
- 65.- *Zergatik ari zara negarrez?*
- a) Erori naizela!
 - b) Erori egin naiz eta!
 - c) Erori banaiz!
 - d) Erori naiz, bada!
- 66.- Zein dago **txarto**, *kolpea* adierazteko?
- a) Eskukada
 - b) Masailekoa
 - c) Ukabilkada
 - d) Muturrekoa
- 67.- *Berriketarako gogoa* daukate ikasle horiek.
- a) Asmo berriak dituzte.
 - b) Egoera aldatu nahi dute.
 - c) Isildu ere ez dira egiten.
 - d) Ekimen berriak gogoko dituzte.
- 68.- *Oskorriren diskoren bat nahi nuke*. Zein da erantzun zuzena?
- a) Haien diskorik ez daukat.
 - b) Haien diskoak ez daukat.
 - c) Haien diskorik ez daukat.
 - d) Haien diskoa ez daukat.
- 69.- *Etxera deituko dizuet*. Zein da erantzun zuzena?
- a) iritsi naizenerako
 - b) iritsi orduko
 - c) iritsi naizenean
 - d) iritsiko naizenean
- 70.- *Hemezortzi atera nuen gidabaimena*. Zein dago **gaizki**?
- a) urte nituela
 - b) urterekin
 - c) urtez
 - d) urte nituenean

II. HE1: PROBA IDATZIAK

II.1. HE1: Proba Idatzia 2002

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1

PROBA IDATZIA 2002ko apirilaren 27a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konprobatu azterketa honek 8 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan laburra 4) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira **maiatzaren 13an.**
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute **maiatzaren 14tik 17ra** bitartean (arratsaldean) Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan.

1. AHOZKOAREN ULERMENA*

Ondoren, grabazio bat entzungo duzu. Grabazio honek bi zati ditu eta zati ba-koitza bi aldiz entzun ahal izango duzu. Lehenik galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Ondoko koadroan agertzen diren esaldiak Egiazkoak ala Gezurrez-koak diren esan behar duzu E edo G idatziz.

Arantzazuko fraide frantziskotarra dugu Pello Zabala. Euskadi Irratian eguraldiaren berri ematen du, besteak beste, eta “Klasikoak gaur” irratsaioa aurkezten. Kontu horiek eta haurtzaroa dituzte mintzagai elkarrizketa honetan.

1. zatia: Pello Zabala I

	E/G
1. Hamabost bat urte badarama Pellok irratian eguraldiaren berri ematen.	
2. Irratikoek animatuta hasi zen Pello lan horretan Euskadi Irratian.	
3. Euskaraz jakiteak bazuen zerikusirik eginkizun horrekin.	
4. Arantzazuko behategia edo obserbatorioa Euskadi Irratiak jarri zion Pellori.	
5. Euskadi Irratia sortu orduko hasi zen Pello han eguraldiaren berri ematen.	
6. Oporren aitzakia jarri zuen Pellok hasiera batean.	
7. Hasiera-hasieratik gustatu zitzaion Pellori Euskadi Irratiko eskaintza.	
8. Arantzazuri mesede egingo ziolakoan ekin zion lan horri.	
9. Musika-programa batekin hasi zen Pello Euskadi Irratian.	
10. Musika-programak egin zuen ezagun Pello.	

2. zatia: Pello Zabala II

	E/G
11. Bateratsu ikasi zuen Pellok hitz egiten eta irakurtzen.	
12. Amak fabrikan egiten zuen lan familia izan aurretik.	
13. Inoren laguntzarik gabe ikasi zuen irakurtzen.	
14. Panaderiako kontuak-eta amaren bidez dakizki Pellok.	
15. Gogoko du Pellok ibilian irakurtzea.	
16. Arantzazura joan baino lehen zeukan Pellok musika-zaletasuna.	
17. Irratiak eragin handia izan zuen Pelloren musika-zaletasunean.	
18. Amaren ondoan oso txintxo, baina bestela oso bihurria zen.	
19. Ostiral Santuko pasadizoak adierazten du zeinen bihurria zen.	
20. Jendea harrituta geratu zen Pelloren portaerarekin.	

* Atal honi dagozkion grabazioak CD-aren 1. eta 2. pistetan aurkituko dituzu.

2. IRAKURMENA

Neurri handiko arropak

Normaltzat hartzen diren neurrietan nekez sartzen direnek arazoak izan ohi dituzte gustuko arropa erosteko. Neurria handitu ahala, buruhaustek ere areagotu egiten dira. Gorpuzkera handikoek benetako arazoak izaten dituzte arropa erosterakoan, ez baita erraza izaten denda arruntetan gizonetzkoen arropan 60tik gorako neurriko arropa aurkitzea edo emakumeen kasuan 46tik gorakoa. Baina arazoa, neurrietan gora egin ahala, areagotu egiten da: non eta nola eskuratu 80 neurriko praka bake-roak...?

Azken urte hauetan neurri handiko jantziak saltzen dituzten denda askotxo ireki dira Euskal Herrian. Hala ere, arestian aipatutako mugak bere horretan dirau: neurri handi-handiko arropa nekez aurki daiteke, eta aurkitzekotan zaila da moda-modako jantzirik erostea. Eta potolo egoteak ez du esan nahi modari uko egiten zaionik... Bere dendetan tailarik handienak ere salgai dituen Cristina Ageitosek dioenez, emakumeen kasuan 54tik 70era bitartekoak dira benetan handiak, eta gizonetzkoentzat 64tik 80ra bitartekoak. 80koa behar duen gizonetzkoak (200-205 kilo inguruko pisua duenak) gustuko izan ditzakeen praka bake-roak erosteko modua izan behar du.

Oro har, gorpuzkera handiko gizonetzkoek eta gazteek emakumezko helduek baino arazo gehiago dituzte arropa egokia erosteko. Cristina Ageitosen arabera, «hemen gustukorik aurkitu ez eta, baziren Ingalaterran katalogo bidez erosten zuten gizonetzkoak. Horiek benetan eskertzen dute neurri handiko gizonetzkoek zuzendutako denda berezia ireki izana».

Arazorik larrienak gazteek dituzte, horiek egundoko konplexuak jasatera heltzen baitira. Lagunen artean modan dauden dendetara joan eta, dendariak goitik behera begiratu ondoren, “zuretzat ez daukat ezer” entzutera ohituta daude. Denda espezializatuetara sartzen direnean, noski, “neurri handiko arropa hartzen dute, ohituraren ohituraz, beste edozein dendatan egiten duten bezalaxe. Handiegia dutela ikustean askok sinistu ere ez dute sinisten, eta pozten dira eurak bezain gizenak eta gizenagoak ere badaudela ikusten dutelako” azaldu digu Cristinak.

Modako arropa prezio onean aurkitzea zaila denez, jantziak neurrira eginarazte-ra behartuta daude sarritan. Arazo honek gazteengan duen eraginak “zerikusi zuzena izaten du auto-estimuaekin” azaldu digu Milagros Urdangarin ASOBE Euskadiko Gizenen Elkarteko idazkariak. Elkartearen helburu nagusia “gizonei bizitza hobea eta osasuntsuagoa eskaintzea da”, eta alor horretan estetikak ere badu zeresanik. Euskal Herrian, gainera, “hainbatek du arazo hori. Izan ere, “hemengo gizonetzkoak indartsuak dira, eta 100-120 kilo bitarteko gizon astun askotxo daude” ziurtatu digute ASOBE elkarteok.

Merkatua zabala dela badirudi ere, neurri handiko arropa egiten duten fabrikatzaile gutxi daude gure artean. Bartzelonako *Superlinea* enpresako arduradunek dio-

tenez, *neurri bereziak* kontzeptua baztertu egin behar da: “Neurri guzti-guztiak dira normalak, batzuk handiagoak eta besteak txikiagoak”.

Orain arte diseinugile askok muzin egin diote neurri handiko jantziak egiteari: “Arropa egileek ez dute atsegin ohiko neurrietatik kanpo dagoen arroparik, baina arian-arian joera hori aldatuz doa”, adierazten du Javier de Juana Bilboko jostun ospetsuak. Garai bakoitzak estetikaren kontzeptu berezia izaten du eta gaur egun “diseinuen irudia estilizatua da”. Benetako munduan, berriz, “persona gehienek gorputzak adinarekin aldatu egiten dira eta normalean ez dira argaltzen”. De Juanaren ustez, dotoretasuna ez dago zertan uztartu gaztetasunarekin edo argaltasunarekin: “Adina aurrera doan heinean gizendu egiten gara gehienok, baina ez dio axola: oso mardula zen arren, Luis XIV.a erregea dotoretzat jo izan dute historian zehar”.

Diseinugileek, lodientzako jantziak egitean, kolore ilunak eta diseinu motelak hautatzen dituzte. «Dendariek ere marra bertikalak dituzten alkandorak gomendatzen dizkirate, irudia estilizatzen didatelakoan», aitortzen du Louvier's-eko Javier Merinok. Neurri handiko jantziak dituzten dendetan beste honetaz konturatzen hasiak dira, ordea: potolotxo daudenak ez dira lodi-uniformea jantzi zaleak, “Hasieran emakumeentzako alkandora zabal-zabalak ekartzen genituen dendara, baina erosleak ez du beti tankera horretako arropa jantzi nahi. Tarteka, beste era bateko arropa erosteko gogoia izaten dutela jabetu gara”, dio Itziar Arbelaitzek.

ERIKA ERKIZIA, *Zabalik*, 2000-01-22 (moldatua)

1.- Gorpuzkera handikoek

- a) ezin dute arroparik erosi.
- b) soilik 60tik gorakoak eros ditzakete.
- c) nekez lortzen dute arropa.
- d) ezin dute praka bakerorik erosi.

2.- Neurri handiak direla eta, hauxe dio:

- a) emakumeetan 70 artekoa aurkitzea ez da hain zaila.
- b) arazoak 200 kilo inguru dutenekin hasten dira.
- c) denda asko ireki duten arren, arazoa areagotu egin da.
- d) batzuetan potoloek, halabeharrez, egiten diote uko modari.

3.- Erosteke arazoa dela eta, hau dio:

- a) benetan emakumezko helduek dute arazo hori.
- b) batzuek Ingalaterrara joan behar izaten zuten.
- c) batzuentzat ez da erraza behar duten arropa erostea.
- d) soilik gizonezkoek eskertzen dute denda bereziak ireki izana.

- 4.- Gazte potoloek
- a) lagunen artean joanda ere, ez dute jantzirik aurkitzen.
 - b) dendak goitik behera begiratuta ere, ez dute ezer egokirik ikusten.
 - c) denda berezietan ere arroparik handiena erosten dute.
 - d) modako dendetan zaila dute arropa egokia topatzea.
- 5.- Gazte potoloek arropa denda berezietan
- a) ez dute sinistu nahi gizen daudela.
 - b) gizen egotea pozgarria dela pentsatzen dute.
 - c) gizen baino gizenago daudela ikusten dute.
 - d) ez dute arroparik handiena behar izaten.
- 6.- ASOBEkoak dioenez
- a) indartsu izateko 100 kilo inguru behar dira.
 - b) indartsuak dira estetika arazoa dutenak.
 - c) arroparen arazoak gazteekin du zerikusia.
 - d) jantzi egokirik ez eskuratzea arazo-iturria izan daiteke.
- 7.- Batzuen ustez
- a) arropak oso handiak izan arren, ez dira neurritz kanpokoak.
 - b) laster ez da taila berezirik egongo.
 - c) arropa fabrikatzaile gutxi dago merkatuan
 - d) neurri bereziko jantziak dira, soilik, handiegiak.
- 8.- Orain arte
- a) diseinugileek ez dute neurri handiko arroparik sortzen jakin.
 - b) ekoizleek ohiko neurriak baino ez zituzten gogoko.
 - c) joera aldaketak zerikusia du jostun ospetsu batekin.
 - d) ekoizleek atsegin dute arian-arian joeraz aldatzea.
- 9.- Dotoretasunaren inguruan hau dio artikulua:
- a) Argal daudenek errazago dute dotoreak izatea.
 - b) Nahiz eta adinarekin gizendu, ez zaigu axola.
 - c) Gaztetasunak eta dotoretasunak bat etorri behar dute.
 - d) Loditasuna eta dotoretasuna batera joan litezke.
- 10.- Lodientzako jantzi egokien inguruan esaten da:
- a) kolore eta diseinu gutxikoak omen dira egokienak.
 - b) tankera desberdinetako arropa behar da.
 - c) marra bertikalak dituzten atorrak janzten ditu J. Merinok.
 - d) batzuetan, uniformeak baino ez dituzte janzten.

Erantzun egokiena aukeratu eta beheko laukietan idatzi.

1	2	3	4	5

6	7	8	9	10

3. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu gutxienez.

Kexa-gutuna

Agentzia batek antolatutako bidaia egin duzu eta ez zara batere pozik etorri. Idatzi iezaiozu kexa-gutuna agentziako arduradunari.

- Datak: 2002-3-25 / 2002-4-1
- Kexuak: Hotela/ Irtenaldiak/ etab.

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Zikinkeria

Ikastetxea eta bere ingurua gero eta zikinago daude. Ikasleek badute horretan zirikusia. Deskribatu egoera eta konponbideak proposatu klaustroari:

- paperontziak
- arauak
- zainketa etab.

EDO

“Botellazoa” edo “litrona”:

- Zer da hori?
- Zer eragozpen sortzen ditu?
- Zein izan litezke konponbideak?.

II.2. HE1: Proba Idatzia 2003

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1

PROBA IDATZIA 2003ko martxoaren 15a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria mahai gainean utzi, aztertzailerik jasotzeko moduan.
2. Konprobatu azterketa honek 8 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan laburra 4) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira **martxoaren 24an.**
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute **martxoaren 25etik 28ra** bitartean (arratsaldez) Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan.

1. AHOZKOAREN ULERMENA*

Ondoko koadroan agertzen diren esaldiak Egiazkoak ala Gezurrezkoak diren esan behar duzu E edo G idatziz. Lehendabizi, galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Ondoren, lehen grabazioa entzungo duzu bi aldiz. Gero gauza bera egingo dugu bigarren grabazioarekin.

I. zatia: Parrandara autobusez

Aintzane Lauzirika teknikaria da Gipuzkoako Diputazioko Garraio Sailean. Euskadi Irratiak elkarrizketa egin dio autobus zerbitzu berezi baten gainean.

	E/G
1. Helburu bikoitza du zerbitzu honek.	
2. Berria da esperientzia eta hutsetik abiatzen da.	
3. Diputazioak diruz lagunduko du zerbitzua.	
4. Bidaiarien jokabideaz beldur dira gidariak.	
5. Autobus gidariei babes eskainiko die Diputazioak.	
6. Gau eta egun ibiliko dira autobusak asteburuan.	
7. Ostiraletan ere jar liteke zerbitzua.	
8. Ziur daude aldatuko direla gazteen garraio-ohiturak .	
9. Zenbat bidaiari hainbat autobus jarriko dituzte.	
10. Bi eskualde edo gune hartuko ditu zerbitzu honek.	

II. zatia: Familia eta kirola

Joseba Etxebarria aditua da Gorputz Hezkuntzan. Euskadi Irratiak elkarrizketa egin dio kirolaren eta familiaren arteko harremanaz.

	E/G
11. Kirola indartzea du helburu "Acción Familiar" elkarteak.	
12. Astebete iraungo du ekimen honek.	
13. Elkarteak antolatzen duen bigarrena da aurtengoa.	
14. Komunikazioa errazten du kirolak.	
15. Baserriak zerikusi handia izan du kirolarekin.	
16. Jokoa eta jolasa gauza bera dira antropologoentzat.	
17. Mendizaletasunak asko zor dio familiari gure artean.	
18. Ezaugarri diferenteak ditu eskola-kirolak eta familiakoak.	
19. Gurasoen kirol-prestakuntza indartu nahi du ekimenak.	
20. Eskolakoak huts egiten duelako indartu nahi dute familia-kirola.	

* Atal honi dagozkion grabazioak CD-aren 3. eta 4. pistetan aurkituko dituzu.

2. IRAKURMENA

Hutsune bakoitzean ezabatu den zatia aurkitu ondoko zerrendan

Money, money

Nork ez du inoiz pentsatu zein ote den diruaren benetako balioa? Ezin daiteke jan, ezin daiteke edan, ez du berorik ematen eta ez gaitu berotik babesten. Diruak ez du biziraupenerako balio, ...1... . Jakina, makina bat gauza gertatu da paper eta metal zati xumeok gure bizimodua zuzentzeko proportzioan izan arte.

Betidanik, edo behintzat nomada izateari utzi eta nekazari eta abeltzain gisa egonkortu ginenetik, gizakiok trukea egiteko premia izan dugu gure beharrak asebetzeko. ...2... , erosoagoa da gai guztien prezioa neurtzeko erabil daitekeen eredu hautatzea, eta horixe da, funtsean, dirua. Historian zehar, dena den, hainbat izan dira gaur diruak duen funtzioa bete duten merkantziak, gehienak jatekoak. ...3... , bazituzten-eta abantailak: batetik, ez ziren usteltzen eta alferrik galtzen; bestetik, zati txiki eta berdinetan bana zitezkeen.

Ezagutzen dugun diruaren aurrekaririk zaharrena Mesopotamiakoa da. ...4... . Sistema eroso zen, gari edo oliotegi oso bat metalezko barratxo baten tamainara murriz baitzitezkeen, eramangarriago eginez. Antzeko elementuak topatu dira, halaber, Txinan, Egipton eta beste hainbat tokitan, baina dirua, gaur ezagutzen dugun moduan, Mediterraneoko itsasertzeko zibilizazio ahaztu batek ekarri zigun.

Lidia, diruaren sorterrria

Izen hori merezi duen lehen dirua Kristo aurreko 650. urte inguruan egin zen, Lidia izeneko erresuma txiki eta gaur ia ezezagun batean, Turkia modernoaren kostaldean. Lidiarrek pisu eta tamaina estandarra eman zieten txanponei, ...5... ; benetakoak zirela frogatzeko, haien gainean errege ikurra inprimatzen zuten. Lehen txanpon haiek elektrozkoak ziren (naturan aurki daitekeen zilar eta urrezko aleazioa), eta abantaila ederra eskaintzen zuten ordu arte ezagunak ziren ordainketa modu guztien aldean: berdinak zirenez, ...6... . Horrek asko arindu zuen merkataritza, eta hori izan zen, hain zuzen, diru sortu berriaren arrakastaren gakoa. Egun, Lidian egindako txanponetako batzuk museo eta bilduma pribatutan daude ikusgai.

Bere sortzaileak desagertu arren, txanpongintzak iraun egin zuen. Greziar zibilizazio guztietan, eta ondoren Mediterraneo osoan, ...7... . Eta ez hori soilik, dena neur zitezkeen diruaren arabera: norberaren lana, beste bati eginiko kaltea... Hala, dirua jaiotzeaz batera, soldadak eta isunak jaio ziren. Diruari lotutako beste eginkizun batzuk, ustez, Lidia zaharrean sortu ziren: prostituzioa (ez da munduko lanbiderik zaharrena, beraz), dado jokoak...

Greziarrendandik erromatarrengana igaro zen txanpongintza, eta haien eskutik maila gorena erdietsi zuen. Alabaina, erromatarrak gai izan ziren, enperadoreen gehiegikerien bitartez, euren inperioaren heriotza ez ezik diruarena ere eragiteko. Konkistetan eskuratutako ondasunak agortzen hasi ahala, inperioaren ekonomiatzarra mantentzeko modu berriak asmatzen hasi ziren. Neron izan zen txanpongintzan iruzur egiten estreinakoa: txanpon guztiak bildu, urtu eta berregin zituen, baina aurrekoek baino zilar gutxiagorekin. Hurrengo enperadoreek horixe bera egin zuten, eta bi mende eskasetan diruaren balioa % 100etik ia ezerezera igaro zen.

Lehen bankuak

Txanpongintza erromatar inperioarekin batera desagertu zen Europa Mendebaldean. Ia mila urtez, ia dirurik gabe funtzionatu zuten gizarte feudalek, baina Ekialdean, Konstantinopla inguruan, diruak sasoian jarraitzen zuen. Erdi Aroko azken mendeetan, gurutzadak hasi zirenean, ...8... , gerlari santuen bidaiei esker.

Historiako lehen banku-jabeak, hain zuzen, gerlari kristaurik ezagunenak izan ziren: zaldun tenplarioak. Noble askok beren ondasunak uzten zizkieten, euren gotorleku menperaezinetan gorde zituzten. Era horretan, tenplarioek aberastasun izugarriak pilatu zituzten, eta huraxe izan zen euren galbidea. XIV. mendean, Frantziako Felipe IV.ak, diru beharrak jota, tenplarioen ondasunak poltsikoratzea erabaki zuen, eta salaketa beldurgarriak egin zituen haien kontra. 1314an buruzagiak erre zituzten, eta tenplarioak behin betiko desagertu ziren.

Lekukoa Italiako iparraldeko familia sorta batek hartu zuen. Haiiek sortu zituzten lehen banku konbentzionalak, eta banku hitzak berak familia haiek lan egiteko moduan du jatorria. ...9... , eragiketak jesarleku baten gainean (italieraz *banco*) egiten zituzten. Hizkuntza askok bereganatu zuten hitza, harik eta mundu osora zabaldu zen arte.

Paperezko dirua

Gaur egun, billeteek txanponek baino balio handiagoa dute, ...10... . Paperezko lehen dirua, dakigunez, Txinan erabili zen XIII. mendean, enperadore mongoliarren garaian. Inperio handiegia kudeatu behar zutenez, metala ordezkatzeko zuen zerbait asmatzea erabaki zuten; hala, zergak kobratzeko orduan ez zen txanpon astun morda garraiatzeko beharrik izango. Herri xeheak iruzurtzat zeuzkan billeteak, paperak ez duelako metalak adina balio, baina inperio zentralista haren esanetara makurtu beste irtenbiderik ez zuen.

Mende luzez, billeteak metal urritasunari aurre egiteko erabili ziren. Benetako dirua baino, txanponen (benetako diruaren) ordezeko apala ziren, harik eta XVIII. mendean, Ipar Amerikan, haien erabilera orokortu zen arte. Ipar Amerikan, tradizioz, txanponak oso urriak ziren; papera konponbidea izan zitekeen, edo hala uste zuen behintzat Benjamin Franklinek, billeteei gaur duten estatusa eman zion gizonak. Eta,

egia esan, ondo joan zitzaien hasieran (independentzia gerra eta guzti irabazi baitzuten), baina ondoren diru hark bere balioa galdu zuen, eta azkenik jaulkitzeari utzi zioten. Estatubatuarrentzat oso kaskarra suertatu zen esperimendua, eta ehun urtez ez zuten paperezko diru gehiagorik egin. Nork esango zuen orduan berrehun urte geroago dolar bateko billetea diruaren irudirik ezagunena izango zela mundu osoan?

UNAI BREA, *Zabalik*, 02-07-12

Erantzun egokiena aukeratu eta beheko laukietan idatzi. Kontuan hartu ez dituzula esaldi guzti-guztiak behar.

- a. noizbait, ordea, metalak gailendu zitzaizkien horiei
- b. gaur egungoena baino hainbat bider handiagoa
- c. European zehar egiten ziren azoka handietara joaten zirenean
- d. ohiko bihurtu zen txanponak erabiltzea gauzak ordaintzeko
- e. baina, truke bakoitzean eztabaidatzen ibili beharrean
- f. dirua berriz zabaldu zen kontinente osoan
- g. duela bost mila urte hasi ziren hango biztanleak zilar eta urrezko lingoteak ordaintzetarako erabiltzen
- h. baina beste garai batzuetan alderantziz izan zen.
- i. ez zegoen salerosketa bakoitzean metala pisatu beharrik
- j. baina hala ere haren menpe utzi dugu geurea
- k. horregatik plastikozko dirua oso erabilgarri bihurtu da

1	2	3	4	5

6	7	8	9	10

3. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu gutxienez.

Etxean adineko pertsona bat duzue, osasunez oso gaizki dabilena. Leku berezi batean zaindu behar litzateke (zaharren egoitzan edo), baina ez duzue topatzen plaza librerik. Idatzi Aldundiari laguntza eskatuz.

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Gaurko Piratak

Espainiako Egileen Elkarteak behin eta berriro salatu du musika-arloan dagoen pirateria. Poliziak eta Justiziak ez omen du behar beste egiten. Informatika-arloan ere bada pirateria-problemarik. Zuk zer diozu?

EDO

Etorkinak

Gero eta etorkin gehiago ditugu. Zergatik? Behar bezala hartzen ditugu? Mese-
de ala kalte egiten dute?

III. HE2: ATARIKO PROBAK

III.1. HE2: Aukera Anitzeko Galderak 2002

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2

LEHEN PROBA: AAG
2002ko apirilaren 13a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria **mahai gainean utzi**, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. **Atera** ezazu solte dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria **eredu berekoak** direla.
4. Bete zure datuak **erantzun-orrian**: Nortasun Agiriaren zenbakia **ongi kodetu** dagozkion koadrotxoetan.
5. Bete zure datuak koaderno honetan ere, baina **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
6. Gelan ezin da erre.
7. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
8. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-material guztiak jaso arte. Ez irten arduradunak baimena eman arte.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egoki**ena aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira apirilaren 18an (datorren ostegunean).
- Gainditzen dutenek apirilaren 26an, ostiralean, izango dute HE2ko 2. proba, arratsaldeko 4etan, zerrendetan adieraziko diren lekuetan.

- 01.-** *Denda hartan denetarik aurkitu genuen: mailuak, iltzeak, zerrak*
- a) eta abar bat.
 - b) eta abar, eta abar.
 - c) eta beste gauzak.
 - d) eta abarren bat.
- 02.-** *Ondo berdinduta gelditu gara! Aurkitu baliokidea.*
- a) Gauza bera jan dugu.
 - b) Gose berdina dugu.
 - c) Ederto jan dugu.
 - d) Gutxitxo jan dugu.
- 03.-** *Egia esan izan bazenit, nik ez..... orduan utziko eta orain elkarrekin biziko*
- a) zintudan/ ginateke
 - b) zintuzke/ ginen
 - c) zintuzket/ ginatekeen
 - d) nindukezu/ ginen
- 04.-** Gaurko irakas-sisteman zein izen erabili ohi da?
- a) Lehen Heziketa.
 - b) Hezibide Profesionala.
 - c) Irakaskuntz Ertainak.
 - d) Bigarren Hezkuntza.
- 05.-** Aukeratu esaldi zuzena.
- a) Zuk adina diru irabazten dut.
 - b) Zuk adina dirua irabazten dut.
 - c) Zure adina diru irabazten dut.
 - d) Zuk baino dirua gehiago irabazten dut.
- 06.-** Zein dago ondo?
- a) Amerikar askorik ez du zer janik.
 - b) Buruz zekizkien jokalarien izenak.
 - c) Hamaika gezurra esan digu.
 - d) Gai hori buruz ez dakigu ezer.
- 07.-** Zein da zuzena?
- a) Batez ere bi probak dira gehien erabiltzen direnak: odolarena eta tuarena.
 - b) Mutil batzuek nahiago dute neskekin ibili, mutilekin baino.
 - c) Pertsona guztiak ezin du unibertsitatean ikasi.
 - d) Badakizkit horrelako ariketak egiten.

08.- Zein da zuzena?

- a) Ez daukazu sagar horiek guztiak zertan jan.
- b) Ez daude adopzioan emateko umerik.
- c) Batzuk bide azkarragoak erabiltzen dituzte.
- d) Egia da baimena lortzeko tramiteak aldatu egin dutela.

09.- Zein da zuzena?

- a) Ederki jo zion adarra.
- b) Aurrelariari gogor jo zion.
- c) Umeari ez zaio inoiz jo behar.
- d) Ostikoz jo zion baloiari.

10.- Zein da *huts egin* aditzaren baliokidea?

- a) Kale egin
- b) Putz egin
- c) Zirkin egin
- d) Indar egin

11.- Zein da egokiena?

- a) Guraso gazteek hobeto hezi diezaiokete haurrari.
- b) Gogorik falta ez zeukan, baina ez zuen indar aski.
- c) Lehen ez ziren horrelako gaiztakeriarik egiten.
- d) Hemen itxarongo dizugu hamarrak arte.

12.- Begoña nebarekin geratu da. Zenbat neba du Begoñak?

- a) Bat baino ez.
- b) Bizpahiru.
- c) Bat edo gehiago.
- d) Ez dauka nebarik.

13.- Nola idazten da: $63 : 3 = 21$?

- a) Hirurogeita hiru zati hiru berdin hogeita bat.
- b) Hirurogeitahiru zati hiru da hogeitabat.
- c) Hirurogei eta hiru zati hiru berdin hogeitabat.
- d) Hirurogei eta hiru zati hiru hogeita bat da.

14.- *Jainkoak, hirugarren egunean, ezer ez zegoela ikusirik, itsasoak eta ibaiak agindu zuen.*

- a) egin zitezela
- b) egin zitzala
- c) egin zitzan
- d) egin bitez

- 15.- *Maddalen, izaeraz,*
- a) bere ama bezala da.
 - b) bere ama bezalako da.
 - c) bere amaren bezalako da.
 - d) bere ama moduan da.
- 16.- Zein ez da animalia?
- a) Zorria.
 - b) Erbia.
 - c) Arbia.
 - d) Ipurtargia.
- 17.- *Ordenagailua garaiz ekarri, aspaldi konponduko*
- a) bazenit/ nizun.
 - b) izan bazenit/ nizuke.
 - c) bazenidan/ nintzaizuke.
 - d) bazenizkit/ nizukeen.
- 18.- Hilabete pare bateko oporrak emango, bisitan joango..... .
- a) balizkide/ nintzaizuke.
 - b) balidate/ nintzateke.
 - c) balit/ nintzaizuke.
 - d) balizkide/ nintzen.
- 19.- Zein da aukera **desegokia**?
- a) Bi metro luze da.
 - b) Bi metro ditu luzean.
 - c) Bi metroko luzera dauka.
 - d) Bi metroetako luzera dauka.
- 20.- *Gezurretan ari zela pentsatu nuen neure baitan. Zein ez da baliokidea?*
- a) neurekiko
 - b) neure golkorako
 - c) neure artean
 - d) neure buruan
- 21.- *Irainka hasi zitzaizkigun eta guk ez zitezela haserretu eta bakean esan genien.*
- a) utz gaitzatela
 - b) utz ziezagutela
 - c) utz gintzatela
 - d) utz gintzaizkiela

- 22.- *Oso estu hartu nau aitak.* Bilatu baliokidea.
- a) Besarkatu egin nau.
 - b) Oso lagunak egin gara.
 - c) Presionatu egin nau.
 - d) Babestu egin nau.
- 23.- *Umea! Kontuz arrain-zati hori jaterakoan,asko ditu-eta!*
- a) arantza
 - b) pintxo
 - c) hezur
 - d) elorri
- 24.- Zein dago **txarto**?
- a) Marrazki bizidunek umeei erakartzen diete.
 - b) Amak liburuak ekarrarazi dizkit.
 - c) Beti erakarri nauzu.
 - d) Ezin diot kisketari eragin, eskuak zikin ditut eta.
- 25.- *Noiz ezagutu zenuen lagun hori? Zein da erantzun **desegokia**?*
- a) Duela bost urte edo.
 - b) Badira bost urte.
 - c) Bost bat urte edo izango dira.
 - d) Baduela bosten bat urte.
- 26.- Zein **ez da** erabiltzen?
- a) Buruz buru jokatu behar dute.
 - b) Buruz behera eskegi zuten.
 - c) Burutik beherakoa zeukan.
 - d) Buruz-buruz zekien dena.
- 27.- *Musu truk eman zion.* Bilatu baliokidea.
- a) Mesede sexualen ordain gisa eman zion.
 - b) Dohainik eman zion.
 - c) Elkarri musuka aritu ziren.
 - d) Musu eman zion agurtzerakoan.
- 28.- Zein da zuzena?
- a) Hura poza! Bizirik dago!
 - b) Honezkero jakingo duzue irakasle ona naizela, ezta?
 - c) Une hortik aurrera dena erraza izan zen.
 - d) Hiru ekografia egiten diren entzuna daukat.

29.- Zein da zuzena?

- a) Entzundakoaren arabera, bihar ez da jai izango.
- b) Irakurri dudanen arabera, bihar ez da jai izango.
- c) Esan duzun arabera, bihar ez da jai izango.
- d) Uste genuen arabera, bihar ez da jai izango.

30.- Zein da lanbidea?

- a) Itogina
- b) Emagina
- c) Etorkina
- d) Etekina

31.- *Atzo, hitz-aspertua izan nuen nire lankideekin.* Aukeratu baliokidea.

- a) Luze hitz egin ondoren, aspertu egin nintzen.
- b) Hitz aspergarriak baino ez genituen esan.
- c) Luze eta lasai aritu ginen berbetan.
- d) Asper-asper eginda geunden eta ez genekien zertaz hitz egin.

32.- Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Une hartan bere autoan ninderaman.
- b) Pozik zetozten lanean ondo zihardutelako.
- c) Ordurako beraiek bazekarten sagarrak.
- d) Kokoteraino nauzka txorakeria horiekin.

33.- *Hegazkina, garaizErromara.*

- a) hartu izan balu/ helduko zen
- b) hartu balu/ helduko liteke
- c) hartzen badu/ helduko litzateke
- d) hartu balu/ heldu litzatekeen

34.- *Etorri handiko gizona da.* Aurkitu baliokidea.

- a) Jatorriz nahiko handia da.
- b) Familia ugari batetik dator.
- c) Hitz egiteko erraztasuna du.
- d) Oso gizon ibiltaria da.

35.- Nola ikasten da oinez?

- a) Eroriz.
- b) Erortzen.
- c) Erortzean.
- d) Eroritakoan.

- 36.- *Erosketak egiten bidali nau amak, baina opariak..... ahaztu*
- a) erosi/ zait.
 - b) erostea/ zait.
 - c) erostea/ zaizkit.
 - d) erosten/ zaizkit.
- 37.- Entzundakoa ezin duzu sinetsi. Zein da aukera **desegokia** harridura adierazteko?
- a) Ezin liteke!
 - b) Nola liteke!
 - c) Baita zera ere!
 - d) Baliteke!
- 38.- *Ba al zatoz nirekin?* Aukeratu baiezko erantzuna.
- a) Baita zera ere!
 - b) Galdetzea ere!
 - c) Hori bakarra behar genuen!
 - d) Adarra jotzen, ala?
- 39.- *Goazen zerbait jatera,*! Zein da aukera **desegokia**?
- a) gose naiz eta!
 - b) goseak nago eta!
 - c) gose daukat eta!
 - d) ibiltzeak gosetu egin nau eta!
- 40.- *Nongoa zara?* Zein da erantzun zuzena?
- a) Durango bertakoa naiz.
 - b) Durangokoa bertakoa naiz.
 - c) Durangoko bertakoa naiz.
 - d) Durangoko bertako naiz.
- 41.- *Ba al zatoz zinemara?* Zein da erantzun **desegokia**?
- a) Ez, ez daukat joaterik.
 - b) Ez, ezin ninteke joan.
 - c) Ez, ezin naiteke joan.
 - d) Ez, ezin nintekeen joan.
- 42.- *Langile soil sartu eta handik bi urtera*
- a) nagusi bihurtu zen.
 - b) nagusi batean bihurtu zen.
 - c) nagusi aberatsean bihurtu zen.
 - d) nagusian bihurtu zen.

- 43.- *Bihar klasea goizeko hasi eta eguerdiko amaituko da.*
- a) 08:00an / 12:30an
 - b) 08:00tan / 12:30tan
 - c) 08:00etan / 12:30ean
 - d) 08:00tan / 12:30an
- 44.- Zein dago **txarto**?
- a) Alkateak ongietorria eman zien.
 - b) Alkateak “Zaretela ongi etorriak!” esan zien.
 - c) Alkateak “Ongi etorrita!” esan zien.
 - d) Alkateak “Ongi etorri!” esan zien.
- 45.- Zein **ez da** baliokidea?
- a) Hamaika aldiz esan arren, ez didazu kasurik egin.
 - b) Hamaika aldiz esatearren, ez didazu kasurik egin.
 - c) Hamaika aldiz esanda ere, ez didazu kasurik egin.
 - d) Hamaika aldiz esan badizut ere, ez didazu kasurik egin.
- 46.- Non dago «*batzuk*» hitza ondo deklinatuta?
- a) Batzutan errazagoa da obeditzea agintzea baino.
 - b) Batzuri laguntzeagatik, dirurik gabe geratu zen.
 - c) Batzuketan ezin da inora joan.
 - d) Batzuk ondo bizi ahal izateko, besteok lan egin behar dugu.
- 47.- Zein **ez da** baliokidea?
- a) Pellok egin zezakeen, baina ez genion eskatu.
 - b) Pellok egin ahal zuen, baina ez genion eskatu.
 - c) Pellok bazeukan egitea, baina ez genion eskatu.
 - d) Pellok egin behar zuen, baina ez genion eskatu.
- 48.- Betaurreko onak garestiak dira: zenbat balio niri oparitu?
- a) dira/ dizkidazunak
 - b) dute/ didazunak
 - c) dira/ didazunak
 - d) dute/ dizkidazunek
- 49.- Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Perretxikoa
 - b) Onddoia
 - c) Setatia
 - d) Gibelurdina

50.- Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Zihoan behin Txanogorritxo...
- b) Bazihoan behin Txanogorritxo
- c) Joaten zen behin Txanogorritxo...
- d) Bazindoa behin Txanogorritxo...

51.- Aukeratu esaldi **desegokia**.

- a) Zenbat balio du gazta honek?
- b) Zenbatean dago gazta?
- c) Zegan da gazta hau?
- d) Zenbat kostatzen du gazta honek?

52.- *Nor ibili da hemen bazterrak nahasten?*

- a) omen
- b) ei
- c) al
- d) ote

53.- Zeintzuk ez dira sinonimoak?

- a) sasoi/ garai
- b) sesio/ saio
- c) eskasia/ urritasun
- d) leher egin/ nekatu

54.- *Ondoko bizilaguna nahiko gizon zuria da.* Aukeratu baliokidea.

- a) Bizilaguna nahiko zurbila da.
- b) Bizilaguna nahiko faltsua da.
- c) Bizilagunak arropa zuria janzten du gehienetan.
- d) Zuriak baino ez ditu gogoko.

55.- Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Presik ez baduzu, ez jarri bestelako aitzakiak.
- b) Presarik ez baduzu, ez jarri bestelako aitzakirik.
- c) Presa ez baduzu, ez jarri bestelako aitzakirik.
- d) Presarik ez baduzu, ez jarri bestelako aitzakiarik.

56.- , *gainontzeko guztiak errusiarrak dira.*

- a) Zu ez ezik
- b) Zu ezik
- c) Zu izan ezik
- d) Zu ezezik

- 57.- *Kremazko pastelak natazkoak dira.*
- a) baino onagoak
 - b) baino hobeak
 - c) baina hobeagoak
 - d) baina onagoak
- 58.- *Aterkia zabaldu zuen baina beranduegi zen; blai eginda geunden. Zein ez da egokia?*
- a) dagoeneko
 - b) honezkero
 - c) ordurako
 - d) jadanik
- 59.- *Zein dago txarto?*
- a) Ederki jolastu gara.
 - b) Diru asko jolastu dut loterian.
 - c) Lotsagarri jokatu dugu askotan.
 - d) Partida ederra jokatu dute pilotariek.
- 60.- *Gaindituko esperantza daukat oraindik ere. Zein da zuzena?*
- a) dudan
 - b) dudanaren
 - c) dudalaren
 - d) dudaneko
- 61.- *Hamaika aldiz azalduta ere, ez diozu ezer*
- a) uler araziko.
 - b) ulertaraziko.
 - c) ulertuaraziko.
 - d) ulertu araziko.
- 62.- *Baimena atera nuenetik ez dut autorik hartu eta ere ahaztu zait. Gainera, baimena ere ahaztu zait.*
- a) gidatzen/ berritzea
 - b) gidatzea/ berritzea
 - c) gidatzea/ berritzen
 - d) gidatzen/ berritzen
- 63.- *Ondoko gelan zarata handia dago; begiratu baten bat.....*
- a) sartu omen den.
 - b) sartu ahal den.
 - c) sartu bide den.
 - d) sartu ote den.

64.- Zein ez da begi-atala?

- a) Begi-ninia
- b) Bekaina
- c) Betzuloa
- d) Bekaitza

65 Zein dago txarto?

- a) Zuri esker lortu dut azterketa gainditzea.
- b) Gure esku geratuko da ardoaren kontua.
- c) Urte osoaren zehar ez duzu kolpe zorrik jo.
- d) Gai horren inguruan luze hitz egin zigun.

66.- Noiz joango zara? Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Osteguna arratsaldean.
- b) Etzi.
- c) Herenegun.
- d) Larunbata goizean.

67.- Sar banan-banan, bestela ikusi egingo eta.

- a) gaitezen/ gaituzte
- b) gaitezen/ digute
- c) gaitez/ gaituzte
- d) gaitezten/ digute

68.- Ordu etorri ginen, baina ez auto

- a) berean/ beran
- b) berdinean/ berdinean
- c) berean/ berean
- d) berdinean/ berean

69.- Zein dago txarto?

- a) Zenbat eta zaharrago izan, orduan eta zuhurrago.
- b) Zenbat eta zaharrago izan, hainbat eta zuhurrago.
- c) Zenbat eta zaharrago, zuhurrago.
- d) Zenbat eta zaharragoa da, orduan eta zuhurrago.

70.- Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Etorkin batzuk eraso dituzte larunbat gauean.
- b) Etorkin batzuk erasotu dituzte larunbat gauean.
- c) Etorkin batzuei eraso diete larunbat gauean.
- d) Etorkin batzuei erasotu diete larunbata gauean.

III.2. HE2: Aukera Anitzeko Galderak 2003

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2

LEHEN PROBA: AAG
2003ko martxoaren 1a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria **mahai gainean utzi**, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. **Atera** ezazu solte dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria **eredu berekoak** direla.
4. Bete zure datuak **erantzun-orrian**: Nortasun Agiriaren zenbakia **ongi kodetu** dagozkion koadrotxoetan.
5. Bete zure datuak koaderno honetan ere, baina **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
6. Gelan ezin da erre.
7. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
8. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-material guztiak jaso arte. Ez irten arduradunak baimena eman arte.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egoki**ena aukeratu eta **erantzun-orri**an markatu.
- Erantzun okerrenatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira martxoaren 6an (datorren ostegunean).
- Gainditzen dutenek martxoaren 14an, ostiralean, izango dute HE2ko 2. proba, arratsaldeko 4etan, zerrendetan adieraziko diren lekuetan.

- 01.-** Aukeratu euskara batuan **okerra** den esaldia.
- a) Zu sar zaitez, baino ez beste inor.
 - b) Horixe baino ez dut nahi.
 - c) Ardo gorria ez, zuria baino.
 - d) Zuria gorria baino handiagoa da.
- 02.-** Bidea ahaztu zaiola adierazteko.
- a) Ez dakit joan Salamancara.
 - b) Ez dakit Salamancara joan.
 - c) Ez dakit Salamancara joaten.
 - d) Ez dakit Salamancara joatea.
- 03.-** Zein da zuzena?
- a) Jon eta Miren neba-arrebak dira.
 - b) Jon Mirenen arreba da.
 - c) Miren Patxiren neba da.
 - d) Karmele Mirenen suhia da.
- 04.-** Aukeratu animatzeko balio duen esaldia.
- a) Bai zera!
 - b) Bejondeiola!
 - c) Hori duk eta!
 - d) Baita zera ere!
- 05.- Hitz jario errazari** zein esaldik egiten dio erreferentzia?
- a) Hizlariak etorri berekoa du.
 - b) Hizlariak etorria berekoa du.
 - c) Hizlariak etorria berezkoa du.
 - d) Hizlariak etorri berekoa du.
- 06.-** *Sexu harremana izan.* Aukeratu baliokidea.
- a) Larru gorrian ibili.
 - b) Larrua jo.
 - c) Larrutu.
 - d) Larrua ondu.
- 07.-** Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Umil
 - b) Otzan
 - c) Apal
 - d) Zarpail

- 08.- *Jaiki da ala ez da? Zeinek adierazten du zalantzarik handiena?*
- a) Jaiki omen da.
 - b) Jaiki ote da?
 - c) Ez dela jaiki?
 - d) Jaiki ei da.
- 09.- *Hamabostean behin etorri ohi da bazkaltzera. Aukeratu baliokidea.*
- a) Hamabostaldian behin etorri zen bazkaltzera!
 - b) Hamabost egunero etortzen zen bazkaltzera.
 - c) Behin etorri da hamabost egunetan bazkaltzera.
 - d) Hamabostero etortzen da bazkaltzera.
- 10.- *Alde egin behar duzu? Zein da erantzun okerra?*
- a) Bai, garaiz afaltzeko.
 - b) Bai, afaltzea joan behar dut.
 - c) Bai, afaltzera joan behar dut.
 - d) Bai, afaltzen joan behar dut.
- 11.- *Zein ez da baliokidea?*
- a) Urak burdina herdoildu egiten du.
 - b) Urak burdina ugertu egiten du.
 - c) Urak burdina jan egiten du.
 - d) Urak burdina goritu egiten du.
- 12.- *- Ezkonduko zara nirekin? - Bai horixe! Jai duzu! Aukeratu esanahi egokiena.*
- a) Jakina, ezkondu egingo dira.
 - b) Ezkontza egunean jaialdia izango dute.
 - c) Ez dira ezkonduko.
 - d) Jaiegunean ezkonduko dira.
- 13.- *Irakasleak: "Atera egindako lanak!" Ikasleek: "Gureak egin du!" Zer adierazi nahi dute ikasleek?*
- a) Haserre daudela irakaslearekin.
 - b) Euren zerbait aipatu diela.
 - c) Harrapatuta sentitzen direla.
 - d) Irakasleak zigortu egin dituela.
- 14.- *Nola egin zenuen?*
- a) Zure moduan.
 - b) Zure bezala.
 - c) Zu bezala.
 - d) Zuk moduan.

15.- *Beste kopatxo bat nahi?* Erantzun baietz.

- a) Ezta tantarik ere!
- b) Nahiko ez dut bada!
- c) Baita zera ere!
- d) Utikan!

16.- *Noiz etorri zinen?* Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Urrian.
- b) Asteazkenen.
- c) Irailan.
- d) Etzidamu.

17.- Ipini **satsa** hitza toki egokian, dirua erraz egiten dutela adierazteko.

- a) Gure auzokoek dirua legez egiten dute.
- b) Gure auzokoek dirua legez egiten dute.
- c) Gure auzokoek dirua legez egiten dute
- d) gure auzokoek dirua legez egiten dute.

18.- Zein **ez dago** zuzen-zuzen eguraldiarekin lotuta?

- a) Kresala.
- b) Lanbroa.
- c) Enbata.
- d) Lainoa.

19.- Ondorengo esaldietatik zein da egokiena posturak egiteko?

- a) Ez heldu ni baino lehenago!
- b) Ez zarela heltzen ni baino lehenago!
- c) Ez zarela helduko ni baino lehenago!
- d) Ezetz heldu ni baino lehenago!

20.- Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Atzo egin zenezakeena, gaur ere bai.
- b) Lehen egin zenezakena, gaur ere bai.
- c) Gaur egin zenezakena, bihar ere bai.
- d) Bihar egin zenezakeen, etzi ere bai.

21.- *Noiz gertatu zitzaien istripua?*

- a) Lagunak etxerantz zetozkidatela.
- b) Lagunak etxerantz zetozkidala.
- c) Lagunek etxerantz zetorkidatela.
- d) Lagunek etxerantz zetozkidala.

- 22.- *Zein baldintza ipiniko didazu? Aukeratu zuzena.*
- a) Zu bazatoz, ni joan egingo naiz.
 - b) Zu etorri zatoz, ni joango nintzateke.
 - c) Zu bazentoz, ni banoa.
 - d) Zu etorriko bazina, ni banoa.
- 23.- *..... kontzertura gertatu zitzaigun ezbehar hori.*
- a) Gurasoek / ginderamatzatela.
 - b) Gurasoak / ginderamatzatela.
 - c) Gurasoek / generamatzala.
 - d) Gurasoak / generamatzatela.
- 24.- *Gurasoek seme-alabei konta ipuinek bere garapenean eragina izan*
- a) liezazkieketen / lezakete.
 - b) liezazkiekeen / lezakete.
 - c) liezazkieketeen / lezakete.
 - d) liezazkieketen / litzakete.
- 25.- *Zurekin hitz egin nahi nuen. Bilatu baliokidea.*
- a) Zurekin hitz egitea saiatu nintzen.
 - b) Zurekin hitz eginez saiatu nintzen.
 - c) Zurekin hitz egiten saiatu nintzen.
 - d) Zurekin hitz egin ahala saiatu nintzen.
- 26.- *Non bizi zara? Zein da erantzun zuzena?*
- a) Mungia bertan bizi naiz.
 - b) Mungian bertan bizi naiz.
 - c) Mungia berebetean bizi naiz.
 - d) Mungian berebetean bizi naiz.
- 27.- *Gogoan zaitut. Bilatu baliokidea.*
- a) Gustukoa zaitut.
 - b) Oroitzapen onak ditut.
 - c) Heriotza heldu zaizu.
 - d) Zurekin akordatzen naiz.
- 28.- *Postura egin nion anaiari. Bilatu baliokidea.*
- a) Anaiaren alde egin nuen apustu.
 - b) Anaiaren lanpostura joan nintzen.
 - c) Anaiaren kontra jokatu nuen.
 - d) Anaiaren kontra jolastu nintzen.

- 29.- *Gizon horrek ez du berba jaten. Zein dago txarto?*
- a) Hitzekoa da.
 - b) Ondo ahoskatzen du.
 - c) Esandakoa bete egiten du.
 - d) Berbakoa da.
- 30.- *Josune gaur goizean erditu da. Aukeratu baliokidea.*
- a) Nahi eta ezin dabil.
 - b) Erdian jarri da.
 - c) Familia izan du.
 - d) Erdizka dabil.
- 31.- *Zein esaldi dago gaizki?*
- a) Sekula ere ez da damutuko.
 - b) Sekula ere ez zaio damutuko.
 - c) Zure bekatuez damutuko zara.
 - d) Zure bekatuak damutuko dituzu.
- 32.- *Zein ez da usaina?*
- a) Hatsa.
 - b) Hatza.
 - c) Sunda.
 - d) Kiratsa.
- 33.- *Bi horiek nola egin zuten lan hori? Zein da okerra?*
- a) Batek bestearena egin zuten.
 - b) Elkarri lagundu zioten.
 - c) Elkarrekin aritu ziren.
 - d) Batak besteari lagundu zioten.
- 34.- *Zein dago txarto?*
- a) Amaia ere gurekin etorriko da.
 - b) Amaia ez omen doa. Ezta ni ere.
 - c) Amaia ez dator. Eta ez Josu ere.
 - d) Amaia gurekin etorriko da ere.
- 35.- *Baleki gazteak, baleza zaharrak. Zer esan nahi du?*
- a) Gazteak badaki; gehiago zaharrak.
 - b) Zaharrek badute zer irakatsi gazteei.
 - c) Ez gazteak dira jakitun, ez zaharrak indartsu.
 - d) Ahal balute, zaharrek irakatsiko liekete gazteei.

36.- Non dago *bestela* hitza **txarto** erabilia?

- a) Jan oraintxe; bestela, ikusiko duzu.
- b) Hau oso polita da; hori, bestela, itsusia.
- c) Ez dakizue bestela egiten?
- d) Errepidetik urrunegi dago; bestela, leku ikusgarria da.

37.- Zein dago **txarto**?

- a) Ez daki ongi ingelesez; alabaina, moldatu zen.
- b) Aspaldian hila zegoen nonbait; alabaina, gaur arte ez dira konturatu.
- c) Lapurra izan zen; alabaina, askatu egin zuten.
- d) Zozketan parte hartzearren, alabaina opari bat egin zioten.

38.- Zein da zuzena?

- a) Egitazko lagunak oso gutxi dira.
- b) Benetazko lagunak oso gutxi dira.
- c) Egizko lagunak ez dira hainbeste.
- d) Ohiko lagunak ez dira hainbeste.

39.- *Noiz esango didazu?* Zein da erantzun **okerra**?

- a) Jakin bezain fite erranen dizut.
- b) Jakin bezain laster esaten dizut.
- c) Jakin bezain agudo esango dizut.
- d) Jakin bezain pronto erranen dizut.

40.- *Zertan zatoz?* Zein dago **txarto**?

- a) Zu ikustearren.
- b) Zu ikusiagatik.
- c) Zu ikusteagatik.
- d) Zu ikustera.

41.- Sentitzen dut, baina ezin lagundu. *Zein dago txarto?*

- a) nizkizueke
- b) diezazueket
- c) dizuet
- d) niezazueke

42.- *Betikoa eman zidan.* Bilatu baliokidea.

- a) Zerbait eskuratu zidan betiko.
- b) Zerbait eskuratu zidan betirako.
- c) Ohikoa du beti zerbait eskuratzea.
- d) Ohiko zerbait eskuratu zidan.

- 43.- Zein ez da sail berekoa?
- a) Hautzaroa.
 - b) Berbaroa.
 - c) Nerabezaroa.
 - d) Helduaroa.
- 44.- Zein ez da *izotza* hitzaren sinonimoa?
- a) Lorratza.
 - b) Jela.
 - c) Horma.
 - d) Leia.
- 45.- Zein dago **txarto**?
- a) Arratsaldeko bostak jo.
 - b) Ezkerretara jo behar zuen.
 - c) Igogailuko botoia jo zuen.
 - d) Ate joka aritu zen.
- 46.- *Etxea amaitzeke daukate.* Aukeratu baliokidea.
- a) Etxea amaitzear daukate.
 - b) Etxea amaituta daukate.
 - c) Etxea amaitu gabe daukate.
 - d) Etxea erdi amaituta daukate.
- 47.- *Errementariaren etxean*
- a) egurrezko lapikoak.
 - b) zurezko aulkiak.
 - c) zurezko leihoak.
 - d) zotza burrunntzi.
- 48.- *Erein baino lehen lurra egin behar da, goldea erabiliz.*
- a) ureztatu
 - b) harrotu
 - c) zulatu
 - d) izoztu
- 49.- Nola deitzen diogu beti amarekin egon nahi izaten duen haurrari?
- a) Amazalea.
 - b) Amazuloa.
 - c) Amakorra.
 - d) Amakoia.

- 50.- *Eraman onekoa da irakasle hori. Aukeratu baliokidea.*
- a) Nahi bezala daramatza ikasleak.
 - b) Nahi bezala daramate ikasleek.
 - c) Horrek dauka pazientzia, horrek!
 - d) Hobe duzu horrekin ondo moldatzea.
- 51.- *Zein da gezurrezkoa?*
- a) Okela erreta jan liteke.
 - b) Txorizoa egosita jan liteke.
 - c) Arraina labean egina jan liteke.
 - d) Taloa irakinda jan liteke.
- 52.- *Zein dago zuzen idatzita?*
- a) Bapatean
 - b) Behinik-behin.
 - c) Behin-behineko.
 - d) Batik-bat.
- 53.- *Zein dago zuzen idatzita?*
- a) Aurrekaldea.
 - b) Aurre aldea.
 - c) Kanpokaldea.
 - d) Kanpoko aldea.
- 54.- *Zein dago zuzen idatzita?*
- a) XII mendean gertatu zen.
 - b) Hogeita batgarren heldu zen.
 - c) Bostna eman zien.
 - d) Hogeitaboskarren geratu zen.
- 55.- *Zein da zuzena?*
- a) Ura ardoa bihurtu zuten.
 - b) Gelako neskarik ederrenean bihurtu zen.
 - c) 'Prestige' arazo latz batean bihurtu da.
 - d) Esnekia izozki bihurtu zuten.
- 56.- *Zeintzuk ez dira baliokideak?*
- a) urak hartu / txikitu
 - b) saioa / sesioa
 - c) jauzi egin / salto egin
 - d) beherapenak / merkealdiak

- 57.- *Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon. Zer esan nahi du?*
- Beti zerbait gabe egon behar.
 - Dagoenean, ez dagoenerako gorde.
 - Gauzak ondo egon arte itxaron.
 - Dagoenean etekina atera eta kito!
- 58.- *Ekitaldia goizeko hasi eta arratsaldeko amaituko da.*
- 10:00ean / 16:30an
 - 10:00etan / 16:30etan
 - 10:00etan / 16:30ean
 - 10:00etan / 16:30an
- 59.- *Ondo lotu zorroa eta hobeto ahoa. Zer esan nahi du?*
- Ez esan inori dirua duzula.
 - Kontuz lapurrekin!
 - Kontuz berbatiekin!
 - Zenbat eta isilago, hobe.
- 60.- *Euskaraz, euskaraz ikasten da.*
- hitz egiten/ hitz eginez
 - hitz eginez/ hitz egin
 - hitz egiten/ hitz egiten
 - hitz egin/ hitz egiten
- 61.- *Zuk ez duzu ikusi. Beste guztiek, aldiz, bai. Aukeratu baliokidea.*
- Zuk ezezik beste guztiek ikusi dute.
 - Zuk izan ezik beste guztiek ikusi dute.
 - Zuk ezean beste guztiek ikusi dute.
 - Zuk ezik beste guztiek ikusi dute.
- 62.- *Zein da zuzena?*
- Eginerazi.
 - Alda arazi.
 - Aldaerazi.
 - Jarriarazi.
- 63.- *-Nolakoa da langile hori?- Gora adi egoten den horietakoa. Aukeratu baliokide egokiena.*
- Alferkerian dabilena.
 - Mesede bila dabilena.
 - Beti adi, erne eta zuhur ibiltzen dena.
 - Gorago nahian dabilena.

- 64.- *Emadazu*
- a) zakua bete patata.
 - b) zaku betea patata.
 - c) zakua bete patatak.
 - d) zakukada bat bete patatak.
- 65.- *Haserreak burua lausotzen zidan.*
- a) nahasten.
 - b) berotzen.
 - c) argitzen.
 - d) minberatzen.
- 66.- *Egoera zailetan jende **bihotzuna** behar da.*
- a) bihotz onekoa.
 - b) sakona.
 - c) ausarta.
 - d) sentibera.
- 67.- *Horrek ikusi egin zaitu, baina egin dizu.*
- a) ez ikustea
 - b) ez begiratu
 - c) ez ikusita bezala
 - d) ez ikusiarena
- 68.- *Zein ez da ilargiaren fasea?*
- a) Ilberria.
 - b) Ilbeltza.
 - c) Ilbetea.
 - d) Ilbehera.
- 69.- *Zein da zuzena?*
- a) Kimatzea adarra jotzea da.
 - b) Zintz egitea mukiak ateratzea da.
 - c) Goiari eustea handi nahia izatea da.
 - d) Harrikoa egitea izarak garbitzea da.
- 70.- *Donostia ala Gasteiz? **Alde ederra!***
- a) Bata zein bestea ederrak dira.
 - b) Oso diferenteak dira.
 - c) Bata bestetik urrun daude.
 - d) Paraje ederrak dituzte biek.

IV. HE2: PROBA IDATZIAK

IV.1. HE2: Proba Idatzia 2002

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2

PROBA IDATZIA
2002ko apirilaren 26a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konprobatu azterketa honek 8 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan laburra 3) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira maiatzaren 10ean.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute **maiatzaren 13tik 17ra** bitartean (arratsaldez) Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan.

1. IRAKURMENA

Rosetti-ren obsesioa

Eskuizkribua heldu zitzaidan gutunazal berean gorde, eta leiho atzean geratu nintzen, zeru beltzaren zamapean zitalduta ageri zen itsaso gris, zuriz pitzatuari begira. Ikuskizuna bera aski zatekeen hezur-muinetan bustidura sentiarazteko, baina, horretaz gain, etxeak berak ere bazuen, hutsik egon izanaren ondorioz, hotz hezea hormetan sartua, eta, hori gutxi balitz, saio franko egin nuen arren, ez nintzen berogailua martxan jartzeko gai izan. Hala eta guztiz ere, Victoria ez nuela gehiago ikusiko pentsatzea zen, udazkeneko goiz zakar hartan, hotzikaraz jarri ninduen ondoezaren arrazoia.

“Ea non ikusten dugun elkar hurrengoan”, esan, eta pausa labur baten ondoren “elkar ikusten badugu, noski” erantsi zuen alde egin baino lehen. Perpausaren zentzua argia da ulertu nahi duenarentzat, batez ere kontuan hartzen bada zertxobait lehenago neu izan nintzela “ea noiz ikusten dugun berriz elkar” esan ziona, eta berak “nahi duzunean” edo “deitu bihar bertan» edo “hauetako egunen batean” behintzat, esan zezakeen arren beste hori bota zuela: “ea non ikusten dugun elkar hurrengoan, ikusten badugu”. Hori bai, ahots eztiatz; baina horrek ez du ezer esan nahi, Victoria ez baita atsegina ez den moduan hitz egiteko gai, Rossetti miserablea iruditzen zaio-la esateko ez bada behintzat.

Beraz, argi zegoen hitzordu zehatz bat saihesteko ahalegina zela hura, eta argiago, elkar ikusteko aukera gehienez ere zori itsuaren esku uzten zuela. Horregatik, “ea non ikusten dugun elkar” esan zuenean, ez nion erantzun, desio nukeen bezala, “bihar bertan, edozein lekutan; ados bazaude”. Eta ez nuen egin, bere borondatea bortxatzea zatekeelako.

Badakit etorkizunean, noizbait, elkar ikusteko aukera bagenu, kafe bat edo zerbeza bat hartu ahal izango genukeela elkarrekin. Eta, pentsatzen jarrita, hori da okerrera: ez nauela nirekin haserretzeko edo erremintzeko adina kontuan hartzen.

Zoritxarrak bere partea duelarik ere, gure harremana hondatu izanaren errua nirena da batez ere. Orain, beranduegi jada, betirako galdu dudala dakidanean, argiago ikusten dut buru eta bihotz maite nuela, eta berari ere ni axola nintzaiola; horretaz ere ziur bainago. Begi bistakoa iruditzen zait orain, besterik gabe, nire sentimenduak azaldu behar nizkiola: “zutaz maitemindurik nagoela uste dut, Victoria”, hitz horiek erabiliz. Eta berak, segur aski, berari ere ni axola nintzaiola adieraziko zidan. Ez dakit ziur nola. Beharbada, “nik ere maite zaitut apurtxo bat” erantzungo zukeen, emakumeek sarritan erabili ohi duten formula baita gurekiko ez direla erabat ezaxol sentitzen esateko; eta beste egunen batean elkar ikusteko geratuko ginen, eta orain leihotik dakusadan paisaiak, hodei beltzen zamaz erortzear dirudien zeruak eta haren kontra aparrezko haserrea jaurtitzen duen itsaso arbelezkoak ez lukete nire gogoa goibeltzeko botererik, geratuak ginatekeelako nonbait, Urepelen ziur asko, ibai ondoan dagoen jatetxean, elkarrekin afaltzeko.

Orain noski, gertatutakoa gertatu ondoren, erraza da esatea egin nezakeen edozer gauza zatekeela egin dudana baino hobea. Berarekin nengoenean, ordea, hain nengo- en beldurtuta egin edo esaten nuen edozer gaizki har eta desengaina nezakeelako, non liluratuko zuen formula ziur eta erabatekoaren beharra sentitu bainuen; “maite zaitudala uste dut” eta antzekoak baino gauza tinko, eta originalagoa batez ere.

Berez, Londresen elkarrekin pasieran genbiltzala, behin baino gehiagotan egon nintzen gelditu, solasa eten, eta “maite zaitudala uste dut Victoria” esatekotan baina beldur nintzen adierazpen horrekin nigandik urrunduko ote nuen, edo iraindu, nire- ganako jarrera -zalantzarik gabe adeitsua- gaizki ulertzen nuelako. Emakumeentzat oso desatsegina baita gizonezkoon joera hori: berek adiskidetasun maila soilean mantendu nahi luketen harremana guk harantzago eraman nahi izatea; izan ere, trai- zionaturik sentitzen baitira guregan begirune eta adeitasuna ez dakigula ulertzen ikustean. Eta ez dugu lortzen, normalean, gainditu nahi genukeen adiskidetasunezko harremana hondatzea baino.

Horregatik, ez nizkion nire sentimenduak besterik gabe adierazi nahi izan, gure arteko harreman sortu berria -eta oraindik ahula edo azalekoa, beraz- ez zedin hauts, nahiz eta orain argi ikusten dudana “uste dut maite zaitudala” bezalako zerbait esan banio, gerta zekidakeen okerrenera serio ez hartzea izan zitekeela; asko jota erantzun umoretsu bat jaso beharra: “zure fantasiak dira horiek” adibidez, edo “ez dakizu nor naizen ere, ez nauzu ezagutzen” bestela, edo “ez nauzu maite, maite egin nahi nau- zu” filosofikoagoa bezalako zerbait.

Edozein irtenbide zatekeen aproposagoa, azkenean hartu nuena baino. Orain, on- dorioak ikusita, argi dagoen gauza da hori. Baina neure burua zuritu nahi ez dudala- rik ere, esan beharra dut egin nuena egiteko ere ez zitzaidala arrazoirik falta izan. Alde batetik, iruditzen zitzaidan esateko nuena, hitzez baino gehiago, idatziz adie- raztea komeni zitzaidala. Izan ere, idazteko gutxieneko gaitasuna duenarentzat bede- ren, errazago baita izkribuz aritzea. Hasteko, gauzak aurrez aurre aurpegira bota be- harra saihesteko bidea ematen duelako behintzat, baina, batez ere, benetako intentzioa jarduera literarioaren atzean ezkutatzeko desenkusa izan daitekeelako, hau da, idatziz ari denak beti esan dezakeelako idatzirikoa asmazioa dela, literatura hu- tsa. Era berean, horregatik iruditzen zait -salbuespenak salbu- koldarrak izan ohi di- rela idazleak.

Nire kasuan gainera, are justifikatuagoa iruditzen zitzaidan Victoria gorteiatzeko izkribu bidea erabili nahi izatea, kontuan izanik urte pare bat lehenago eta zirkuns- tantzia bertsuan lau lerro laburren bidez Eugeniarekin ustez lortu nuen arrakasta neu- rrigabea. Eta, noski, arrakasta izugarri haren aurrean -egiaz, arrakasta hitza erabiltze- ari garai hartan ez nion gehiegikeria iritziko-, bidezkoa zen uste izatea Eugeniarekin baliagarria izan zen izkribuak eragin bera izango zuela Victoriarengan ere, ezaugarri antzekoak zituztela kontuan hartuta: maila sozial bertsukoak izateaz gain, argiak, kulturadunak eta literatura estimatzen zutenak biak.

Bi hitzetan esateko, hau zen arazoa: Eugeniarekin erabili nuen izkribua ia erabat ahantzia nuela, eta, horregatik hain zuzen -ahantzia nuelako-, obsesionatu egin nin-

tzela berarekin; Victoriari ere testu bera bidali behar niola sartu zitzaidan buruan -ez antzekoa; testu bera behar zuen izan, hitzez hitz-, eta, nola edo hala, berreskuratzen saiatu nintzen. Hori da, labur esanda, gertatu zaidana.

Pentsatzen dut hein batean mundu guztiari gertatzen zaiola hori, alegia, zerbait ahaztu -mingain puntan duzula iruditu ohi zaizu gainera-, eta gogora ekarri beharra-ekin obsesionatzea. Ni behintzat, sarritan egokitu ohi naiz ataka horretan, eta idazteko konputagailua erabiltzen hasi nintzenetik gehiago, testuak ebaki, kopiatu eta horrelako eginkizunetan ari naizela, elektronikara berandu iritsia bainaiz, erraztasunez galtzen ditudalako. Eta horrelakoetan, gertatu ohi zait, ezabaturikoa dena delarik ere -lerro huts bat, hitz soil eta arrunta, gutun baten burua bera, “adiskide, bi hitz besterik ez” eta antzekoak-, ordeztu ezina iruditzen zaidala, inspirazio argitsuenaren emaitza bailitzan.

RAMON SAIZARBITORIA
Gorde nazazu lurpean, 2001

- 1.- Zer egin zuen kontalariak eskuizkribua jaso ondoren?
 - a) Gutunazala leiho atzean ezkutatu.
 - b) Gutunazal berdina gorde.
 - c) Zeru beltzari begira geratu.
 - d) Eguraldi tristeaz ohartu.

- 2.- Zergatik sentitu zen txarto kontalaria goiz hartan?
 - a) Hezur-muinetan bustidura sentitu zuelako.
 - b) Victoria bizitzatik desagertuko zitzaiolako.
 - c) Hormetan hotz hezea sartua zelako.
 - d) Berogailua martxan ipintzeko gai izan ez zelako.

- 3.- Victoriaren ustez, noiz ikusiko zuten berriro elkar?
 - a) Hurrengoan ikusiko zuten elkar.
 - b) Agian, sekula ere ez.
 - c) Haietako egunen batean elkar ikus zezaketen.
 - d) Bihar bertan, edozein lekutan, ados egonez gero.

- 4.- Zer gertatu zen kontalariaren eta Victoriaren artean?
 - a) Gerta zitekeen okerrena: Victoriaren erruz haserretu egin zirela.
 - b) Kafe bat edo zerbeza bat hartzeko aukera izango zutela.
 - c) Elkarrengandik urrundu egin zirela.
 - d) Victoriak buru eta bihotz maite zuela bera.

- 5.- Gertaturikoaren ostean zer dio kontalariak?
- Victoriari zera esan ziola: “zutaz maitemindurik nagoela uste dut, Victoria.”
 - Victoriak zera erantzun ziola: “nik ere maite zaitut apurtxo bat.”
 - Ibai ondoko jatetxe batean afaltzeko geratu zirela.
 - Bere sentimenduak azaldu gabe utzi zituelako damututa dagoela.
- 6.- Zein jarrera izaten zuten elkarrekin ibili ziren bitartean?
- Victoria liluratuta bizi izan zen.
 - ‘Maite zaitut’ eta antzeko adierazpenak egiten zizkion Victoriari.
 - Victoriari barneko sentimenduak adierazteko beldurra zuen.
 - Victoriak gaizki ulertzen zion dena.
- 7.- Zer gertatu zen haien arteko harremanetan?
- Begirunea eta adeitasuna txarto ulertuta izaten zituzten.
 - Fantasia mailako harremana izan zuten, ez benetakoa.
 - Victoriak, ‘maite zaitut’ bezalako adierazpenak ez zituen serio hartzen.
 - Batek adiskidetasuna gainditu nahi, baina jakin ez nola.
- 8.- Zer esaten du kontalariak idazteari buruz?
- Gaitasun gutxi duenarentzat errazagoa dela idaztea.
 - Interesen arabera, asmatutzat jo daitekeela.
 - Gauzak aurrez-aurre aurpegira botatzeko balio duela.
 - Koldarren irtenbidea izaten dela.
- 9.- Nor da Eugenia kontalariarentzat?
- Kontalariarekin aurreko bi urteetan ibilitako neska.
 - Kontalaria obsesionatuta zeukan neska bat.
 - Lau lerro idatzita, arrakasta neurrigabea lortu zuen emakumea.
 - Victoriarekin alderatzen duen emakumea.
- 10.- Zer gertatzen zaio kontalariari, ordenagailuak direla eta?
- Obsesionatuta bizi dela.
 - Izenburuak ordezkatu ezinik ibiltzen dela.
 - Inspirazio argitsuenaren emaitzak behar izaten dituela.
 - Informazioa erraz galtzen zaiola.

Erantzun egokiena aukeratu eta beheko laukietan idatzi.

1	2	3	4	5

6	7	8	9	10

2. IDAZLAN LABURRA

Gutxienez 200 hitz dituen idazlana egin behar duzu ondoko gaiari buruz. Ez erabili sarrera honetako esaldi-zatirik.

Adiskide batek idatzi dizu. Bere bikotekideari ezpain handiko pertsonak gustatzen zaizkio. Zure adiskide horrek ezpainetako kirurgia estetikoa egin nahi du eta zure iritzia jakin nahi du. Erantzun iezaiozu.

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitz dituen idazlana osatu behar duzu. Ez ezazu erabil gaiaren azalpeneko esaldi-zatirik hitzez hitz.

1. Emakume etorkin askok **burua zapiz estalita** eramaten du. Horrek arazoak sortu izan ditu eskolan. Hona horren inguruko iritzi batzuk:
 - “Hemengo gizartera moldatu behar dute”
 - “Marka jakineko arropak eramatea okerragoa da”
 - “Arazoa haur horiek integratzeko baliabideak izatea da”

2. **Teknologia** menderatzen ez duena atzeratuta gelditi liteke gaurko gizartean?
 - Teknologiaren alde onak eta txarrak.
 - Informazioa zabaltzeko tresna egokiak dira?
 - Erraza da tresna teknologiko horietara egokitzea?

IV.2. HE2: Proba Idatzia 2003

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2

PROBA IDATZIA 2003ko martxoaren 14a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

Nortasun-agiria:

OHARRAK

1. Zure nortasun-agiria mahai gainean utzi, aztertzailleek jasotzeko moduan.
2. Konprobatu azterketa honek 8 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan laburra 3) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- **Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira martxoaren 21ean.**
- Gaingitzen dutenek **ahozko proba** izango dute **martxoaren 25etik 28ra** bitartean (arratsaldez) Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan.

1. IRAKURMENA

Bartzelona

Nire gustuak ez dira egokitu zaidan garaiarenak, ezin ukatuko dut, aukeran nahiago izaten baitut hirietako kale zaharretan zeregin jakinik gabeko asti nagiaz ibili, eta bertako bazter, kalapitak eta usainak ezagutu, beste deus baino. Ezagutzen ez dudana hiri batera heldu orduko, bide-fardelak hotelean utzi eta, ez mapa ez norabide, ibiliaren apetara abiatzen naiz hiri ezezaguneko kaleetan zehar, bertako usain, kolore eta hots propioak ezagutzen ditudan hirietako usain, kolore eta hotsekin erkatu eta, berezitasunak identifikaturik, ordu arteko guztietatik bestetzat jotzeko. Ahal badut, ez naiz itzultzen hori egiterik lortzen ez dudana hirietara.

Maite ditudan hiriek badute, bada, bereizgarriren bat: arratsalde jakin bateko nagitasun ubelak halako hiria dakarkit gogora; ikasle garaiko hiriraino narama apio usainak; gehiago oroitzen naiz tranbiaren hotsaz, bidelagun nuen neskaz baino, halako hiria aipatzen didatenetan.

Bidez bide dabilenak, ostatu asko eta adiskide gutxi; hala dio esaerak, eta bidaiaria zaletasunak egin nau, beharbada, hain bakarti. Ez naiz egokitu zaidan garaiaren etsai, baina ez naiz oso adiskide ere, hobe baita arretarik ez eskaintzea erremediorik ez duten gorabehereri. Farfailari ahotsa eman ordez, ahoa itxirik gorde behar dela pentsatzen duten horietakoa nauzue. Besterik ezean, nahiago dut jendeak mutu ote naizen pentsatzea, huskeria hauspotzen nabilela entzutea baino.

Noan, bada, harira. Goiz osoa libre neukan bazkal-garaia arte, eta kalez kale nengibilen, norabideekiko batere ardurarik gabe, Bartzelonako Unibertsitatearen atzealdeko auzoan. Inguru haietan bada liburu zaharren txosna ugariz beteriko kale bat, eta banekien nire ibiliak hara eramango ninduela lehenago edo geroago. Negu betean bageunden ere, eramangarria zen itzalguneetako hotza, gozoa eguzkiak epeldutako kale bazterren epela, ez baitzebilen batere haizerik. Garai joanen oihartzun apalduak dira inguru haietako etxe eta jauregi asko; autoengatik ez balitz, kaleak denboraren harian gelditu direla pentsa zitekeen. Neguko dirdai errauts-koloreak eta espaloietako ezki biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia, baina bai halako abaildura naroa.

Ez nuen, nonbait, behar adinako arretarik hartu, eta uste baino askoz ere lehenago heldu nintzen liburu zaharren kalera. Niri beste inori ez dio ardurarik goiz hartan nire bibliofilia ezproinatu zuten bitxikeria zaharren aipamenak. Are gutxiago txosnaz txosna xahutu nituen sosanak. Orduan erositako liburu bat eta grabatua ekarri behar ditut, hala ere, hona.

Hilotzen baltsamenduei buruzko iragan mendeko tratatu bat ikusi nuen saltegieta-tako batean. Infolioaren edizio txukunak harritu ninduen. Berri-berri zeuzkan orri-azalak, liburua egin zenetik inork oihaletan bildurik baltsamatu izan balu bezala. Kalitate handiko grabatuez hornitua, dena zuen eder liburuak.

Ez naiz medikuntza gorabeheretan aditua, baina anatomiako irakasle bibliofilo ezagun batez gogoraturik, liburuaren prezioaz galdetzea pasatu zitzaidan burutik, aurreko ordu parean xahututako sosen zatiren bat bederen kita nezakeelakoan adiskideari liburua saldurik.

-El puc ajudar en alguna cosa, senyor? -galdetu zidan saltzaileak, hizketa modu erre batez. Denbora asko neraman orri pasa, eta liburua zarbailduko niola pentsatzen ari zen, antza, gizona. Liburuaren prezioaz galdetu nion. Hogei mila pezeta eskatu zizkidan saltzaileak. Ezezkoa egin nion buruaz. Nekez ikusten nuen anatomiako irakasle bibliofiloa liburu hartatik hogeita hamar mila pezeta baino gehiago ordaintzen. Liburu zaharren pila handi baten gainean utzi nuen tratatua. Haren pisuak liburu-dorrea desorekatu zuen eta, liburu guztiak bertan behera eroriko zirela zirudienean, liburuaren gainean ukalondoa bermaturik eutsi zion saltzaileak dorreari. Pila antolatu zuen gero beste eskuaz.

Saltzailearen zakarkeriaren bat espero nuen. Oso adeitsu hitz egin zidan, ordea, hanka artean babesturik lurrean neukan liburu-poltsa ondo beteari erreparatu ziolako-edo.

Tingui, profesor! -eta grabatu bat luzatu zidan, gardentasuna aspaldi galdutako plastiko zahar batean bildurik.

Adin onaren muga-mugan zegoen gizon baten grabatua zen; marrazkera txukuneko, begirada sukartsuko gizonaren grabatuak ez zuen, ordea, aparteko dohain artistikorik. Bekainak jaso, eta, begiak grabatutik saltzailearengana, eskaintza hari buruzko argibideren bat eskatu nion.

Grabatuko gizona eta gorpu-gantzuketei buruzko tratatuaren egilea pertsona bera zirela esan zidan saltzaileak.

-Pedro González de Velasco, un bon metge.

(...)

Gero, oreka, ozta-ozta gordetzen zuen liburu-dorrearen gainetik Anatomia-tratatua harturik, lehen esandako prezio berean eskaini zidan, liburuaz gainera, Velasco-ren grabatua. Arestian baino itxurazkoagoa iritzi nion prezioari, eta, eskatutakoa ordaindu eta gero, *Plaça del Pi*-rantz hartu nuen, hango jatetxe batean, *Santa Maria del Pi* elizaren aurrez aurre, bazkaltzekotan bainintzen adiskide batzuekin.

Barride Gotikoko usaina guztiz desberdina da, argitasuna bezala, urte-sasoi bakoitzean. Berrito itsasoratzeke garbiketaren premian dauden itsasontzi herdoilduen usain gazia hartzen diet nik neguan hango kale bihurriei.

Jatetxe jendetsu batean eta elizara ematen zuen leihotik guztiz urruti bazkaldu genuen. Lehendik ere egona nintzen han, eta ez ninduen harritu ikasle gazte, bulegari presatu eta zeregin handirik gabeko errentista itxurako jende nahas-mahas haren barailak. Bazkaldu genuena ere ez zen kartako jaki-izen puztuek idarokitzen zutenaren galgakoa izan.

Bazkaltiar guztiok hausnarrean generabilen han bildu gintuen auzia, baina horrelakoetan gertatu ohi denez, bildu gintuena ez beste guztia izan genuen solasgai kafe-garaia arte. Gero, ordu laurdenean berdindu nahi izan genituen hara eraman gintuen auziari buruzko koskak, mahaikide gehienek arratsalde hartan omen zituzten axola handiko zereginak aitzakiatzat harturik. Helbide-txartelen trukaketaren ondoren, udaberri partean-edo bilerari berriro ekitea izan zen hartutako erabaki bakarra.

Ez nintzen haserre, aspaldi sentitu gabe bainengoen Barride Gotikoak udaberri-ero hartu ohi duen ontzi pintatu berriei itsatsitako kresal-usain hura sudur-mintzetan. Kriskitinka itzuli nintzen, bada, hotelera, bizpahiru hilabete barru berriro itzultzeko aukerak gogo-pizturik. Nire Departamendukoek goiz hartan egindako dei pare baten berri eman zidaten harrera gelan. Ez nien deitu, lo-kuluxkaren ordu nagai haietan hotelen zer egiten ote nuen trufa-ziritan hasteko aukerarik izan ez zezaten. Gelara igo, erantzi, eta ohe gainean etzan nintzen. Pertsianen zirrituetatik sartzen ziren argi-txirringa jolastiek halako sosegua ematen zioten gelako erdi ilunpeari. Irrikatan nengoen erositako liburuak ukitu, haien paper eta tinta usaina sentitu, eta orriak banan-banan pasatzeko, baina ordu laurdentsuz lo-ez-lo atsedean hartu eta gero, zigarroari zigarroa egon nintzen sabaira begira, eta argi-txirringek distira zeharo galdu zuten arte luzatu nuen ohe ondoko lanpara piztu arteko denbora.

Azkenaz beste, ANJEL LERTXUNDI, 1996

- 1.- Zer egin ohi du idazleak hiri ezezagun batera doanean?
 - a) Mapaz ongi hornitu eta hiria ezagutzera irten.
 - b) Hiria ongi ezagutu arte ez da itzultzen hotelera.
 - c) Hiri berria bereiztu lehendik ezagutzen dituenetatik.
 - d) Kaleko jendearekin nahastu helburu jakinik gabe.

- 2.- Zer-nolako hiriak ditu gogoko?
 - a) Apio usainekoak, ikasle garaiko haiek bezala.
 - b) Ezaugarri jakin batekin lotzen dituenak.
 - c) Tranbia dutenak.
 - d) Arratsaldez ezagututakoak.

- 3.- Nola dakusa bere burua, hitz egiteko orduan?
 - a) Mutu geratzen da.
 - b) Huskeriak hauspotzen dabil.
 - c) Ahoa itxita pentsatzen du.
 - d) Berba egitearren, ez du edozer esaten.

- 4.- Unibertsitate inguruan, zerk islatzen du orainaldia?
- a) Etxe eta jauregiek.
 - b) Inguruko autoek.
 - c) Itzalguneetako hotzak.
 - d) Espaloietako ezki biluziek.
- 5.- Baltsamenduei buruzko liburuarekin zer egiteko asmoa zuen?
- a) Begiratu eta miretsi haren kalitate handiko grabatuak.
 - b) Anomiako ikasketak gogoratu eta bere burua gehiago jantzi medikuntzan.
 - c) Erosi eta ezagun bati saldu, gastuen zati bat berreskuratzeko.
 - d) Adiskide bibliofilo bati aholkua eskatu, erosi aurretik.
- 6.- Zer gertatu zen prezioa negoziatzen ari zirela?
- a) Jarrera aldatu zuela saltzaileak.
 - b) Anomiako irakasleak diru gehiago eskaini zion.
 - c) Liburuak lurrera erori ziren.
 - d) Liburua poltsan sartu eta hanka artean babestu zuen.
- 7.- Zer-nolako erosketa egin zuen azkenean?
- a) Liburua erosi zuen 20.000 pezetan.
 - b) Liburua eta grabatua erosi zituen 30.000 pezetan.
 - c) Itxurazkoagoa iruditurik, grabatua erosi zuen.
 - d) Saltzailearen eskaintza onartu zuen.
- 8.- Zer dio bilera-gaiaz?
- a) Kafe-garaia arte hura izan zuten solasgai.
 - b) Zeregin garrantzitsuak zituztela eta, aipatu gabe utzi zuten.
 - c) Tartetxo bat baino ez zioten eskaini.
 - d) Sakon eztabaidatuta gero, hurrengoan erabakitzeke utzi zuten.
- 9.- Nola itzuli zen hotelera?
- a) Gogo onez, hurrengo bileraren aukeragatik.
 - b) Korrika, Departamenduko berri jakitearren.
 - c) Erdi ezkutuan, inguruko burla eta ziriei ihesi.
 - d) Gustura, Barride Gotikoko kaleetan zehar, nora ezean
- 10.- Zer egin zuen hotelean?
- a) Erdi lo, erositako liburuak begiratu.
 - b) Lo-kuluxka egin, eta liburuak begiratu.
 - c) Argi faltagatik ezin izan zituen begiratu erositako liburuak.
 - d) Ohean etzan eta erre.

Erantzun egokiena aukeratu eta beheko laukietan idatzi.

1	2	3	4	5

6	7	8	9	10

2. IDAZLAN LABURRA

Gutxienez 200 hitz dituen idazlana egin behar duzu ondoko gaiari buruz. Ez erabili sarrera honetako esaldi-zatirik.

Lagun batek etxean tratu txarrak hartzen dituela adierazi dizu. Idatz iezaiozu, lantegira badaezpada ere, zure iritziak eta aholkuak emateko.

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitz dituen idazlana osatu behar duzu. Ez ezazu erabil gaiaren azalpeneko esaldi-zatirik hitzez hitz.

1. Hiru urte arteko haurrak eskolaratzea

- Eskolatze goiztiarra egokia ote?
- Zein mesede dakarkio haur txikiari?
- Haurraren onerako da ala gure interes hutsa?

2. Zorion-bideak

Zer da zoriona? Zerk ematen du zoriona? Diruak, maitasunak, lagunek...?

V. AHOZKO PROBAK

V.1. HE1: Ahozko probak

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu: ahozko azalpena eta elkarrizketa gidatua.

1. AHOZKO AZALPENA

Azterketariari informazio jakin bat ematen zaio. Euskarria idatzizkoa, audiozkoa, bideozkoa... izan liteke. Azterketariak informazio hori jaso eta prestatu egin beharko du, gero aztertzaileen aurrean azaltzeko bospasei minututan. Informazioaren berri emateaz gain, harekin lotuta dauden esperientzia, ezagutza eta iritziak ere komenta daitezke.

Kirolik ez egitea kaltegarriagoa da gehiegi jatea baino

Argal egotea ez da nahikoa osasuntsu egoteko. Hala dio Txileko Unibertsitateko irakasle Carlos Saavedrak. Haren esanetan mugimendu gutxiko pertsona argalek gaitortzeko askozaz aukera gehiago dituzte kirola egin eta elikadura orekatua izan ohi duten pisu handikoek baino. Dioenez, dietak eta horrelakoak kasurik gehienetan dirua alferrik galtzeko trikimailuak baino ez dira, gorputzak lehengora jotzen baitu gehienetan. Hamar urtean 10.000 lagun bileraren bilakaera aztertu dute txiletarrek, eta frogatu dute ariketa fisikoa eginez eta nutrizioa hobetuz osasun arloan lortzen diren emaitzak ikusgarriak direla. Eta gainera, ziurtatu dute muskulu-ehunen kalitate eskasak eragindakoak izaten direla gaixotasun kronikoen %75. Muskuluak sendotzeko erarik onena kirola egitea da, jakina. Astean 1.800 kilokaloria erre beharko genituzke.

(Aizu! 2001eko azaroa)

Emakumeek nortasun agiria eduki ahal izango dute

Saudi Arabiako Gobernuak nortasun agiriak egiten eta ematen hasi zaie bertako emakumeei. Dagoeneko 2.000 agiri baino gehiago zabaldu dituzte, "argazki eta guztia". Hori bai, emakumeek ilea estalita agertu beharko dute argazkiotan eta ezingo dira inolaz ere aurpegia makilatuta agertu. Agiria jaso ahal izateko, 22 urte baino gehiago eduki behar dituzte eta baita euren tutorearen zein laneko nagusiaren idatzizko baimenak ere.

Gobernuaren erabakiak eztabaida bizia piztu du saudiarabiar askoren ustetan, "betiko ohiturak hausten dituelako". Barne Ministro Nayef printzeak azaldu duenez, helburua "identitate faltsuak oztopatzea da bankuetako diru mugimenduetarako edota unibertsitateetako etsamintetan, esaterako". Orain arte, andrazkoen datuak ez ziren agertzen aita edo senarraren agirietan baino. Saudi Arabia munduko herrialderik atzeratuenetakoa da emakumeen eskubideen arloan; bertakoek ez ezik atzerriko emakumezkoek ere, esaterako, debekatuta daukate autoa gidatzea.

(Aizu!, 2002ko urtarrila)

2. ELKARRIZKETA GIDATUA

Aztertzaileek gai bat proposatzen dute (hitzez, argazkien bidez etab.) eta horren inguruko galderak egiten dituzte. Azterketariak galderei erantzun behar die, bide batez bere iritziak eta iruzkinak gehituz, bospasei minututan.

Hainbat elkarrizketa-gai erabili dira aztertzaile eta azterketarien arteko solasaldietan:

Arropa eta moda

- Non erosten duzu?
- Nolakoa?
- Prezioari begiratzen al diozu?

Zigorrak

- Beharrezkoak al dira? Nolakoak?
- Kaltegarriak al dira? Zergatik?
- Zigorra jarri eta damutu al zaizu inoiz?

Zaborrarekin, zer?

- Zer egiten duzu?
- Zer arazo dakartza?
- Zer irteera ditu?

Kutsadura akustikoa

- Nabaritzen al duzu?
- Mota desberdinak.
- Ba al du konponbiderik?

Publizitatea

- Nola iristen zaizu?
- Iragarki asko ikusten al duzu?
- Horren arabera egiten dituzu erosketak?

V.2. HE2: Ahozko probak

HE2ko ahozko azterketak bi zati ditu: ahozko azalpena eta elkarrizketa gidatua.

1. AHOZKO AZALPENA

Azterketariari informazio jakin bat ematen zaio. Informazio horren euskarria idatzizkoa, audiozkoa, bideozkoa... izan liteke. Azterketariak informazio hori jaso eta prestatu egin beharko du gero aztertzaileen aurrean azaltzeko sei-zazpi minututan.

Liburu honekin batera doan CDan audiozko testu batzuk aurki ditzakezue ondoko pistetan:

- Telefonía antenak (Jesus Mari Karrera) 5. pista
- Antraxa (Felix Zubia) 6. pista
- Posta intimitatea (Elena Laka) 7. pista
- Trena (Xabier Mendiguren) 8. pista

2. ELKARRIZKETA GIDATUA

Aztertzaileek gai baten inguruko galderak egiten dituzte. Azterketariak galderei erantzun behar die, bide batez bere iritzia eta iruzkinak gehituz sei-zazpi minututan.

Hona hemen gai batzuk:

Adineko jendea nork jaso behar du?

- Zein dira zaharrak?
- Nork arduratu behar du haietaz?
- Zuri nola gustatuko litzaizuke zahartzea?

Guraso bakarreko familiak

- Zeintzuk dira?
- Motak: alargunak, dibortziatuak...
- Zenbateraino aldatu da familia-eredua?

Erljioak

- Zein ezagutzen dituzu gehien?
- Prestigio berbera al dute gizartean?
- Haurrak nola hezi?

Etorkinak

- Zer-nolako etorkinak ditugu inguruan?
- Jendeak libre ibili behar du munduan ala mugak jarri behar dira?
- Zer eskubide aitortu behar dizkiegu?

VI. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK (*)

(*) Atal honetan aztertzaileen esku-liburuko zati garrantzitsuenak biltzen dira (kalifikazio-sistema, orientabideak, adibideak, taulak eta abar).

VI.1. Kalifikazio-sistemaren azalpena

VI.1.1. Erreferentzia nagusiak

Hezkuntzako Hizkuntz Eskakizunetan bi maila daude ezarrita (martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua). Lehenik eta behin hizkuntz eskakizun bakoitzaren mamia aipatu behar da.

- **HE1:** ez da euskara eta ez euskaraz irakasteko, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du. Irakaslea gai izango da, besteak beste, honako hauek euskaraz egiteko:
 - ikasleekin taldeka edo bakarka eskolako arazoez (jokabidea, motibazioa, emaitzak, ikasleekin edo irakasleekin izandako arazoak, familiako arazoak etab.) hitz egiteko;
 - gurasoekin, irakasleekin, hezkuntza-administrazioko langileekin irakaslanarekin lotutako gaietarako buruz aritzeko (eskolaren funtzionamendua, helburuak, ikasleei buruzko iritziak, ebaluaketarako irizpideak etab.)
- **HE2:** euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du. HE1eko trebetasunaz gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HE2duna:
 - bere alorreko irakaskuntza euskaraz eman ikasleei, bakarka zein taldeka, azalpen majistrala eginez zein gelan eztabaida sortuz eta jasotako galderei erantzunez;
 - eskolak prestatzeko materialak ulertu (argitalpenak, programa ofizialak, testuliburuak, kontsulta-liburuak, artikulak, pelikulak, bideoak, zintak, irrati-programak....);
 - programa orokorrak eta bere alorrekoak euskaraz idatzi;
 - fitxak, apunteak, materialak, ariketak eta abar euskaraz idatzi;
 - ariketak zuzendu, txostenak idatzi eta bestelako balioespen-jarduerak.

Oro har Hizkuntz Eskakizunen inguruko arazuko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, 1993ko apirilaren 2ko EHAAn: sorrera
- Urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, 1998ko urriaren 23ko EHAAn: baliokidetzak
- 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua, 1994ko urtarrilaren 26ko EHAAn: irizpideak etab.
- 1995eko apirilaren 10eko Agindua, 1995eko maiatzaren 11ko EHAAn: kalifikazio-sistema itxietan
- 1998ko urriaren 22ko Agindua, 1998ko azaroaren 5eko EHAAn: kalifikazio-sistema irekietan

VI.1.2. Deialdi irekia

Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da deialdi irekiaren kalifikazio-sistema.

Deialdi irekiak hiru proba ditu: lehenengoa Aukera Anitzeko Galdekizuna da. Bigarrenak Irakurmena eta Idazmen-ariketak biltzen ditu, eta baita Ahozkoaren Ulermena ere HE1ean. Hirugarren proba Ahozkoa da. Proba bakoitza baztertzailea da eta GAI edo EZ GAI moduan kalifikatzen da.

Lehen proba honela kalifikatzen da:

LEHEN PROBA	HE1	HE2
Puntuak	70	70
Gainditze-muga	45	45

Bigarren proba honela kalifikatzen da:

BIGARREN PROBA	HE1	HE2
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	ariketarik ez
Irakurmena	Otik 5era	Otik 10era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
Gainditzeko	24 puntu	24 puntu

Ikusten den bezala, idazlanek pisu handia dute. Idazlanak zuzentzeko berariazko baremoak erabili dira (ikus aurrerago zuzenketarako irizpideak, baremoak etab.

Hirugarren proba, hau da, Ahozkoa, **Gai** edo **Ez Gai** kalifikatzen da

VI.1.3. Deialdi itxiak

Kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko apirilaren 10eko Agindua liburu honen eranskinetan: VII. 2. atala: "Arauzko erabakiak". Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi itxiko azterketak bi proba ditu: Idatzizkoa eta Ahozkoa; ez dago, beraz, alde aurretiko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira.

IDATZIZKO ZATIA	HE1	HE2
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	ariketarik ez
Irakurmena	Otik 5era	Otik 10era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
	Bikain	10
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
	Bikain	30
Gainditzeko	24 puntu	24 puntu

Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota ateratzen da, bai HE1ean bai HE2an

PUNTUAK	IDATZIAREN KALIFIKAZIOA
0-10	Oso Gutxi
11-23	Gutxi
24-32	Nahikoa
33-40	Ongi
41-45	Oso Ongi
46-50	Bikain

Ahozko zatian kalifikazio hauetariko bat ipintzen zaio azterketariari: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

Azterketaren nota orokorra

HE1eko edo HE2ko azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira azterketaldi berean: Idatzizkoa eta Ahozkoa. Beraz, zati batean Gutxi edo Oso Gutxi ateraz gero, azterketaren nota orokorra ere Nahikotik beherakoa izango da. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipintzen da, bai Idatzizko zatia bai Ahozkoa kontuan hartuta: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. Zalantzako kasuetan ahozko zatia gehiago balioesten da.

Etengabeko ebaluazioa

Azterketa ez gainditu arren, 2. urtealdiko zenbait azterketarik HE1 lor dezake. Era berean, 3. urtealdiko zenbaitek HE2. Horretarako baldintza batzuk bete behar dira. Esate baterako, ahozkoa gainditu baina idatzizko zatian 22 edo 23 puntu dituen ikasleak dagoen Hizkuntz Eskakizuna lor dezake, baldin eta idazmenean etengabeko ebaluazio positiboa badu eta idazlanetako bat gainditu badu. Alderantzizkoa ere gerta daiteke kasu bereziren batean: idatzia gainditu baina ahozko zatian gaindituaren muga-mugan dagoenean, beti ere mintzameneko etengabeko ebaluazioa gainditua badu.

VI.2. Idazlanak

Bost mailatan egingo da testuaren balorazioa:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Adierazpen-maila</i>	– Testuaren maila orokorra, kalitatea
2. <i>Koherentzia</i>	– Informazioa edo edukia, gaiarekiko lotura
3. <i>Kohesioa</i>	– Testuaren artikulazioa, esaldiez gaineko loturak
4. <i>Zumentasuna</i>	– Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena
5. <i>Lexikoa</i>	– Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna, egokitasuna

Ondoren irizpide xeheagoak eskaintzen dira azterketa-maila bakoitzerako:

VI.2.1. Adierazpen-maila

Lehen balioespen orokorra da. Hizkuntz Eskakizunen ebaluaziorako irizpideen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke idazmenari dagokionez:

HE1	HE2
<p><i>Era askotako hartzaileei (lankideei, gurasoei, ikasleei) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-asmo desberdinekin, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiltz.</i></p> <p><i>Ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntz egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatuko da. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zumentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanaz. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiako zalantzak argitu ahal izateko.</i></p>	<p><i>Irakaslea testu-mota desberdinak (argibideak, aktak, txostenak, eskutitzak...), eta ikasmaterialak erredaktatzeko gai izango da, zumentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzena, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.</i></p>

Hizkuntza-maila / Kalitatea

Aztertzaileak azterketari baten idazlana baloratzean galdera nagusi batzuei erantzun behar die: Noraino da ulergarria testua? Komunikatzea lortzen al du? Idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Eskatzen zaion kalitatea eta hizkuntza-maila badu ala ez?

Izan ere, testuetan zenbait errakuntza izan ohi dira, testua ulertzeko oztopo bilakatzeko direnak eta, batzuetan, komunikazioa zapuzteraino iristen direnak, hala nola, ideia ilunak edo errepikatuak, informazioaren desordena, gramatika eta ortografia-akatsak, adierazpen teknikoegiak edo arruntegiak eta abar.

Baliabide espresibo orokorrak

Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa balioetsiko da.

Idazlearen ausardia, testuaren elaborazio-maila, orijinaltasuna.

VI.2.2. Koherentzia: informazioaren aukeraketa eta egituraketa

Atal honetan *idazlanaren adierazia* kalifikatuko da; hots, azterketariak eskaintzen duen informazioaren egokitasuna eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa... bestetik.

Informazioaren kantitatea eta kalitatea

Kantitatea

Mezua ulertzeko behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen diren ala, alderantziz, informazio gehiegi edo gutxiegi ematen den begiratuko du aztertzaileak.

Informazio gehiegi salatzen dutenak	Informazio gutxiegi salatzen dutenak:
<ul style="list-style-type: none">- Errepikapenak- Erredundantziak- Datu hutsalak idazlanaren xederako- Betelana	<ul style="list-style-type: none">- Hutsarteak adierazian- Presuposizio edo datu inplizitu gehiegi, hartzaileak zertan jakin ez dituenak

Kalitatea

Testuan eskaintzen den informazioa ona ala eskasa den begiratuko du aztertzaileak. Esan gabe doa idatzitakoak proposatutako gaiarekin lotura izan behar duela; bestela, idazlanaren kalifikazioa «Gutxi»tik beherakoa izango da eta aztertzaileak zirkunstantzia horren berri emango du puntuazio-orrian. Oro har, honela deskriba litezke bi muturrak:

Informazio ona	Informazio eskasa
Ideia osabeteak, argiak, ulergarriak, zehazki formulatuak. Berehalaxe antzematen da esan nahi duena. Gaiarekin lotua.	Ideia osagabeak, ilunak, ulergaitzak; enuntziatu generikoegiak. Irakurleak esanahia berregin behar du edo hipotesiak egin behar ditu testuan esplizituki adierazten ez dena ulertu ahal izateko. Agian gaiarekin lotura falta.

Informazioaren egitura / Paragrafoak

Ondoren deskribatzen diren bi muturretatik, testua zeinetara makurtzen den zehazten saiatuko da aztertzailea:

Informazioaren egitura egokia	Informazioaren egitura eskasa
<p>Datuen aurkezpenak aldeaz aurretik era-bakitako ordena baten arabera erakusten du (kronologikoa, espaziala, kausa-ondorioa, orokorretik xehera...). Informazio berria era progresiboan aurkezten da.</p> <p>Parrafoek ideia oso bana garatzen dute, beste parrafoetako ideietatik ondo bereziak; puntu eta aparte mugaturik ageri dira.</p>	<p>Datuen aurkezpena ordena gabea da edo gorabehera handiak erakusten ditu. Informazioa era anarkikoan aurkezten da.</p> <p>Paragrafoek ez dute osotasun-batasunik erakusten. Ideien garapena askotan eten egiten da edo han-hemenka, paragrafoen artean barreiatu edo errepikatutako ager daiteke. Puntu eta aparteak ausaz ezartzen direla dirudi.</p>

Egokitasuna / Erregistroa

Gaiaren testuingururako adierazpen arruntgiak agertzen dira batzuetan. Bestetan, berriz, erregistro formalegia erabili ohi da. Adierazpen batzuk gaiarentzat baldresgi / arruntgi edota teknikoegi / konplexuegi izaten dira. Gerta liteke, orobat, idazlearen tonua familiarregia, zuzenregia edo urrunregia izatea jasotzailea zein den kontuan harturik.

Adib.: eskola bateko ikasleen gurasoei idatzitako komunikazioaren batean «*kaka burutik behera egiten die zuen semeak zaindariei*» (nahi duena egiten duela adierazteko), adierazpen lagunartekoegia litzateke; eta «*Gure ikasle estimatuen guraso zareten jaun- andre agurgarrioi begirunez zuzentzen natzaizue...*» bezalako adierazpenak, aldiz, formalegiak.

VI.2.3. Kohesioa: testuaren artikulazioa

Atal honetan aztertzaileak *edukia azaltzeko moldeari* begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (izenordainak, erakusleak, mugatzaileak, sinonimoak, loturak...)

Aزتزتzaileak bere arreta nora zuzendu behar duen erakusten du ondoko gida honek:

Erreferentzia-mekanismoak

Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabilia dauden aztertuko da. Era berean, egoeraren testuingurua osatzen duten elementuak (persona, lekua, denbora) eta beren erreferentziak ondo josita dauden behatuko da:

– *Ordezkapen lexikala*

- *Sinonimoen bidez* (aurretik aipatutakoari eremu semantiko berdintsua duen beste hitz batez erreferentzia egitea). Adib.: *Eskola, ikastetxe, ikastegi, zentro...*
- *Hiperonimoen bidez* (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak). Adib.: *Ziklista > kirolari // Testu-liburu > baliabide didaktiko...*

- *Parafraasi bidez* (kontzeptu baten baliokide semantikoa den egitura sintaktikoa). Adib.: *Gor > entzuten ez duen pertsona*
- *Elipsia* edo elementuren bat ezabatzea: Adib.: «*Ane ez da etorri. (Ane) Gaixorik dago*».
- *Determinatzaileak*: *Artikulua* (-a, -ak, -ok); «*bat*» eta gainerako *zenbatzaileak*; *erakusleak* (*hau, hura...*) eta abar. Hauek guztiek era askotako erlazioak ezartzen dituzte hitzen eta erreferentzien artean: *ezaguna/ezezaguna, igorlea/hartzailea, hurbil/urrun...*
- *Deiktikoak*: Denbora, pertsona eta espazio-harremanak ezartzen dituzte. Egoera komunikatiboaren testuingurua zehazten dute:
 - *Pertsona*: *igorlea* (*ni, nire, nirekin...; gu, gure...*). *Hartzailea* (*zu, zure, zurekin...; zuek, zuen...*)
 - *Lekua*: *hemen, hor, han...*
 - *Denbora*: *orain, lehen, gaur, orduan, beranduago...* Adib.: «*Bihar bidaliko dizut atzo eskatu zenidana, hemen sobran baitaukat hor behar duzuna*»

Loturak (lokailuak eta gainerako testu antolatzaileak)

Testuko esaldien artean erlazio logikoak (kausa-ondorioak, ordena, aurkaritza...) ezartzen dituzten lokailuak eta gainerako testu-antolatzaileak dira aztergai. Adibidez:

<p><i>Emendiozkoak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • komak • eta • ere, ere bai, baita... ere • ere ez, ezta ere • gainera • orobat • honez, horrez gain(era) • halaber 	<p><i>Kausa-ondorioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • beraz • hortaz • honenbestez, • horrenbestez... • ondorioz • izan ere • horregatik • hau, hori dela eta 	<p><i>Ordena</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • lehenik, bigarrenik... • bat, bi... • hasteko • lehenengo eta behin • ondoren • gero • azkenik • amaitzeko
<p><i>Aurkaritzakoak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • baina • ordea • berriz • aldiz • dena den • hala ere 	<p><i>Konparazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • era berean • modu berean • berdin • bestalde • bestera 	<p><i>Adibide ematea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • adibidez • esate baterako • hau da • hots • hala nola • bestela esanda • alegia
<p><i>Espazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • goian • behean • gorago • beherago • hemen, hor, han 	<p><i>Denbora</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • aldi berean • beranduago • bien bitartean • honezkero, harrezkero • artean • ondoren 	<p><i>Egiaztapena/ laburpena</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • laburtuz • hitz gutxitan • bestela esanda • izan ere

VI.2.4. Zuzentasuna: morfosintaxia, ortografia

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larriak ez duten akats ortografikoak eta morfosintaktikoak izan ditzakeen ekoizpena.</i>	<i>Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak oso urriak dira.</i>

Ildo honetatik, aztertzaileak ondoren zehazten direnak hartuko ditu kontuan:

Morfosintaxia /Akatsak

Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten badu edo, sistematikoak izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berri huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari.

Akatsen balioespena

Azterketariek idazlanetan nahiz ahozko probetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo «larriak» eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, denak berdin baloratuko. Akats baten garrantzia hiru irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da:

1. *Noraino oztopatzen duen mezuaren ulergarritasuna.* Larriagoak dira gaizki-ulertuak sortzen eta mezuaren harrera galarazten dutenak ulergarritasunean ondoriorik eragiten ez dutenak baino. Azken hauek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi dagokionez.
2. *Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntz sistemaren egitura.* Irizpide honen arabera, larriak dira oinarrizko arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.
3. *Noraino den sistematikoa.* Akats batzuk «hutsak» dira —jarduerazko akatsak alegia—, urduritasunak, estuasunak edo arreta faltak eragindakoak; beste batzuk, berriz, «errakuntzak» edo egitura morfosintaktikoren baten kontrolik ezak eragindakoak. Lehenengoak ez dira sistematikoak izaten eta, askotan, azterketariak berak zuzentzen ditu idazlana berrirakurtzean (edo esandakoaren berrantolaketak eginez, hizketan ari denean). Hauek ez dute, beraz, aparteko garrantzirik, neurritz gertatzen badira. Bigarrenak, ordea, sistematikoak izaten dira eta garrantzitsuek, arau morfosintaktiko, ortografiko edo lexiko-item jakin batzuen kontrol osagabea erakusten baitute.
4. *Akatsak hizkuntz trebetasunen eta Hizkuntz Eskakizunen arabera.* Oro har, akatsen garrantziari nahiz kopuruari dagokienez, HE2an HE1ean baino zorrotzago jokatuko da. Hizkuntz Eskakizun beraren barnean, berriz, idazlanetan zorrotzago jokatuko da eta ahozko azalpenetan malguago.

Ondoko tauletan idazmenean behinik behin **larritzat** jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

Aditza

Akatsak	Adibideak
<ul style="list-style-type: none"> - Aditzaren komunztadura ez errespeta-tzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Gizonak ikusi dut</i> <i>Liburu batzuk erosi zuen</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Laguntzaile-mota gaizki hautatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Kalean ikusi dit</i> <i>Zer ipintzen da liburuan?</i> <i>Kezkatzen zait</i> <i>Hau gaizki funtzionatzen da</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Aditzaren aspektua, tempusa (hipotetiko-a barne) edota modua gaizki erabil-tzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Atzo gelan egoten ginen (egon ginen)</i> <i>Garaiz heldu nahi nuen, baina ezin dut</i> <i>(ezin izan dut)</i> <i>Lehen esan nuen bezala (esan dudan)</i> <i>Orain pozik egingo nuen (egingo nuke)</i> <i>Esango banioke (esango banio)</i> <i>Sartu zarete barrura! (zaitezte)</i> <i>Goaz etxera!</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Ordena gaizki. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ez nahi du etorri</i> <i>Joango behar du</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Nominalizazioak gaizki egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ez daki patata tortila egitea</i> <i>Programatzera ikasi du</i> <i>Jotzera hasi da</i> <i>Mendira joan gustatzen zaio</i> <i>Etxera joatea agindu zion</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Partizipioari lotzen zaion -ta atzizkiari pluralaren marka edo beste edozein marka erastea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nekatutak gaude</i> <i>Itxitago nahi dut</i>

Deklinabidea, sintaxia...

Akatsak	Adibideak
<ul style="list-style-type: none"> - Determinatzailearen inguruko akatsak. - Zenbait kasuren erabilera okerra: ergatiboa, <i>-(r)ik, -(r)entzat,...</i> - Izen propioak. - Bizidun / bizigabeak. - Mugagabea. - <i>-a</i> itsatsia. - «ere» partikularen erabilera okerrak. - Erlatibozko perpausak - Konpletiboak edota zehar-galderak gaizki egitea. - Galdera zuzenak zehar galderaren <i>-n</i> atzizkiarekin ematea. - Hitzen ordena desegokia. - Subordinazio-atzizkiak gaizki erantzea. - Posposizioen inguruko erabilera okerrak. - <i>Nola / nolako; Bezala / bezalako</i> - <i>Beste</i> - <i>Elkar</i> - <i>Ber-</i> morfemaren inguruko akatsak - Kopuruak / datak 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Mutila hori</i> <i>Mutilak hauek</i> - <i>Hori ez du balio</i> <i>Ez daude gailetarik</i> <i>Hori gurentzat da</i> - <i>Nekanearekin etorri da</i> - <i>Txakurrera hurbildu</i> - <i>Zenbait liburuak</i> <i>Edozein mutilari</i> - <i>Tontakeri bat</i> <i>lau pertson</i> - <i>Ere bai esan zuen</i> <i>Bilbon egon naiz eta Donostian ere</i> <i>Ez dut ezer ere ez egin</i> - <i>Ezagutzen dut gizon bat Parisen bizi dela</i> - <i>Uste dut hori ez da ona</i> <i>Ez dakit zer ordu da</i> <i>Noiz itzuliko naizela galdetu dit</i> - <i>Nola esaten den hau?</i> <i>Aizu, zer den hau?</i> - <i>Daukat etxe bat mendian</i> <i>Lokalizatzeko baserria da gehiegi</i> <i>Beste herriko gizon bat (herriko beste gizon bat)</i> <i>Ekonomiko arazoak</i> - <i>Dezakela / dezakeela</i> <i>Nuenela / nuela</i> - <i>Biok artean</i> <i>Ikasturtearen zehar</i> <i>Epearen kanpo aurkeztu du lana</i> - <i>Nola da zure etxea?</i> <i>Hori nirea bezala da</i> <i>Jon zu bezala da</i> - <i>Goazen beste lekura (leku batera)</i> - <i>Elkar egon ziren</i> - <i>Patxi berak kontatu du</i> <i>Etxe bertatik irten zen</i> - <i>Urtarrilak 13an</i> <i>1900: mila bederatziehun (eta bederatziehun)</i> <i>Erdi litro</i>

Ortografia eta puntuazio-zeinuak

– Puntuazio-zeinuak

Puntuazio-zeinuen arauak ez dira beti normatiboak edo objektiboak. Dena den, ba-
dira perpausaren antolamendu sintaktikoarekin eta semantikoarekin zerikusia duten
arau nagusi batzuk. Horien aplikazioari erreparatuko diogu, besteak beste, perpausak
puntuen bidez ondo mugaturik dauden, elkarren segidan doazen, maila bereko kideak
komaz bereizirik ematen diren, hitz betegarriak (*bada, dena den, adibidez, beraz...*) koma
tartean doazen, galdera eta harridura-zeinuak beren tokian dauden etab.

– Ortografia:

- -Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak **larriak** dira beti, baita euskal or-
tografiako puntu konfliktiboenetan egiten direnak ere (z-s-x / tz-ts-tx / h-Ø(/ g-j
eta abar).
- Adib.: »*au isan sen*» «*asken hezkutitzean ezaten senidan besala*»
- Aldiz, beste zenbait huts **txikitzat joko dira**: erabilera urriko hitzen ortografia
("h"ak bereziki), hitz elkartuetan marratxoaren erabilerari dagozkionak, mailegue-
tako -u eta -o bukaeretan sortzen diren zalantzak, eta antzekoak. Adibidez:

<i>Erabilera urriko hitzetan H letraren inguruko zalantzak:</i>		<i>Hitz elkartuen idazkera</i>	
<i>– Ondo</i>	<i>– Txarto</i>	<i>– Ondo</i>	<i>– Txarto</i>
<ul style="list-style-type: none"> • mihura (landare bizkarroia) • meatze (meategia) • ahur (eskuaren barnealdea) • haltz (zuhaitza) • orbel (hosto ihartua) • auhen (atsekabea) • hegi (mendiaren hegala) 	<ul style="list-style-type: none"> • miura • mehatze • aur • altz • horbel • ahuen • egi 	<ul style="list-style-type: none"> • aurrez aurre • ozta-ozta • zuzen-zuzenean • irakasmila • legegizon • lan hitzarmena • lan-hitzarmena • esku-zabal • eskuzabal 	<ul style="list-style-type: none"> • aurrez-aurre • ozta ozta • zuzen zuzenean • irakas-maila • irakas-maila
<i>-u/-o bukaera maileguetan</i>		<ul style="list-style-type: none"> • ortografi arauak • ortografia(-)arauak • hizkuntz gaitasuna • hizkuntza(-)gaitasuna • hezkuntza(-)sistema 	<ul style="list-style-type: none"> • ortografi-arauak • hizkuntz-gaitasuna • hezkuntz-sistema
<i>– Ondo</i>	<i>– Txarto</i>		
<ul style="list-style-type: none"> • dokumentu • kreditu • zentro • dialekto 	<ul style="list-style-type: none"> • dokumento • kreditu • zentru • dialektu 		

VI.2.5. Lexikoa

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<p><i>Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz de-segokiak, erdaratik hartutakoak edo parafra-siak erabili behar baditu ere.</i></p>	<p><i>Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du. Gabezia-egoeretan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu.</i></p>

Aberastasuna / Zehaztasuna / Egokitasuna

Bere eginkizunak betetzeko behar duen hitz-altxorraren jabe dela erakutsi behar du azterketariak. Lexiko zaindua erabili beharko du: aberatsa, zehatza, egokia. Lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko da, hala nola, euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea.

Hitzaren esparrua

Akatsak	Adibideak
<p>– Katetoria gramatikalen aldaketa.</p>	<p>– <i>Barrez / negarrez egin (barre/negar egin)</i> <i>Bi oihuka entzun ziren</i> <i>Arrantzale nekatuta bat (arrantzale nekatu bat)</i> <i>Hobeto da horrela (hobe)</i> <i>Zu baino nekatutago nago (nekatuago)</i></p>
<p>– Erdaratiko maileguen erabilera eskasa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • a artikulua ahaztea • s pluralgilea erastea • femeninoaren -a ez ezabatzea. 	<p>– <i>Pegamento bota behar dut ondo itsasteko</i> <i>Azken zentso egin dutenean...</i> <i>Botos lortzeko kanpaina</i> <i>Etiketas erabiliz</i> <i>Gimnasia moderna</i> <i>Erreakzio kimika</i></p>
<p>– Hitzari ez dagokion esangura atxikitzea.</p>	<p>– <i>Doktoreen zenbakia (kopurua)</i> <i>Nire aitak (gurasoak)</i> <i>Zazpi seme dauzka (seme-alaba)</i></p>
<p>– Euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea.</p>	<p>– <i>Non daude tijerak?</i> <i>Utzi mesa gainean</i></p>

VI.3. Ahozko proba

Azterketarien ahozko ekoizpena baloratzeko bost alderdi hauei erreparatuko die aztertzaileak:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Adierazpen-maila</i>	- Berbaldiaren maila orokorra, kalitatea
2. <i>Ahoskera</i>	- Ebakera, azentua, doinuera.
3. <i>Hitz-jarioa</i>	- Abiadura, etenak eta mezuaren berrantolaketak.
4. <i>Zuzentasuna</i>	- Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.
5. <i>Lexikoa</i>	- Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna, egokitasuna

Ondorengo orrialdeetan ahozko proba baloratzeko irizpide xeheak eskaintzen dira atalez atal:

VI.3.1. Adierazpen-maila

Lehen balioespen orokorra da. Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko ebaluazio-irizpideetan honako hauek aipa daitezke, besteak beste, mintzamenari dagokionez:

HE1	HE2
<p><i>Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak bere ideiak argiro antolatzeko eta adierazteko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, hartzaileak ulertzen duen eta egoerari eta helburuari egokia zaien diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna. Ikasketariaren ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik ere neurtuko da.</i></p>	<p><i>Eskola-gaiez nahiz kanpoko gaiez azalpenak egitea eta elkar-truke komunikatiboetan parte hartzeko gai izatea, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.</i></p> <p><i>Irizpide hauen bidez bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jarioa eta ebakera neurtu nahi da. Orobat, gaiarekiko egokitasuna lexikoaren aldetik, bere ideiak era logiko eta egituratuan azaltzeko gaitasuna eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzekoa.</i></p>

Hizkuntza-maila / Kalitatea

Aztertzaileak azterketari baten ahozko ekoizpena baloratzean galdera nagusi batzuei erantzun behar die: Noraino da ulergarria testua? Komunikatzea lortzen al du? Idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Eskatzen zaion kalitatea eta hizkuntza-maila badu ala ez?

Baliabide espresibo orokorrak

Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa eta elaborazio-maila balioetsiko da.

Solaskidearen arreta erakartzeko eta interesa pizteko, eraginkorragoa izateko, azalpen osatuago eta zehatzagoak burutzeko eta abarretarako baliabide erretorikoak, orijinaltasuna eta ausardia.

Koherentzia (informazioaren kantitatea eta kalitatea, berbaldiaren egituraketa, egokitasuna)

Ataltxo honetan hauexek dira aztergai:

- azterketariak eskaintzen duen informazioaren kantitatea eta kalitatea, gaiarekiko lotura
- ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa
- egokitasuna/ erregistroa.

Ikus gorago, idazlanaren ebaluazioari dagozkion irizpideetan, koherentziaz esanda, beti ere kontuan harturik ahozko hizkeraren ezaugarriak direla eta, ondorioz, askoz ere malguago aplikatu behar direla han zehaztutakoak.

VI.3.2. Ahoskera

Atal honetan ezin da ahantzi Euskaltzaindiak emana duela “Euskara Batuaren Ahoskera zaindua” izeneko txostena. Nolanahi ere, eta agian halabeharrez, txosten horretan deskribatzen den ahoskera aski urruntzen da errealitatean euskal hiztun gehienek erabiltzen dutenetik. Azterketariari, hortaz, ezin eskatuko diogu, jatorrizko euskal hiztunek erabiltzen duten ahoskera baino askoz ere zainduagoa. Beraz, erreferentzia bizi bat hartzearen euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren ahoskera hartuko dugu, eta zehatzago, irradi-telebistako profesionalena¹.

Ahozko proban, ahoskerari dagokionez, ondoko azpiatal hauek dira bereziki zaindu eta baloratu behar direnak:

- Ebakera
- Prosodia: azentua / intonazioa
- Hiatu problematikoak

Hona hemen azterketariaren ahoskera ebaluatzeko zenbait irizpide xehe:

Ebakera (fonemen burutzapena / hotsen elkarketa)

Fonemen burutzapena

Azpiatal honetan euskal fonemen burutzapen egokia behatu behar da, ondoko hauek aintzat hartuz:

¹ Ahoskera bezalako gai korapilatsu eta gutxi aztertu honetan, nahiz eta neurri batean eztabaidagarria izan, eredu hau aukeratu da, batetik, erreferentzia bat, edozein dela ere, ezinbestekoa delako eta, bestetik, berau eginkizun honetarako egokia eta aproposa delako eta edozein azterzailek ezagutzen duelako.

- < z > eta < s > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < tz > eta < ts > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < j > kontsonantearen ebakera desberdinak onartzekoak dira: [x] [y] [z] [xan, yan, zan]
- < g > grafia daramaten erdal maileguetan [x] eta [g] ebakerak, biak, onestekoak dira. Adib.: *biologia* > [bioloxia] eta [biologia] ; *genesi* [xenesi] eta [genesi].
- <il>ren ordainez [y] ahoskatzea («yeismoa»), euskal fonetika zuzenaren kontra joan arren, ez da zigortuko. Adib.: *neskatila* > [neskatila] —burutzapen zuzena— eta [neskatiya], akastzat hartuko ez dena.

«Bestelakoak» atalean sarituko da, ordea, <z> eta <s>, <tz> eta <ts> bereizten di-tuen azterketariaren ahoskera eta <il>ren burutzapen zuzena.

Ondoko hauek ebakerako **akats larritzat** hartuko dira:

- < tz > erdarazko < ch >ri dagokion hotsaz ahoskatzea. Adib.: *aldatzen* > *aldachen*
- < z > < x > balitz bezala sistematikoki ahoskatzea. Adib.: *zuen* > *xuen*; *zarata* > *xarata*...
- < ge, gi > daramaten euskal jatorriko hitzetan [x] ahoskatzea. Adib.: *giro*, *zigilu* > *jiro*, *zijilu*...
- Erdarazko «cerro» edo «zona» moduko hitzetako hasierako [θ] soinua zenbait hitzetan ahoskatzea. Adib.: *asimilacio*, *cigarro*...
- Hitz bukaerako leherkari gorren burutzapen «arraroak»: Adib.: *Nik* > *niz*, *nig*, *nit*, *ni-J*... *dut* > *duz*, *duk*, *dud*... Baita hitz artekoak ere: Adib.: *erritmo* > *errizmo*, *errikmo*...

Azken puntu honetakoak azterketariaren artikulazio-organoen arazo somatiko gain-diezinaren ondorio diren neurrian, azterketa batzordeburuari jakinaraziko zaio.

Hotsen elkarketa

Hitzak elkartzean sortzen diren aldaketa fonetikoak. Bereziki EZ eta BAIT partikulek aditz laguntzaileari erasteen eragiten dituztenak:

EZ+ B → EZP: ezpadator, ezpalitz	BAIT + D → BAIT: baitaude, baitira
D → EZT: eztago, eztira	Z → BAITZ: baitzara, baitzaio
L → EL: eluke, elizateke	L → BAIL: bailuke, bailiteke
Z → ETZ: etzuen, etzaizkio	N → BAIN: bainaiz, bainago
N → EN: enator, enoa	G → BAIK: baikara, baikintezke
G → EZK: ezgara, ezkinen	

Arau fonetiko hauek ez errespetatzea ez da akastzat hartuko atal honetan; hala ere, horrelakoak ongi erabiltzea gauza positibotzat joko da.

Silaben ebakera

Euskaraz hiatu direnak diptongo gisa ahoskatzea ez da onartuko

- *entziklopedia* (6 silaba, eta ez 5)
- *Frantzia* (3 silaba, eta ez bi)
- *numerazioa* (6 silaba eta ez 5)

Azentua eta doinua (Prosodia)

Azpiatal honetan ezin da irizpide xeherik eman. Dena dela, aztertzaileak honako hauek begiratuko ditu besteak beste:

- Gorago ezarritako «hiztun-ereduaren» azentubidera eta doinu modura hurreraten den ala ez azterketaria.
- Erdal doinueraren eragina norainokoa den; hau da, hitzak erdarazko «llanak» bezala ahoskatzen dituen etab. Adib.: *mintzaména, autobúsa, baserría*.
- Funtsezko tonu-aldaketak adierazi nahi duenarekin ongi lotzen dituen: galderak, harridurak eta esaldi sinpleak doinuera egokiz ematen dituen; ea tonua indartzen duen garrantzitsutzat jotzen dena nabarmentzeko (galdegaia, esaterako) edo interesguneak inguruko osagarrietatik bereizteko.

VI.3.3. Hitz-jarioa: abiadura, etenak eta berrantolaketak

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Hizkeran gutxienezko jarioa izango du, inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gertatu arren.</i>	<i>Hizkera jariakor eta uniforme, ez derrigor jatorrizko euskaldunak adinakoa, baina bai honek onargarritzat joko lukeena.</i>

Hitz-jarioaren hiru alderdi hauek begiratuko dira:

Abiadura

Hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Gainera, hiztun berberak bizkorrago edo mantsuago hitz egin dezake, egoera zein den. Zaila da, beraz, neurri-patroi bat ezartzea². Dena den, azterketariari jatorrizko euskaldunak onargarri joko lukeen gutxienezko abiadura eskatuko zaio. Aztertzailea bere senaz, gutxi gorabeherako estimazioez eta azterketariaren jardunak sortarazten dion inpresioaz (erosotasuna, nekea..) baliatuko da azpiatal hau baloratzeko.

Etenaldiak

Kate mintzatuan barrena eten batzuk derrigorrezkoak dira (arnasa hartzeko, unitateak bereizteko, eta abar egiten direnak); beste batzuk, aldiz, aukerakoak (efektu erretorikoak sortzekoak, adibidez). Badira beste batzuk, hizkuntz sistemaren kontrol mugatuaren ondorio, komunikazioa astun bihurtzen dutenak eta mezuaren harrera galaraz dezaketenak. Eten hauek gaitzestekoak dira. Adibidez:

² HE2ko mailaren pareko hizkuntza arrotzen (ingelesa, kasu) ikasleei jatorrizko hiztunek darabilten abiadura motelena eskatzen zaie gutxienez. Euskarari dagokionez, jatorrizko euskalduna 95-140 hitz/ minutuko abiaduran mintzatzen omen da (HABE, Mintzamena lantzen. 1985). Gutxienezko abiadura hori eskatuko zaie, bada, HE2ko azterketariei. Azterketa honetan ez dira, hala ere, minutuak eta hitzak kontatuko. Datu hau erreferentzia gisa har daiteke aztertzaileen bateratze saioetan.

- Batera eman beharreko hitzen artean etenak egitea:
 - Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: *Lehengoan ikusi ... zintugun*
 - Sintagma banaezinetan: *bere ... etxean; zazpigarren ... pisua; beste ... orri ... bat*
- Galdegaiaren eta aditzaren artean egitea: *Etxera ez, automobila hartzera ... nindotan*
- Konparatiboetan etena lekuz aldatzea: *Peru Anton ... baino trebeagoa da*
- Hitzaren barruan etenak egitea: *zu...regana; ekarri zen...ituzten*

Berrantolaketak (oihartzunak)

Hiztun trebeenek ere, tarteka bederen, huts egiten dute oharkabean. Nekeak, urduritasunak, interes ezak eta abarrek eragindako jarduerazko errakuntza horiez ohartu bezain laster, zuzentzen saiatzen da hiztuna, atzera joaz esandakoa berrantolatzeko. Beste zenbaitetan esaldia modu batean hasi eta erdian dagoela, bukatu gabeko esaldiari «norabide» berria ematen dio. Ahozko hizkuntzaren fenomeno hauek onargarriak dira, bakanka gertatzen direnean.

Autozuzenketa neurturik egiten denean onargarria bada, neurritz kanpo egiten denean, hizkuntz sistemaren kontrolik eza salatzen du eta komunikazioa galarazi egiten du.

VI.3.4. Zuzentasuna

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<p><i>Azterketariaren hutsegite morfosintaktikoek komunikazio-etenak eta gaizkiulertuak sorraraz ditzakete, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.</i></p>	<p><i>Zuzentasun handiz hitz egiten du. Noizik behin mezuaren ulermena eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak izan ditzake.</i></p>

Morfosintaxia

Ikus V.2.4 puntua (zuzentasuna idazlanetan). Halere, hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko aldeak gogoan izan behar dira: zenbait gauza ezin dira zorrotasun berberaz epaitu idazlanetan eta ahozkoan: esaterako, tradizio idatziari lotuak daudenean (ergatibo plurala...).

Errakuntza bakanak onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoki izan gabe ere, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari. Gauza bera esan dezakegu autozuzenketez: noizbehinkakoak izanez gero onargarriak dira, baina mezuaren ulergarritasuna eragozten badute, NAHIKOA ez emateko arrazoia izan daitezke.

VI.3.5. Lexikoa

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafrasiak erabili behar baditu ere.</i>	<i>Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du. Gabezia-egoeretan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu.</i>

Aberastasuna / zehaztasuna/ egokitasuna

Azterketariak gaia ongi garatzeko moduko berba-sorta darabilen ala ez begiratuko da. Era berean hitzak asmatu ezina gertatzen ote zaion. Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak saihestu beharko ditu azterketariak eta hitzak berezko esanahiaz erabiltzen saiatu. Zenbait akats larritzat jo liteke, hala nola, euskal hitz arruntentz ordez erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea.

Lexiko mugatua salatzen duten zenbait gertaera:

- Errepikapenak. Adib.: *erabaki bat hartzea erabaki zuen.*
- Hutsarte lexikoak: behar duen berba ez aurkitzea.
- Berba makuluak eta esangura zehazgabeko berben abusua. Adib.: *zera, ba, baina, orduan, pixka bat, gauza, egin, tresna, kontu...*

Akatsei buruz ikus VI.2.5. puntua (Lexikoa idazlanetan).). Dena dela, akatsak ezin ditugu zorrotasun berberaz epaitu idazlanetan eta ahozkoan.

VI.4. Irizpideen laburpena

IDAZLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA

- **Hizkuntza-maila/ Kalitatea.** Zer-nolako maila du idazlanak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntz Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa; hiztegiaren aberastasuna eta zehaztasuna; idazlearen ausardia; elaborazio-maila; orijinaltasuna...

2. KOHERENTZIA

- **Informazioa.** Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Kontraesanik badago enuntziatuen artean? Gaiarekin loturarik badago?
- **Egitura/ Paragrafoak.** Informazioaren ordenamendua logikoa da? Ba al dago errepikapenik, informazio hutsarterik edo etenik? Paragrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen du?
- **Egokitasuna/ Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi, teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia, zuzenegia edo urrunegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?

3. KOHESIOA

- **Erreferentziarako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?
- **Loturak.** Testu-zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu-antolatzaileak ondo erabilia daude?

4. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Akatsak baditu? Asko dira? Larriak dira? Testua ulertzea galarazten dute? Hizkuntzaren arau morfosintaktiko nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitzen ordena zuzena da?
- **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazio akats larriak (punturik eza, justifikaziorik gabeko komak subjektuaren ondoren, komarik gabeko aposizioak...) badago? Galdera eta harridura-zeinuak ondo erabiltzen ditu? Hitz arruntetan akats ortografiko larriak ageri da?

5. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna/ Egokitasuna.** Hitz altxor ugaria erabiltzen ditu ala hitz multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak berezko esanahiaz erabiltzen ditu?

AHOZKO PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA

- **Hizkuntza-maila / Kalitatea.** Zer-nolako maila du ahozko produkzioak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntz Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa, baliabide erretorikoak, orijinaltasuna...
- **Koherentzia/ Egokitasuna.** Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegi eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean? Gaiarentzat arruntegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

2. AHOSKERA

- **Ebakera.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak errespetatzen ditu? Ahoskera itxiegi erakusten du? Silabak zuzen ahoskatzen ditu?
- **Azentua / Doinuera.** Hitzen azentu eta esaldien intonazio egokiak ditu ? Esanahia eta doinuera bat datoz?

3. HITZ-JARIOA

- **Abiadura.** Abiadura egokiz hitz egiten du? Diharduen abiaduragatik nekoso egiten da haria segitzea?
- **Etenaldiak.** Zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isluneak betetzeko «eee...», «mmm...» bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?
- **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?

4. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu?

5. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna/ Egokitasuna.** Hitz altxor ugaria erabiltzen ditu ala hitz multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak berezko esanahiaz erabiltzen ditu? Hitzak asmatu ezina gertatu zaio?

VI.5. Baremoak

Baremo hauek idazmena eta mintzamina ebaluatzeko dira. Aurreko orrialdeetan zehatz-mehatz ematen diren neurpideak ondoren datozen lau taulen bidez aplikatu behar dira; horretarako:

Idazlanak

Testu idatziak ebaluatzerakoan arlo hauek hartuko dira kontuan: adierazpen-maila, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, lexikoa. Arlo horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren mailaz mailako deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Ahozko proba

Proba hau kalifikatzerakoan arlo hauek hartuko dira kontuan: adierazpen-maila, ahoskera, hitz-jarioa, zuzentasuna, lexikoa. Arlo horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Oharra

Kalifikatzerakoan beti ere kontuan hartu behar da “Nahikoa”ren deskribapena dela abiapuntua: ekoizpen bati “Nahikoa” emateko, kalifikazio horren ezaugarri guztiak bete behar ditu. Aldiz, ekoizpen bati—idatziari zein ahozkoari— “Gutxi” kalifikazioa emateko ez ditu zertan bete “Gutxi” sailean agertzen diren ezaugarri guztiak; aski izan daiteke atal batean edo bestean huts egitea.

Deialdi irekian **Gai/Ez Gai** moduan kalifikatuko da Ahozko proba.

IDAZLANAK HE1

Deskribapena	Nota
<p>1 Oso testu ona.</p> <p>2-3 Taxuzko informazio, gertaera eta argudioak aurkezten ditu, era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu-egituraketa logikoa.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Ortografiako akatsen bat izan lezake</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa erabiltzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Testu ona. Ongi eta erraz ulertzen da.</p> <p>2-3 Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, ongi garatuak.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Forma konplexuetan eta erabilera urriko hitzetan akatsen bat izan lezake.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi erabiltzen ditu. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Testu ona. Nahiz eta sinplea izan, erraz ulertzen da.</p> <p>2-3 Informazio nahikoa, ongi garatua, esanguratsua eta egoki egituratua. Hala ere, gerta liteke ideia edo daturen bat behar bezain egoki azaldu edo lotu gabe gelditzea.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak ondo erabiltzen ditu. Akatsen batzuk ager litezke.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa erabiltzen ditu, bazuetan mugak eta hitz desegokiak antzematen bazaizkio ere.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da testu ona. Gerta liteke testua sinpleegia izatea ere.</p> <p>2-3 Informazioa, gertaerak eta argudioen garapena edo ideien arteko lotura desegokia izan daiteke. Testuaren egituraketa eskasa izan liteke.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusi gehienak kontrolatzen dituen arren, horietan ere behin baino gehiagotan huts egiten du.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Testu txarra. Irakurleak arazo asko ditu idatzitakoa ulertzeko. Guztiz sinplea ere izan liteke.</p> <p>2-3 Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osoak eta argiak adierazteko.</p> <p>4 Gramatika-egitura nagusiak ez ditu ongi menderatzen. Adierazpen ohikoenetan ere akats morfosintaktiko edota ortografikoak ager litezke.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE1

Deskribapena	Nota
<p>1 Gai da ahozko zeregin arrunt gehienak erraz burutzeko.</p> <p>2-3 Jatorrizko hiztunaren abiadurara heldu ez arren, hizkera jariakor eta uniformeak erakusten du. Ahoskera onargarria.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi menderatzen ditu eta konplexuagoetan ere moldatzen da. Bere ideiak borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Gai da ohiko komunikazio-egoeretan ahozko zereginak erraz burutzeko.</p> <p>2-3 Hizkera erregularra. Ahoskera onargarria.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu, baina zailagoetan akatsak egin ditzake. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi ezagutzen ditu. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Gai da elkarrizketan parte hartzeko, gertaerak eta esperientzia pertsonalak komunikatzeko eta bere iritzia adierazteko, nahiz eta batzuetan zailtasunak somatu.</p> <p>2-3 Hizkera oso azkarra ez badu ere, nahiko erregularra da, solaskidearengan egonezina gutxitan sortzen duena. Oro har ondo ahoskatzen du.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko nagusiak zuzentasunez erabiltzen ditu. Inoiz akats txikiak eta larriren bat antzeman litezke. Doinuera onargarria.</p> <p>5 Gai orokorrean eta eskola-giroko buruzko lexiko aski garatua, batzuetan mugak eta hitz desegokiak (txarto hautatutakoak, erdarakadak etab.) antzeman arren.</p>	NAHIKOA
<p>1 Zailtasunak elkarrizketan parte hartzeko. Hizkuntz baliabideen eskasiak askotan zapuzten du komunikazioa eta ez dio biderik ematen azalpen edo arrazonamendu luzexkak egiteko.</p> <p>2-3 Hizkera motela eta irregularra izan lezake; etenaldi eta autozuzenketa ugari. Agian ahoskera bitxia edo doinuera txarra.</p> <p>4 Egitura nagusi batzuk ondo menderatzen baditu ere, beste asko ez ditu ondo kontrolatzen. Akats larriak.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Zailtasun handiak elkarrizketan aritzeko, nahiz eta esaldi solte batzuk ongi burutu.</p> <p>2-3 Hizkera motela, zatikatua eta irregularra, komunikazioa erabat zailtzen duena. Agian ahoskera bitxia edo doinuera txarra</p> <p>4 Akatsak larri ugari edota, hori eragozteko, oso hizkuntza sinplea erabiltzen du.</p> <p>5 Oinarri-oinarrizko lexikora mugatzen da. Berba okerrak, mailegu bitxiak edota erdarakadak maiz erabil litezake. Muga handiak esan nahi duena gutxienean zehaztasunez adierazteko.</p>	OSO GUTXI

IDAZLANAK HE2

Deskribapena	Nota
<p>1 Testu borobila.</p> <p>2-3 Taxuzko informazio, gertaera eta argudioak aurkezten ditu, era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu egituraketa logikoa.</p> <p>4 Ez dago ortografia, puntuazio eta gramatika-akats larrik; idazlanak hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Testu ona eta landua.</p> <p>2-3 Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, ongi garatuak. Testu egituraketa egokia.</p> <p>4 Ortografia eta gramatikaren arau nagusiak ongi menderatzen ditu. Akats larrik ez.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi erabiltzen ditu. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Testu ona. Azalpen zehatzak ematen ditu proposatutako gaiari buruz.</p> <p>2-3 Informazioa, gertaerak eta argudioak egoki aurkeztu eta garatzen ditu. Mezuaren haria erraz segitzeko moduko testu-egituraketa.</p> <p>4 Ortografiaren eta gramatikaren arauak ongi menderatzen ditu. Akats larriren bat edo beste ager liteke.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa erabiltzeko gai da.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da testu ona. Irakurleari eragozpenak sortarazten dizkio. Gerta liteke akatsak eragotzi nahian oso idazlan sinplea idatzi izana ere.</p> <p>2-3 Ideien arteko lotura ez da behar bezain egokia.</p> <p>4 Akats larriak gramatika-arloan. Arau gramatikal edota ortografiakoetan hutsune nabarmenak.</p> <p>5 Lexiko mugatua izan dezake. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakadak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Testu txarra. Irakurleari eragozpen handiak sortarazten dizkio</p> <p>2-3 Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osoak eta argiak adierazteko.</p> <p>4 Ortografia eta gramatika-akats larri ugari.</p> <p>5 Lexiko mugatua. Muga nabarmena antzematen da gaia gutxieneko zehaztasunez garatzeko.</p>	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE2

Deskribapena	Nota
<p>1 Azalpen konplexuak egiteko edo bere ideiak xehetasunez eta erraz adierazteko gai da.</p> <p>2-3 Mintzagai orokorretan nahiz bere lanbideari dagozkienetan, hizkera jariakor eta uniformea, jatorrizko hiztunarena bezalakoa.</p> <p>4 Zuzentasun osoz hitz egiten du.</p> <p>5 Lexiko zabala eta zehatza, bai bere lanbideari dagozkion gaietan bai gai orokorrei dagozkienetan.</p>	OSO ONGI
<p>1 Bere lanbideari dagozkion ahozko zeregin guztiak zailtasunik gabe betetzeko gai da.</p> <p>2-3 Hizkera jariakor eta uniformea. Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren parekoa.</p> <p>4 Zuzentasunez hitz egiten du, akats txikiren bat gora-behera.</p> <p>5 Bere lanbideko nahiz ohiko gizarte-harremanetako gaietan lexiko zabala eta zehatza darabil aparteko arazorik gabe.</p>	ONGI
<p>1 Irakaslanak eskatzen dituen ahozko zereginak burutzeko gai da. Ideia konplexu samarrak adierazteko orduan, oztopoei irtenbidea bilatzeko gai da.</p> <p>2-3 Hizkera jariakor eta uniformea, jatorrizko hiztunak onargarritzat joko lukeena. Nolanahi ere, hitzak edo esamoldeak bilatu beharrek eta birformulazioek etenak sor litzakete. Ahoskera eta doinua onargarriak.</p> <p>4 Zuzentasunez hitz egiten du. Akats larriren bat izan lezake.</p> <p>5 Lexiko orokor aberatsa. Bere lanbideari dagozkion gaietan lexiko zabala eta zehatza erakusten du.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ideia konplexuak adierazteko zailtasun nabariak ditu.</p> <p>2-3 Hizkera motela eta irregularra. Agian etenaldi edota autozuzenketa gehiegi. Gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea edo doinueran ama-hizkuntzaren eragin nabaria erakustea.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats larriak erakusten ditu.</p> <p>5 Lexiko mugatua, bereziki alde zurretik prestatu gabeko topiko ez aritzen denean.</p>	GUTXI
<p>1 Ahozko azalpen traketsa.</p> <p>2-3 Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik; oso zalantzati. Baliteke bitxiak agertzea edo gaztelaniaren mendeko azentua eta intonazioa erakustea.</p> <p>4 Oinarrizko aditz-forma eta gramatika-egituretan ere akatsak antzematen dira</p> <p>5 Lexiko murrizta: oinarrizko hiztegira mugatzen da.</p>	OSO GUTXI

VII. ERANTZUNAK

VII.1. HE1eko probak

HE1: AAG 2002

1	B	11	A	21	C	31	D	41	D	51	B	61	C
2	C	12	A	22	D	32	A	42	A	52	A	62	D
3	D	13	D	23	D	33	B	43	A	53	A	63	D
4	D	14	B	24	C	34	B	44	A	54	A	64	D
5	A	15	D	25	D	35	C	45	A	55	C	65	A
6	B	16	C	26	B	36	B	46	B	56	C	66	A
7	C	17	B	27	C	37	D	47	A	57	A	67	B
8	B	18	D	28	B	38	D	48	C	58	B	68	A
9	D	19	B	29	D	39	B	49	B	59	B	69	C
10	B	20	C	30	D	40	B	50	C	60	C	70	C

HE1: AAG 2003

1	C	11	A	21	C	31	B	41	D	51	D	61	D
2	D	12	D	22	C	32	D	42	A	52	D	62	A
3	A	13	C	23	B	33	A	43	B	53	B	63	C
4	D	14	B	24	B	34	B	44	A	54	C	64	D
5	D	15	B	25	D	35	D	45	C	55	A	65	B
6	D	16	D	26	D	36	C	46	B	56	C	66	A
7	B	17	B	27	B	37	D	47	D	57	A	67	C
8	C	18	B	28	C	38	C	48	A	58	C	68	A
9	C	19	C	29	A	39	B	49	B	59	D	69	B
10	B	20	D	30	D	40	A	50	C	60	B	70	C

HE1: Ahozkoaren ulermena 2002 (Pello Zabala)

1	E	11	E
2	E	12	E
3	E	13	G
4	G	14	E
5	G	15	E
6	E	16	E
7	G	17	G
8	E	18	G
9	E	19	G
10	G	20	E

HE1: Irakurmena 2002 (Neurri handiko arropak)

A eredua

1	2	3	4	5
C	D	C	D	D

6	7	8	9	10
D	A	B	D	B

HE1: Ahozkoaren Ulermena 2003 (I.-Parrandara autobusez; II.-Familia eta kirola)

1	E	11	G
2	G	12	E
3	E	13	E
4	E	14	E
5	G	15	E
6	G	16	G
7	E	17	E
8	G	18	E
9	G	19	G
10	E	20	G

HE1: Irakurmena 2003 (Money, money)

A eredua

1	2	3	4	5
J	E	A	G	B

6	7	8	9	10
I	D	F	C	H

VII.2. HE2ko probak

HE2: AAG 2002

1	B	11	D	21	C	31	C	41	D	51	D	61	B
2	C	12	C	22	C	32	A	42	A	52	D	62	A
3	A	13	A	23	C	33	A	43	C	53	B	63	D
4	D	14	A	24	A	34	C	44	C	54	B	64	D
5	A	15	B	25	D	35	A	45	B	55	D	65	C
6	B	16	C	26	D	36	B	46	D	56	C	66	B
7	B	17	A	27	B	37	D	47	D	57	B	67	A
8	A	18	A	28	B	38	B	48	D	58	B	68	C
9	A	19	D	29	A	39	C	49	C	59	B	69	D
10	A	20	D	30	B	40	B	50	B	60	A	70	C

HE2: AAG 2003

1	A	11	D	21	B	31	D	41	A	51	D	61	B
2	C	12	C	22	A	32	B	42	D	52	C	62	D
3	A	13	C	23	A	33	A	43	B	53	D	63	A
4	C	14	A	24	A	34	D	44	A	54	B	64	A
5	C	15	B	25	C	35	C	45	C	55	D	65	A
6	B	16	A	26	B	36	B	46	C	56	B	66	C
7	D	17	B	27	D	37	D	47	D	57	D	67	D
8	B	18	A	28	C	38	D	48	B	58	C	68	B
9	D	19	D	29	B	39	B	49	B	59	D	69	B
10	B	20	A	30	C	40	B	50	C	60	A	70	B

HE2: Irakurmena 2002(Rosetti-ren obsesioa)

C eredua

1	2	3	4	5
D	B	B	C	D

6	7	8	9	10
C	D	B	D	D

HE2: Irakurmena 2003 (Bartzelona)

C eredua

1	2	3	4	5
C	B	D	B	C

6	7	8	9	10
A	D	C	A	D

VIII. ERASKINAK

VIII.1. Estatistika-laburpena

2002 DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	2500	1010
Atarikoa gaintitu	1310	524
Idatzia gaintitu	759	161
Ahozkoa gaintitu	663	108
Gaintitze-tasa	26,5	10,7

2002 DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	317	456
Gaintituak	114	154
Gaintitze-tasa	36,0	33,8

2003 DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	1938	2046
Atarikoa gaintitu	772	902
Idatzia gaintitu	574	397
Ahozkoa gaintitu	481	229
Gaintitze-tasa	24,8	11,2

2003 DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	308	534
Gaintituak	159	177
Gaintitze-tasa	51,6	33,1

VIII.2. Arauzko xedapenak

VIII.2.1. Lehen zehaztapena

47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derigortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (apirilaren 2ko EHAA)

(.....)

II. ATALBURUA.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

2. *atala.*– Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

3. *atala.*– Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1. hizkuntza eskakizuna eta 2. hizkuntza eskakizuna.

1. hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2. hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

4. *atala.*– 1.HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle bartzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;
- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta tekniko ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

5. *atala.*– 2. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- 1. HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitezkeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);
- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;
- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

(.....)

VIII.2.2. Ebaluazio-irizpideak

AGINDUA, 1994ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak edukinez eta formaz zehazten dituena. (urtarrilaren 26ko EHAA)

(.....)

I ERASKINA

1.- HEI EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HEI egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HEI egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean), gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez

B.1.- Ikasleekiko elkarrizketan

- Irakaslanarekin zerikusirik duten gaietan: ikasleen jokaera, motibazioa, eskola-lorpena, beste ikasle eta irakasleekin izan ditzaketen bestelako arazoak eta etxean duten ikas-giroa, besteak beste.
- Ikasleek, zein bere adinean, dituzten arazo eta interesekin loturik dauden gaietan: familiako, lagunekiko nahiz nortasun-arazoetan; era berean heltze-prozesuan izan dezaketen beste edozein alderdi esanguratsu.

B.2.- Beste irakasleekin, ikasleen gurasoekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

- Eskolarekin loturik dauden gaietan: pedagogiazko helburu eta orientabideak, ikasturtearen programazioa, ikasturteari buruzko iritzia orohar eta ikasle bakoitzari buruzkoa, eskola barneko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak, neurketa-irizpideak, lortutako emaitzak eta, orohar, pedagogialanarekin eta ikastegiaren funtzionamenduari loturik dauden gaietan.

c) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.- Kanal anitzetik igorritako ahozko testuetako informazio nagusia jasotzea.

Irizpide honen bidez ahozko mezuetan dauden oinarrizko ideiak ulertu diren ala ez egiaztatu nahi da. Komeni da, horretarako, eskola-inguruan ohizkoak diren hizkuntz egoeretan erabili diren testuak erabiltzea.

2.- Eskola-inguruan ohizkoak izanik eta orohar irakaslanarekin loturik dauden gaiei buruzko testu idatzietako informazio nagusia beste inoren laguntzarik gabe antzematea.

Irizpide honekin ikasketariak zailtasun-maila eta luzera desberdinetako testu idatzietatik informazioa jasotzeko duen gaitasuna neurtu nahi da, beti ere luze-zabalean erabilgarri diren testuetan: aktak, zirkularrak, jakinarazpenak, eskutitzak, buletinak, ikasmaterialak...

3.- Testu idatzi nahiz ahozkotan daudekeen hizkuntz elementu ezezagunen eta informazio implizituaren esanahia deduzitzea.

Irizpide hau aurreko beste biek in loturik dago. Ikasketariak testu idatzi eta ahozkoak zenbateraino ulertzeko gai den neurtu nahi da. Arreta berezia hartuko da ikasketaria testuan ezagutzen ez dituen hizkuntz elementuen esanahia bereganatu eta egiaztatzeke gai den ala ez neurtzerakoan, horretarako testuingurua, bere kultur jakituria, prozedura analitiko eta etimologikoak edo bestelako baliabideak erabiliz, adibidez benetan ulertu den egiaztatzeke testuan atzera egitea edo kontsulta-materiala erabiltzea. Era berean testuinguruagatik elementu inplizituak ateratzeko edo testuaren hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna (igorleak izan dezakeen zeharbidezko intentzioa, ironia...).

4.– Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestatuturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.

Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adierazteke eta hartzaileak ulertzen duen eta egoera eta helburuari egokia zaion diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketarien ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da, eta mintza-jardunean etenik gerta ez dadin lagunduko zaio: galderak ginez, argudioak emanez, txandaka mintzatuz...

5.– Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idazteke gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.

Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntza egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteke gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu behar du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanez. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin behar du lexis eta ortografiatzeko zalantzak argitu ahal izateke.

6.– Eskuratutako hizkuntz ezagupenak erabiltzeke gai izatea, ikasprozesuan autonomia indartzeko autozuzenketa-prozedura zenbaitez baliatuz.

Irizpide honen bitartez neurtu nahi dena zera da: ikasketariak berak edo bere lankideek egin ditzaketen akatsak, ahoz nahiz idatziz, identifikatzeko, eta, zenbaitetan, zuzentzeke gai den ala ez.

2. HE2 EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarrizteke irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE2 egiaztatu ahal izateke honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliteke dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE2 egiaztatzeke badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi behar du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean) eta gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntz Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan. Orobat, eta oroz gain, bere gaia edo arloa euskaraz irakasteko gai dela erakutsi behar du.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez.

Irakaslanarekin ikasleek dituzten arazo eta intereseekin eta eskolako jardunarekin loturik dauden gaiez gainera — Eraskin honetako HE1-i buruzko atalean ezarri den bezalaxe — ikasketariak HE2 egiaztatutako badu bere jakintzagai edo arloa azaltzeke trebetasuna erakutsi behar du.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.– Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berariazko informazioa jaso eta horren edukia ahoz nahiz idatziz adieraztea.

Irizpide honen bidez zera neurtu nahi da: erabilpen-esparru desberdinetan (giza-harremanak, komunikabideak, Administrazioarekiko harremanak, ikasgelan erabiltzen den hizkuntza...) benetan erabiltzen diren testuen nondik norakoaz eta bigarren mailako informazioaz jabetu diren ala ez; testuak beti ere aktualitatea, kultura, irakaslan orohar hartuta edo irakaslearen jakintza gaiarekin zerikusia duten gai bereziagoak izango dute ardatz; irakaslea, honenbestez, informazio hori kritikoki analisatu, berrantolatatu eta bere ekoizpenetan erabiltzeko gai izango da, ahoz nahiz idatziz.

2.– Ikasleak darabilen hizkera estandarretik asko urruntzen ez den euskalki batean ekoiztutako ahozko testuetako nagusiki zein gai azaltzen diren ulertzea.

Ikaslearen ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak orohar ulertzen dituen ala ez neurtu nahi da. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratu dituen egiaztatu nahi da. Testu horiek eskola-inguritik atereak izango dira.

3.– Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta xehetasunez jabetzea, informazio inplizitua eratorriz. Kalitate eskaseko testuak direnean, akatsak, koherentzia-ezak, e.a. antzematea, bai edukiari bai alderdi formalagoei (ortografia, zuzentasuna...) dagokienez, testu horiei buruzko bere iritzia azalduz.

Irizpide honen bidez ikasketariak bere irakas-jardunarekin loturik dauden testu idatziak ulertzeko bereganatu duen trebezia neurtuko da, testuan ezezagun gerta dakizkiokeen elementu esplizituak testuinguruagatik zuzen interpretatzeko eta hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna kontuan hartuz. Era berean, bere ikasleek kalitate eskasaz ekoiztutako testuak kritikoki irakurtzeko eta behar izanez gero testuok hobetzeko orientabideak (akatsen zuzenketa, testuaren egokitzapena, e.a.) emateko gaitasuna zenbateraino bereganatu duen begiratu da.

4.– Bere jakintza-gaiarekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egitea. Argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestatutako eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkien galderei erantzunez, irakasmila bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituzten ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.

Irizpide honekin ikasketariak aurrez erabakitako eskema edo gidoia erabiliz bere jakintzagaiari buruzko gai baten inguruan dituen ideiak antolatu eta era logikoan azaltzeko eskuratutako gaitasuna zenbaterainokoa den neurtu nahi da, horretarako hizkera jariakor eta zuzena erabiliko duelarik. Orain esandakoaz gain bere hizkeraren zehaztasuna, ebakera eta egiten zaizkion galderei ihardestean emandako erantzunak egokiak diren ala ez ebaluatuko da, bere irakasmilak eta beren arloan dituzten berezko ezaugarriei atxekiz.

5.– Elkar-eraginezko elkarrizketetan parte hartzea, eskola barneko munduaz nahiz eskolaz kanpo diharduten gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

Irizpide honen bidez eskola-giroko informazioa (adibidez errendimendua, ikaslearen jarrera, ikas-tetxearen funtzionamendua, programen egokitzapena...), eskolaz kanpokoa (eguneroko bizimodua, aktualitatea) eta komunikazio-egoera desberdinei buruzkoa (elkarrizketa arrunta, klaustro edo bestelako bilerak) azaltzeko gai den ala ez neurtu nahi da. Bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jariotasuna eta ebakera; gaiarekiko atxekimendua hiztegiaren aldetik; era logiko eta egituratuaz dituen iritziak azaldu eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzeko gaitasuna neurtuko da (solkaskide-kopurua, komunikazio-intentzioa eta testuinguruko beste elementu batzuk).

6.– Zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, oharra, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzea, iturri anitzeko informazioa integratuz eta testuari barne-lotura ematen dioten baliakideak (lokailuak, aditz tempusak, e.a.) erabiliz.

Iturri idatzi nahiz ahozkoetatik informazioa jaso, sintetizatu eta era egokian idatziz aurkezteko gauza den neurtu nahi da. Ikasketariak, hortaz, bere jakintza-gaiarekin loturik dauden euskarazko materiala ezagutu eta erabili beharko du. Ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzentasuna, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.

7.- Ikasketariak eskuratutako ezagupen linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboak erabiltzea, antozuzenketazko prozedurak zorrotz erabiliz.

Elementu linguistiko eta diskurtsiboak (menpeko perpausak, nominalizazioak, bere arloari dago-kion lexiko berezia, lokailuak) ezagutu eta erabiltzean eskuratutako heldutasun-maila neurtu nahi da. Kalitate oneko hizkuntz ekoizpena burutu eta behar izanez gero hobetu, eta berak edo bere lankideren batek, ahoz nahiz idatziz, egin ditzakeen akatsak identifikatu eta zorrotzasunez eta kritikoki zuzentze-ko gai izango da.

(.....)

VIII.2.3. Deialdi itxien kalifikazio-sistema

AGINDUA, 1995eko apirilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuare-na, IRALE programan liberatuta dauden irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterke-ten kalifikazio-sistema arautzen duena. (maiatzaren 11ko EHAA)

(.....)

1. *atala*.- HE1eko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

- | | |
|--------------------------|---|
| - Ahozkoaren ulermena: | Otik 5 puntura |
| - Irakurriaren ulermena: | Otik 5 puntura |
| - Idazlan laburra: | <i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 1 dagozkie
<i>Gutxi</i> -ri 2 puntu dagozkie
<i>Nahikoa</i> -ri 4 puntu dagozkie
<i>Ongi</i> -ri 6 puntu dagozkie
<i>Oso Ongi</i> -ri 8 puntu dagozkie
<i>Bikain</i> -i 10 puntu dagozkie |
| - Idazlan luzea: | <i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 5 dagozkie
<i>Gutxi</i> -ri 10 puntu dagozkie
<i>Nahikoa</i> -ri 15 puntu dagozkie
<i>Ongi</i> -ri 20 puntu dagozkie
<i>Oso Ongi</i> -ri 25 puntu dagozkie
<i>Bikain</i> -i 30 puntu dagozkie |

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

- Otik 10era: *Oso Gutxi*
- 11tik 23ra: *Gutxi*
- 24tik 32ra: *Nahikoa*
- 33tik 40ra: *Ongi*
- 41etik 45era: *Oso Ongi*
- 46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

2. *atala*.- HE2ko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

– Irakurriaren Ulermena:	Otik 10 puntura
– Idazlan Laburra:	<i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 1 dagokio <i>Gutxi</i> -ri 2 puntu dagozkio <i>Nahikoa</i> -ri 4 puntu dagozkio <i>Ongi</i> -ri 6 puntu dagozkio <i>Oso Ongi</i> -ri 8 puntu dagozkio <i>Bikain</i> -i 10 puntu dagozkio
– Idazlan Luzea:	<i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 5 dagozkio <i>Gutxi</i> -ri 10 puntu dagozkio <i>Nahikoa</i> -ri 15 puntu dagozkio <i>Ongi</i> -ri 20 puntu dagozkio <i>Oso Ongi</i> -ri 25 puntu dagozkio <i>Bikain</i> -i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

Otik 10era: *Oso Gutxi*
11tik 23ra: *Gutxi*
24tik 32ra: *Nahikoa*
33tik 40ra: *Ongi*
41etik 45era: *Oso Ongi*
46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

3. *atala*.- Bai HE1 eta bai HE2ko azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu beharko dira, Idatzizkoa eta Ahozkoa. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipiniko da:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

Bai zati idatzian, bai ahozkoan oinarrituta ipini behar den nota orokor hori erabakitzerakoan zailantzarik balego, ahozko zatia gehiago balioetsiko da.

4. atala.– Azterketa-batzordeak IRALE programan liberatuta dauden ikasketarien txanda-amaierako balioespenak izango ditu eskueran. Balioespen horiek kasu hauetan aldatu ahal izango dute azterketaren nota orokorra:

a) Idatzian 22 edo 23 puntu lortu dituzten azterketariak, beti ere bi Idazlanetariko bat bederen eta Ahozko zatia gaindituta badituzte.

b) Ahozko azterketan “gutxi” kalifikazioa izanik ere, gaindituaren muga-mugan dagoen kasu bereziren bat, beti ere Idatzizko zatia gaindituta badu.

Kasu hauetan txanda-amaierako balioespena hartuko da kontuan, hain zuzen ere, HE1eko azterketan 3. moduluko balioespena eta HE2ko azterketan 5. moduluko.

5. atala.– Laugarren atalean zehazten diren azterketari horien kasuan honela jokatuko da: azterketariak suspenditu duen azterketa-zatiari dagokion balioespena begiratuko da. Azterketariak Idatzizko zatia suspenditu badu, idazmenari dagokion balioespenari begiratuko zaio. Ahozko zatia suspenditu badu, aldiz, mintzamenari dagokion balioespena hartuko da kontuan. Arlo horretako txanda-amaierako balioespena positiboa denean, azken hau nagusituko da azken balioespen globala ematerakoan. Berraztertze-lan hau azterketa-batzordeak edo, batzordeburuak hala nahi izanez gero, haren barnean horretarako moldatzen duen batzorde txikiago batek, burutuko du.

6. atala.– Azterketarien azken ebaluazioa azterketa-batzordeak emango du “gai” edo “ez gai” moduan eta Agindu honetan esandakoaren arabera.

7. atala.– Hala nahi duen azterketariari ahozko zatia grabatuko zaio. Horrek, besteak beste, erreklamazio-kasuetan kalifikazioa zuzen jarri dela ziurtatu ahal izatea ahalbideratuko du

8. atala.– Azterketaren maila arauz finkaturik dagoenera egokitzen dela ziurtatzeko, notak jakinarazi aurretik azterketen ehuneko bat bigarren aldiz kalifikatuko da. Ahalmena ematen zaio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari atal honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

9. atala.– Kalifikazio-sistema hau aplikatzeko behar diren balorazio-irizpideak lantzea Epaimahai Bateragileari dagokio.

(.....)

VIII.2.4. Deialdi irekien kalifikazio-sistema

AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1998ko urriaren 22koa, irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko deialdi ireki bidezko azterketen kalifikazio-sistema arautzen duena.(azaroaren 5eko EHAAn)

1. atala.– Deialdi irekizko hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketek, bai eta HBLEMekoek ere, hiru proba izango dituzte, hirurak apartekoak eta kanporatzeko izaera dutenak.

2. atala.– Lehen hizkuntz eskakizunaren (hots, irakasleen HE1en) probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

1. proba: Aukera Anitzeko Galderak. Proba honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratzen dira. Probak 70 galdera ditu eta hori gainditzeko 45 galdera asmatu behar dira gutxienez. Proba honek ordubete iraungo du gehienez.

2. *proba*: Proba Idatzia. Ahozkoaren ulermena, irakurriaren ulermena eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen atalak honela kalifikatuko dira:

- Ahozkoaren ulermena: Otik 5 puntura
- Irakurriaren ulermena: Otik 5 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio

- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio

Proba “gai” edo “ez gai” moduan kalifikatuko da. Gai kalifikazioa eskuratzeko 24 puntu lortu behar dira gutxienez. Azterketa honek 3 ordu iraungo du gehienez.

3. *proba*: Ahozko proba. Proba hau azterketa-batzordeko gutxienez bi kideren aurrean egingo da. “Gai” edo “ez gai” moduan kalifikatuko da.

3. *atala*.– Bigarren hizkuntz eskakizunaren (hots, irakasleen HE2aren) probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

1. *proba*: Aukera Anitzeko Galderak. Proba honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratzen dira. Probak 70 galdera ditu eta hori gainditzeko 45 galdera asmatu behar dira gutxienez. Proba honek ordubeteko iraungo du gehienez.

2. *proba*: Proba idatzia. Irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen atalak honela kalifikatuko dira:

- Irakurriaren ulermena: Otik 10 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio

- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio

Proba “gai” edo “ez gai” moduan kalifikatuko da. “Gai” kalifikazioa eskuratzeko 24 puntu lortu behar dira gutxienez. Azterketa honek 3 ordu iraungo du gehienez.

3. *proba*: Ahozko proba. Proba hau azterketa-batzordeko gutxienez bi kideren aurrean egingo da. “Gai” edo “ez gai” moduan kalifikatuko da.

4. *atala*.– HBLEM azterketaren eskemari eta kalifikazioari dagokienez, zati idatzia HE1ekoaren parekoa izango da eta ahozko zatia HE2koaren parekoa. Azterketari hauei eskatuko zaien gaitasun-maila zehazteko, bete behar duten lanaren ezaugarriak hartuko dira kontuan 1996ko azaroaren 14ko Aginduak (96-12-5eko EHAA) bere 5. atalean ezartzen duen bezala.

5. *atala.*– Azterketaren hiru probak egun desberdinetarako deitu ahal izango dira. Proba bakoitza baztertzaila izango da eta, ondorioz, aurreko proba gainditu duenari soilik deituko zaio hurrengorako. Probaren bat aurrekoaren emaitzak ezagutu baino lehen egingo balitz, aurrekoa gainditzen dutenei bakarrik zuzenduko zaie bigarrena.

6. *atala.*– Proba guztiak "gai" edo "ez gai" moduan kalifikatuko dira azkenean. Hiru probak gainditzeak kasuan-kasuan HE1, HE2 edo HBLEM egiaztatzea ekarriko du, «gai» edo «ez-gai» guztizko kalifikazioarekin.

7. *atala.*– Probaren bat gainditu bai baina denak gainditzen ez badira, egindakoa ez da kontuan hartuko aurrerago egin daitezkeen hizkuntz eskakizunen egiaztapen-prozesuetan.

(.....)

Euskara Zerbitzuko zenbait argitalpen

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

2005/03/1

GLOTODIDAKTIKA LANAK

Gaitasun-agiriak

- 63 Irakasleen hizkuntz eskakizunak. 2001eko azterketak.
- 66 EGA. 2003 eta 2004ko azterketak.

Hizkuntzen irakaskuntza

- 45 Irakasleen euskalduntzea. HE1erako curriculum: 1000, 2000 eta 3000 atalak.
- 48 Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak (J.J. Agirrezabala etab.)
- 49 Irakasleen euskalduntzea. HE2rako curriculum: 4000 eta 5000 atalak.
- 53 Gramatika gaitasuna lantzen (A. Zubizarreta, M. Dorronsoro, J.M. Azurmendi)
- 54 Kontuan izan. Akatsak zuzentzen. (P. Eizagirre Irure)
- 55 Hartu hitza (ikaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)
- 57 Hartu hitza (irakaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)
- 61 Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak. Gidaliburua. (Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Sarriugarte, I.)
- 62 Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak. Ariketa liburua. (Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Sarriugarte, I.)

HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

Hizkuntz Prestakuntza

- 1 Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza. (A. Arejita-J.M.Irazola-J.Uriarte)
- 2 Euskal Aditza: bizkaiera eta batua. (J.M. Irazola)
- 4 Bizkaierazko joskera. (A. Arejita, J.M. Etxebarria, J.M. Irazola, J. Uriarte)
- 5 Hezkuntza administrazioko hiztegia. (I. Olaziregi, J.M. Berasategi, M. Zalbide)

Ulibarri programa

- 6 Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara. (X. Isasi, L. Erriondo)
- 7 IKABILerako laguntza-materiala. (M. Soria)
- 8 Ahozkotasuna hezkuntzan. Abiatzeko gidaliburua. (I. Esnaola)
- 9 Erabileraren neurketa ikastetxeko eremu informaletan. (O. Altuna)
- 11 Euskara eta aisialdi antolatua. (J. Arexolaleiba eta beste.)
- z/g «Eskola hiztun bila» jardunaldia 2002. (Askoren artean.)

IKASMATERIALAK

Toribio Etxebarria-Lanbide Heziketako materialak

- 1 Prototipo elektronikoen garapena eta eraikuntza (X. Castrillon, J.C. Lizarbe)
- 2 Finantza kudeaketa (A. Atxalandabaso, I. Elorrieta, J. Sanchez)
- 3 Giza baliabideak. (B. Etxabe, I. Landa)
- 4 Kultur animazioa. Gizarte eta kultur animazioa. (M. Garizurieta)
- 5 Analisi kimiko eta tresna bidezkoa. (E. Iturraspe, A. Ribera)
- 6 Laborategiko antolaketa eta kudeaketa (M.T. Benítez)
- 7 Farmazia- eta parafarmazia-produktuen prestaketa (M. Treviño Alberdi, I. Vázquez López)
- 8 Esku-hartze komunitarioaren metodologia (J. del Río Aldasoro)
- 9 Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak (A. Anasagasti Arana)
- 10 Biltegiatze-lanak. (C. Bengoetxea eta beste)
- 11 Komunitate-garapena (I. Silloniz Ozamiz)
- 12 Jolasen oinarri teorikoak eta umeen jolasak (B. Llorente Pastor)

ZABALKUNDE LANAK

Irakaskuntza datuak

- 24 Euskal irakaskuntza: 10 urte. (M. Zalbide etab.)
- 49 Basque in education. (N. Gardner)

IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea)

z/g IRALE. Aurkezpen-txostena 2005-06.

NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena)

- 18 Eskola antzerkia 1. (Askoren artean)
 - 28 Eskola hiztun bila. (B. Basterretxea etab.)
 - 30 Eskola antzerkia 2. (Askoren artean)
 - 31 Eskola antzerkia 3. (Askoren artean)
 - 34 Euskal girotze barnetegiak. (Askoren artean.)
 - 37 Ikastetxeen errotulazioa. (C. Lobo, I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 40 Eskola antzerkia 4. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 42 Eskola antzerkia 5. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 44 Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa. (Eresbil, Nolega)
 - 45 Eskola antzerkia 6. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 48 Euskal girotze barnetegiak. (Askoren artean)
 - 51 Txan-go (Askoren artean.)
 - 52 Eskola antzerkia 8. (I. Artola, J.M. Iturain, J.M. Odrizola)
 - 53 Eskola antzerkia 9. (I. Artola, J.M. Iturain, J.M. Odrizola)
- z/g Barriola deklamazio-saria 2003-2004 (CDa)
- z/g NOLEGA. Aurkezpen-txostena 2004-05
- z/g Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa 2004.

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

2002

2003

HE1eko Mintzamena:

- 1.-PELLO ZABALA- I
- 2.-PELLO ZABALA- II
- 3.-PARRANDARA AUTOBUSEZ
- 4.-FAMILIA ETA KIROLA

HE2ko Entzumena:

- 5.-TELEFONIA ANTENAK
- 6.-ANTRAXA
- 7.-POSTA INTIMITATEA
- 8.-TRENA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardurapean egindako argitalpena da. Sailak eskerrak ematen dizkie elkarrizketagileei, elkarrizketatuei eta Euskadi Irratiari.


IRAKASLEEN
HIZKUNTZA
ESKAKIZUNA

2002 eta 2003ko
AZTERKETAK



Irakasleen hizkuntza eskakizunak
EK15020254

ISBN 84-457-2283-2



9 788445 722831

Salneurria: 6,25 €

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco